

Hegats

Literatur aldizkaria

31



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

Literatur

aldizkaria



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

Burua: Tere Irastortza
Kideak: Jon Benito
Andolin Eguzkitza
Maite Gonzalez

Koordinatzailea: Ana Urkiza

Diseinua eta maketazioa: K3 Inprimategia
Amillaga, 1 - 6. pabiloia. 20570 Bergara

Euskal Idazleen Elkartea

Zurriola hiribidea, 14-1. ezk.
20002 Donostia
Tel.: 943.27.69.99. Faxa: 943.27.72.88
P.E.: eie@eie.euskalnet.net

ISSN: 1130-2445

L.G.: SS-359/90

Literaturbideak:

Jaume Pérez Montaner. *Niobideren oroitzapena* 9

Kritikabideak:

Tere Irastortza. *Euskal literaturaren historiaren orri gehigarria* 17

Txosten monografikoa: Aita Villasante.

Jose Luis Zurutuza "Arendui". *Aita Villasante eta Arantzazu* ... 33

Jose Antonio Gandarias. *Luis ene lagun mina* 77

Elkarrizketa:

Arantxa Iturbe. *Joseba Intxausti, mende laurdena euskal nortasun bila* 113

Liburu-iruzkinak:

ARKOTXA, AURELIA. *Septentrio*. Itxaro Borda 131

LIZARRALDE, PELLO. *Larrepetit*. Maite Gonzalez Esnal 135

Literaturbideak



Jaume Pérez Montaner

Niobideren oroitzapena
Itzulpena (katalaneratik): Andolin Eguzkitza

"Ted Berrigan"

Ara estic mort y ho sé
y òbric els ulls només per contemplar
els morts d'ahir o els de demà. No sent
el ganivet del vent ni la bavosa
llengua que regalima en les orelles.
Només odi y record, desesma y descoratge
entre llargs corredors y fenestres fingides,
aranyes que s'enfilen, escarabats lluents;
les potes de l'anyell són urpes retorçudes
y ha esquinçat la matrona un ventre d'escurçons.

Ara estic mort y ho sé. No és prou
a poc a poc renàixer y bastir
altes parets amb unghes destrossades
o arrancar-se la pell a la boca de l'odi.

Vindran gripaus grimpaies:

is the handsome stranger?

"kill him".

Ara estic mort y només sent
l'enrenou de la pluja, el sol que creix
o s'atura als llindars de la memòria.
Em vinclé com el jonc, mentre passen els vents
y els mortals que enraonen esplendors impossibles.

“Ted Barrigan”

Orain hilda nago eta badakit
eta begiak zabaltzen ditut begiratzeko bakarrik
atzoko hilak edo biharkoak. Ez dut sentitzen
haizearen ganibeta, ez eta mihi lerdetsua
belarrietan isurtzen dena.

Gorroto dut bakarrik eta gomuta, adore eta kuraiarik eza
korridore luze eta leiho itxuratutakoan artean,
kordatzen diren armiarmak, kakarraldo dirdiratsuak;
arkumearen hankak erpe okertuak dira
eta urratu egin du emaginak sugedorri-sabel bat.

Orain hilda nago eta badakit. Ez da nahikoa
apurka apurka bersortzea eta eraikitzea
paret handiak atzazkal deseginez
edo nork bere azala tiraka kentzea gorrotoaren ahoan.

Apo igokariak etorriko dira:
is this the handsome stranger?
“kill him”.

Orain hilda nago eta sentitzen dut bakarrik
euriaren burrunba, hazi egiten den eguzkia
edo oroimenaren atalarrian gelditzen dena.
Ihia bezala makurtzen naiz, haizeak iragaten diren bitartean
eta ezinezko distirak zuzenesten dituzten hiltzekoak.

Domini del redord

a Josep Palàcios

Però en la solitud els colors del brostam
convergien insomnes en l'única mirada,
blanca com les ninetes sota les aigües mortes,
giravoltant sense esma, cridant com les paraules

que criden inaudibles y esclaten sense forma
com el foc y els colors blancs del foc, com les fulles
tritíssimes del salze en oblidats capvespres,
crident com les gavines y aquell crit adormit
llaruíssim com un somni entre els jardins nevats.
Blancs com els meus cabells, multiplicats tornaven,
exhibien impúdics la blancor de la mort
tots els colors de l'herba, el salze y les paraules
y el crit cruel de l'herba, 'aspre crit de Walt Whitman
y el record de la por ara sempre amb nosaltres
talment una germana ja per sempre amb nosaltres.

Gomutaren barrutia

Josep Pàlacios-i

Baina bakardadean hostaiaren koloreak
begirada bakarrean batzen ziren logabe,
zuria ur hilen azpiko betseinak bezala,
norabiderik gabe biraka, berbek bezala oihuka
entzungabe oihu egiten dutenak eta leher egiten formarik gabe
sua bezala eta suaren kolore zuriak bezala,
sahatsako orri arras goibelak bezala ahazturiko arrastirietan,
oihuka kaioak bezala eta heiagora lokartu hura
lorategi elurreztatuen arteko amets arras luze bat bezala.
Nire ileak bezala zuri, biderkatuta zetozen atzera,
heriotzaren zurtasuna zerakuskiten lizunkoi
belarraren kolore guztiak, eta sahatsarenak eta hitzenak
eta belarraren garrasi ankerra, Walt Whitman-en garrasi latza
eta beldurraren gomuta orain beti ere gurekin
arreba baten moduan gure artean betiko.

Nit

Només trencar l'encís o el malefici
d'aquesta nit curulla de sorolls,
músiques inaudibles, entresomnis
que fugen o s'aturen al llindar
dels abismes; obrir els ulls y veure els
distints com són y omplir-se lentament
de llums de matinada y els colors
imprecisos d'un somni enamorat.
La meua nit es trenca en el silenci
que em ve de tu y és com l'apell obscura
del teu ventre, com els cabells suaus
sota les meues mans plenes d'estiu.
Ara, però, m'ofeguen les paraules
humides que dibuixen el teu cos.

Gaua

Gau honen lilura edo begizkoa etetea bakarrik,
zaratotsez beterikoa,
ezinentzunezko doinuez, amesgaiztoez
ihes egiten dutenak edo gelditzen direnak
amildegien hegietan; begiak zabaldu eta
desberdin ikusi, diren bezala, eta astiro betetzen
goizaldeko argiez eta kolore zehazgabeaz
amets maitemindu batenak.
Nire gaua eteten da isiltasunean
zugandik datorkidana eta zure sabeleko azal beltzarana
lakoxea dena, ile leunak lakoxea
udaz gainezkaturiko neure eskuen azpian.
Orain, baina, ito egiten naute
zure gorputza marrazten duten hitz hezeek.

Kritikabideak



Tere Irastortza

*Euskal Literaturaren Historiaren
Orri Gehigarriak*

1961

1. Historia de la literatura vasca, euskal literaturaren historiaren habe eta soliba.

Egileak hitzaurrean aditzera ematen duen moduan, *Historia de la literatura vasca* behar larri erantzuteko premiaren umea da. "Julio Urkixo" izeneko mintegiaren baitan irudikatu, eta, nahi baduzue, sortua.

Luis Villasante ezerezetik hasi zen, hein batean. Ez lehendik euskal liburuei buruzko erreferentziarik ez zegoelako. Baziren eta eza-gutzen zituen egileak hainbat eta hainbat bibliografia lan, -Vinsonena¹ kasu- baita zenbait literatur historia-ikuspegi -Euskal Esnalean, 1927an Orixek² tartekatu zituen berrogeita hamar orri inguruko Euskal literaturaren atze edo edesti laburra zein Luis Mitxelena³ 'rekuko-, eta baita zenbait testu-arteflogia ere. Luis Villasante, ezerezetik hasi zen, beraz, literaturaren historia hau egiteko erabilitako iturri gehienak aldizkarietan sakabanatuak zeudelako. Luis Villasante ezerezetik hasi zen, nola ez, erreferentziak ere sakabanatuak zeudelako.

Liburua egiteko, haatik, eskura izan zituen egileak euskal liburu zaharrak. Alde horretatik, beraz, behar zen tokitik hasi zen: liburuen irakurketetatik. Are gehiago: egile hau izan zen euskal liburuen irakurketa euskal literaturaren historiaren irakurketa gisara zedarritu zuen aurrenekoa, etorriko ziren irakurleei euskal liburugintzaren irakurketaren bidea zabaldu ziena, eta, beraz, beste liburu-irakurketa anitzen oinarri. Luis Villasantek ezereza gailendu ahal izan zuen,

hala ere, liburu gehienak eta aldizkari gehienak, aipatu Julio Urkixu mintegian aurkitu ahal izan zituelako, eta baita, isileko lan luze eta etengabearen aritutako hainbat eta hainbat ikerlariri esker ere, berak sarreran, 9. atalean aipatzen duen moduan.

Baina haren *Historia de la literatura vasca* hura, zentzu askotan, esan daiteke euskal literaturaren historiaren hasmenta izan zela. Eta horrela euskal literatura 1545ean hasi zela esaten badugu, euskal literaturaren historia sistematizatu 1961ean hasi zela esan genezake, Villasante eta Mitxelena hartuz euskal literaturaren historiaren aita-lehentzat.

2. Nola Aita Villasantek ezereza aldarrikatzen zutenekin eztabai datu ordez, bere liburuarekin literaturaren historiak eztabaidatzea eraman gintuen.

Horraino, Villasanteren historiak euskalgintzaren ezaugarri bipilene tako bat du ardatz: premia. Behin eta berriro euskaltzaleak akuilatzer dituen premia, betiko ezinezkoen bat gainditu beharra. "El imposible vencido" hura bera. Etxeparek aipatzen zuena eta Axularrek bere liburuaren hasieran adierazitakoa bera. Denari, garenari, izena eman ezir bazaio ere, hitza emateko beharra. Kasu honetan euskal literatura bade la eta euskal literaturak bere historia baduela eta behar duela aldarrikatzeko premia, euskal jendearen ezjakina gailentzeko premia.

Premiari erantzuteko, ordea, ez zuen polemika bidea aukeratu, baizik eta pisuzko datuekin, eztabaidaren zelaia mugatzearena. Datuak zenbakiak, izenak bildu ondoren, ez zuen gehiegi teorizatzen jo. Liburuak zabaltzen hutsarekin, argibide gehiago behar ez duen aldarrikapenak aurki dezake edozein irakurlek. Liburuaren 480 ataletan, labur bezain hesiturik, euskal literaturaren historiari buruzko 480 baieztapen daude gutxienez. 397 oharretan barrena zabal daitezkeenak. Gainera indize alfabetiko (onomastiko, toponimo eta gai-bilketak) eta gaien aurkibide analitikoekin beste 38 orrialde osatzen dira. Liburuari emandako jiteak berak aurrerantzean euskal literaturaz hitz egingo zuenari asko jakitea eskatzen zion. Euskal literaturaren historia bazena frogatua geratu zen!

Alde horretatik, esan dezakegu, liburuak garaiko premia larri bati erantzun zion literatur historia dela. Euskara beraren ezintasunaren aurkako aldarrikapen irmoa, gazteleraz idatzia. Euskal literaturaren lehen apologia, hein batean. Euskal literaturaren hordagoa. Handira botatako hordagoa, inondik inora. Historia emanda, literatura liburu honen osteko idazleek egin baitzuten, euskal literaturaren historia irakurritz, landuz eta gailenduz.

3. Nola *Historia de la literatura vasca*, ekintza eta ekimen bilakatu zen. Nola bazekien etorkizunak bakarrik sortu dezakeela historia bat, demagun, euskal literaturarena.

Euskal kutsua zuen guztia debekatua zegoen garai hartan, euskal literaturaren historia idatzi ahal izana bera, euskal liburu guzti horiek esku-ragarri izan zitezkeela jakinarazteak, arnasaldi luzeagoa eman zien euskal kulturari eta euskal idazleriari, pairatzen zuen isolamendu egoeratik ateratzeko bidea urratzen lagunduz. Izan ere, historia honek, aurreneko irakurle batek egindako irakurketa bateratzaileak euskal liburuak sokan jarri baitzituen, finean literatur historiak egiten duen bezalaxe.

Uste dut, alde horretatik, Villasanteren liburua euskal literaturaren loratzearen atarian jarri behar dela, Mitxelenarenarekin bateratsu argitaratu ondoren. 1964an, *Maldan behera* liburuarekin, markatu ohi dugu euskal literaturaren modernizazioaren abiapuntua. Zer esanik ez, orduan euskal literaturan saiatzen zirenentzako eta gazteak zirenentzako, izugarritzko euskarria izan zela Villasanteren historia. Irakurtzen ziren liburuak kokatu ahal izateko aukera bakana, egileak zioen bezala.

“Por otra parte, es un hecho que por la falta de una enseñanza organizada y metódica da los cultivadores prácticos de la lengua vasca apenas tienen más que una vaga idea de los escritores de los siglos pasados, ni, por lo general, tienen ante sí más horizontes literarios que los de la generación contemporánea, y aún en ésta tan sólo de una de las dos partes en que se divide el país. Es ya mal crónico entre nosotros que el escritor vasco crezca y madure su obra en un clima de aislamiento y soledad de espíritu, lo cual por fuerza tiene que influir desfavorablemente en el desarrollo de la literatura vasca” (1. atala.)

Euskal liburuen soka-dantzarako, hala ere, ez zuten liburu guztiak gonbita bera jasotzen. Hizkuntza-eredu jakin baten hautapena zegoen azpian, hizkuntza berri, kultura bilakatu beharreko momentuan. Horretarako, historiazko hurrenkerak baino garrantzi handiagoa zuen testu klasikoaren hizkuntza berrezagutzeak, besteak beste, purismoak zekartzan ezinak gailentzeko⁵.

Iritzi hori behin eta berriz idatzia zegoen aurreko hamarkadan. Adibide bat edo beste aipatzearen, gogoratzeak da nola Arestiek eskuz euskal klasikoak kopiatzen zituen. Mitxelenak, 1951n "Larre hizkuntza dena kale-hizkuntza" bihurtzeko ahaleginean klasikoak irakurtzera gonbidatzen zuen⁶ eta berdin Txillardegik 1956an EGAN aldizkarian.⁷ Arestian aipatutako pentsalariek horrelakorik behin eta birritan aldarrikatzen bazuten ere, esan daiteke, horren konstatazioa, ideia horren zabaltzea eta hein batean gauzatzea, Villasanteren liburu honek eragin zuela. Ideia hau harrez geroko hamarkadetan eragile bilakatu da. Inolaz ere purismotik ihes egin eta aldi berean tradizio kultural bati atxikitzeko ezinbesteko bidea zen. Villasantek berak ideia errepikatu zuen beranduago, Axularren Gero-ren edizio kritikoan.

*"Guri mesede ederra egiten digutelakoan ari gara geure idazle zaharrak berpiztu nahiz. Ez noski haiei itsu-itsuan eta materialki lo-tuak gelditzeko"*⁸

Helduen alfabetatzean buru-belarri ibili zen Rikardo Arregik⁹ edota euskal literatura berrian, 70 eta 80ko hamarkadan horrenbesteko garrantzia izan zuen Iban Sarasolak¹⁰ errepikatzeak adierazten du, inolaz ere, aukera haren eraginkortasuna.

1979. Intermezzo

4. Liburuak forratzen ziren garaiaz eta irakurketen historiaz.

Historia de la Literatura Vasca: 20 urte beranduago ikasi nuena.

Liburuak forratzen ziren garaikoa da liburu hau, niretzat. Esku-

artean hartu orduko oroitzapen arrapalada batek inarrausten nau. Liburuia zabaldu orduko gogoratzen dut ahizpari irakasletza ikasteko testu-liburutzat eman zion irakasleak egin zidan oparia, zeren eta, artean, ezin bainuen imajinatu euskaraz idatzitako liburu andanarekin horrelako liburu puskarik egin zitekeenik.

Liburuak erosteko diru-eskasiaren kariaz horren ondo forratu eta zaintzen genituen garai hartan bertan, hainbestearaino zitzaigun arrotz euskal kultura euskaldunoi, non, orri bakoitzak gure ezjakintasunaren neurria emendatzen zuen eta gure ikasteko egarrria bizten.

Hain halabeharrekoa bihurtzen zen autodidaktismoa non, Ordi-ziako azokarako bidean dagoen Larratxa liburudendan Fr. Luis Villanteren *Sintaxis de la oración compuesta, Palabras compuestas y derivadas, Morfología...* eta abar erosi, azpimarratu eta ikasi arte ez nintzen jabetu “Michelena apostilla” zioen oharretan agertzen zen abizen hura punta-puntako ikerle batena zela. Hain ginen ezjakinak non ez zitzaidan burutik pasa Fr. Luis Villasante hura ez zela Francisco Luis, Fray Luis baizik, hain zuzen ere, izen gabe liburuko 410. orrialdean agertzen zen fraide bera.

5. Nola aurreneko orrian erakusten zuen liburuak euskal literatura 1545ean hasia zela.

Ezaguna da, liburuetakako orrien artean ikasiak eta ikasi beharrik gabekoak bereizten dituztela ikasleek. Ikasi beharreko aurreneko orri hartan (49. orrian) gorritz azpimarratuta daude: 1545/empieza/la historia de la literatura vasca. Aurreneko ondoriora iritsarazten zuen datu polita, izan ere, ordurako jakintzat baikenuen *El cantar del Mio Cid* XI. mendekoa zela. Hortik ondoriozta zitekeen euskal literaturaren hasiera atzeratu antzean zetorrela. Behin eta birritan errepikatu den datu eta data honek bi modutako norabideak ezarri ditu euskal literaturaren historia eta kritika egin duten asko eta askoren artean: batzuk euskal literaturaren berankortasuna aipatu dute, beti gure inguruko literaturarekin konparatuz; beste batzuk, euskal literaturaren hasiera atzerantz eramaten saiatu dira, ahoz-

ko folkloreak berri emanez. Beste batzuk –eta guztiak bezala, kanpo-koekin konparatuz–, euskararen aurrenekotasuna indartu dute, euskal literaturaren historiaren aurretik euskararen historia jarritz.

Edonola, normaltzat ditugun nazioetako literaturekin konparatu behar honek errota baten monotoniarekin errepikatu duen berankortasuna geratu da euskal literaturaren ezaugarri nagusi eta nabarmengarriena bezala. Berankortasun horrek izen asko izan ditu -anakronismoa, akronia, primitibotasuna¹¹- eta Villasantek berak ere, kanpo-herrietan zabaltzeko egindako testuetan ematen ditu horren ezaugarriak¹².

Berankortasun horren “aurkikuntzak” euskal literaturaz mespre-tuz hitz egiteko aukera eman izan dio askori¹³, konstatazio hori, hala ere, emankorra izan da euskal literaturarentzat. Berankortasuna gain-ditzeko euskal literatura modernizatzeko eta garaikide egiteko ahale-ginak ere ez du etenik izan Gabriel Arestiz¹⁴ geroztik (baina baita Laua-xeta edo Lizardiren garaian ere). Literatura modernoa egin beharra al-darrikatu zuten aspertu gabe Juan San Martinek¹⁵, Arantxa Urretabiz-kaiak¹⁶, Ibon Sarasolak¹⁷.

Beraz kanpo-herriei begira egindako lanetan ez bezala, egileek, bere lanari heltzen ziotenean, beste modu batetara ikusten ziren gauzok sarritan. Honela zioen Mikel Lasak 1964an :

“molestia pittin bat sentitzen dut J. San Martinek bezala, hainbeste premitzen nauten gaur kotasun orretara (...) gaurkotasun hori ez dela lortzen ideiak eta kezkek soilik erabiliak, bai-zikari idaztankerak, estiloak ere gaurkoa izan behar duela”¹⁸

6. Lehen nioen bezala, ikasleek ikasi beharrekoa bakarrik irakur-tzen dute, eta aldeztu aurretik beste batek laburtua edo azpimarra-tua badu hobe. Forratutako nire liburuan harridura ikur handi bat dut lehen aipatutako orrialdearen bestaldean. Hau da irakurri eta azpimarratu nuena:

“El siglo XVI fue, como es sabido, siglo de profundas convulsiones y desgarros en nues-tro mundo europeo-cristiano. El siglo que conoció las feroces luchas de religión que aso-

*laron particularmente a Francia. Estos movimientos no dejaron de tener su repercusión en el País Vasco, sobre todo en la parte francesa de éste; tanto más cuanto que la cuna del protestantismo francés estuvo situada en los Estados que los destronados reyes de Navarra poseían en el Bearn y Baja Navarra, con la ciudad de Pau por capital. En 1512 Fernando el Católico se había apoderado de Navarra, no sin la activa colaboración de los vascos de las Vascongadas, e invocando una Bula de Julio II, en que se excomulgaba a los reyes de este Reino y se ponían sus Estados a merced del primero que los ocupara. El resentimiento creado con este motivo arrastró a la reina Juana a renegar del catolicismo y a abrazar la reforma calvinista, que ella intentó por todos los medios implantar en los dominios que le estaban sujetos. Desde este momento (y supuesta la mentalidad de entonces) el peligro de la herejía fue ya, no una excusa, sino una verdadera razón para que los reyes de España se negaran a devolver el reino de Navarra a sus antiguos poseedores. Pero antes de estos hechos se sabe que en la corte de los Reyes de Navarra, exiliados en Pau, soplaban vientos renacentistas y humanistas, que sin duda influyeron favorablemente en el despertar del movimiento literario vasco. Y efectivamente sabemos que, además de Dechepare, hubo otros dos poetas vascos en la misma época: Logras y Echeagaray. Desgraciadamente no se publicaron las obras de estos últimos, y hoy se dan por perdidas”.*¹⁰

Protestanteak ipar-aldean egon eta gainera Nafarroako erreginak lagunduak izan baziren, non geratzen zen euskaldun-fededun binomioa? Aurreneko esaldi horrek asaldatu ninduela gogoratu dut. Hori bezalako beste zenbat uste geratuko ote ziren ustel liburu harekin? Bigarrenik, zer zen Nafarroako erresuma, norainokoa, noizkoa? Ez al zen bada Nafarroa Aragoiko koroaren baitan egona, testu-liburuetan ikasi genuenagatik? Zer ez zuen esaten historia ofizialak?

Nire 18 urte haiekin, hala ere, ziur naiz aztoratu nintzela, Euskal Herriaren zatiketari izena ematerakoan, guretzat nahi ez genuen lexikoa ez erabiltzegatik, han eta hemen errepikatzen zituen “ultra-puertos” edo lado español/lado francés esateagatik. Noski ez nintzen ni inor hari historiazko ikasgairik planteatzeko, baina lexiko “ezpolitiko” (???) hark zartatu egiten zigun orduantxe ikasten ari ginen hizketa-mota. Era berean, erdaraz idatzita egote hark ere kalte egiten zigun euskal literaturaren historia ezagutarazi ziguna estimatzeko.

Bukatzeko, ondo gogoratzen dut Villasanteren kutsu katoliko-paternalistak arras aztoratu ninduela, Nafarroako Juana erreginaz egin-dako aipamenarekin bezala, beste hainbat eta hainbat testuetan.

Baina, guztiarekin, erdaraz bertsio ofiziala hausteko bertsio ofizialaren hizkera erabiltzen zuen liburu hark jakiteko harra eragin zidan. Eta jarraitu nuen irakurtzen eta azpimarratzen, azpimarratzen eta ikasten, harik eta, atalka-atalka zenbakituta zetorren historia hura, euskal liburuaren historia mendeka eta lurraldeka bereizten zituen historia haren planak nire literaturzaletasuna euskaldundu zuen arte. Ziurrenera, nire ezjakintasuna, ez euskal literaturari buruz bakarrik, baizik eta baita euskal historiari buruz ere, handiegia zen, zeren halako lana hartu zuen gizonari inolako kritikak egitea zaila baitzen. Eta liburu haren ostean, hiztegiarekin batera irakurri nuen Txillardegiren *Elsa Schelen* etorri zen, eta haren ostean hiztegiarekin ere ulertzen ez nuen Lizardi, eta gero beste guztiak, gehienak –egia esango badut– apenas izen bat zirena Villasanteren liburuan.

Izan ere, Villasanteren liburuan XX. mendeaz, liburudendetan eros zitekeen literaturarekin zerikusi txikia zeukan. Ez zen orain 40 urte, Joan Fusterrek egindako Kataluniako literatura modernoaren historiaren pareko. Horregatik edo, euskal literaturaren historia ikas zitekeen, baina liburudenda eta liburutegi arruntetan aurkitzea ia ezinezkoa. Horregatik, agian, euskal literaturaz egon izan da horrenbeste aurriritzi, horregatik, agian, euskal literaturaren historia egin duten gehienek eman diote horrenbesteko garrantzia “euskal literaturaren ezaugarriak” izeneko atalari.

2001.

7. *Historia de la Literatura Vasca*-ren bigarren argitalpenerako, euskal literaturak beste norabide bat hartua zuen. Euskal kultura eta nortasuna suspertzen eta indartzen ari ziren. Luis Villasantek horregatik egin zion bigarren argitalpenari hain hitzaurre luzea. Hantxe aipatzen du 1961etik 1979ra bitarte euskal kulturari bizi izan den bilakera: nola literatur kritika liburuak azaltzen hasiak ziren, nola ekin zitzaion zenbait liburu klasikoren argitalpenari, nola sortuak ziren ar-

gitaletxe berri asko eta kantagintza indartu... Literatura mailan “iraultza” sakonaren lekuko aztia izan zen Villasante.

Sakona ezezik, zuztarretatik sortutakoa izan baitzen iraultza, euskara bera eraldatzaile bilakaturik. Purismoa gañdituz, ikastolen mugimenduaren bidez haur eta gazteak euskaldunduz... euskal literaturak modernizatzearen aldeko apustua egin zuen. Eta bazekien hori ondo Villasantek. Hala ere, Villasanteren lanean, Espainiako gerraren osteko literaturarekin ez zen gehiegi menturatu. Horregatik, Villasantek begi-bistan zituen errealitateen berri emateko, bigarren argitalpenerako sortutako atal berriak asterikoz markatu zituen. Horregatik gorde zituen Historia de la literatura vasca haren “Sarrera”n, “Euskal literaturaren ezaugarriak” izeneko azpi-atalean emandako argibideak.

Horietako bat –Mitxelena eta Villasantek azpimarratzen zutenahau da: “Euskal literatura ez omen zela izan sekula Euskal Herri osoaren adierazpena”, euskalkien zatiketa-egoera zela bide.

Villasantek, Mitxelenarekin batera, aipatzen zuen bigarren ezaugarri garrantzirikoa euskal liburuaren eta euskal literaturaren historia bereiztezina zen, geroko beste zenbait literatur-historiagilek ere, Luis M^a Mujikak kasurako, egin duten bezala. Oso garbi mintzo zen honetaz Villasante :

“Al decir que escribimos la historia de la literatura vasca es preciso advertir ante todo que no entendemos esta palabra ‘literatura’ en su sentido restringido de ‘bella literatura’, de producciones desinteresadas con vistas a expresar la belleza literaria o estética (aunque no se excluyen en su sentido más noble). Nosotros queremos tomar el vocablo en su sentido amplio de todo libro o publicación escrito en lengua vasca (...). En suma, nuestro campo propio, único, es la literatura culta, libresca, sea prosa, verso o teatro. Escrita con fines estéticos, desinteresados, o aun con fines preferentemente utilitarios o prácticos”. (20. or.)

8. 2002ko abenduko liburu-azokaren atarian egindako irakurketa.

2002ko abenduaren hasieran Durangorako Azokan argitaratuko diren liburuekin osa daitekeen katalogoa Villasanteren historiaren adinakoa bada. Irakurleak ez du urtebetean denak irakurtzeko betarik. Euskal literaturak beste erritmo bat du. Bizimoduak ere bai, eta dagoeneko, galdua dut liburuak forratzeko ohitura hura.

Berriro Luis Villasanteren liburua irakurtzerakoan, 2002. urtearen amaieran, eskura dauzkat beste zenbait literatur-historia. Batzuk *Historia de la literatura vasca*-ren bigarren argitalpenerako jada idatziak eta gazteleratuak ere bazeudenak, beste batzuk ondorengokoak. Batzuek eta besteek aipatzen dituzte Luis Mitxelena eta Luis Villasanteren liburuak. Batzuek eta besteek aipatzen dute euskal literatur-kritikaren eta literatur historiaren bilakabidea. Batzuek eta besteek adierazten dute Villasanteren literatur-historiak kutsu entziklopedikoa zuela eta ikuspegi linguistiko handia.

Artikulu hau amaitzeko, baina, ez naiz eztabaida horretan murgilduko. Artikulu hau amaitzeko, baina, Villasantek eta haren haritik euskal literaturaren historiagile eta kritikalariek aipatutako ezauzgarri batzuen nondik-norakoaz arituko naiz.

8.1. Euskal literatura adin-heldutasunera iritsia da. Are gehiago, egungo euskal letren plazan euskal idazle adindu, heldu eta gazteek batera dilhardute. Horrelakorik ez da aurretik sekula gertatuko euskal literaturan.

Pozteko egoera honetan, normala izango dugu belaunaldi bakoitzeko gazteenek aita-amak ahaztu eta aitona-amonak erreskatatzeko joera izatea. Euskal belaunaldiek, gazte izan direnetan, hala ere, halako "umezurtz" itxura hartu izan dute aldi oro, hartaraino non, aita-ordeko eta ama-ordeko bila ibili garen moderno plantak egin eta aurrekoetatik bereizte alde. Garrantzi handikoa eta aberasgarria bada ere, euskal letraz haratago munduko literaturaz arduratzea, beldur naiz, zenbaitetan, euskal idazleek euskal literatura gutxi eza gutzen ez ote duten, alegia, ez ote diren oso irakurle onak euskaraz.

8.2. Euskal literaturaz hitz egiten dugunean ez dugu jada euskal liburuaz hitz egiten. Badirudi, beraz, literatur-diskurtsuaren autonomiaren adinera iritsiak garena. Horretaz ere kezkatzen zen Villasante, eta baita beste zenbait literatur-kritikalari ere.

Hala ere, euskal literaturari besteei baino gehiagotan egozten zaio

alderdi hau, ahaztuz, literatur-diskurtsuaren autonomia XIX. mendeko erromantizismoaren alaba dela.

Zein naziotako literatur-historiak pasatuko lituzke bere lan guztiak galbahe horretatik? Gogoan dut, Juan Luis Alborg-ek Villasanteren garai modutsuan Españaiko literaturaren ezaugarriak adierazterakotan “Arte para la vida; pragmatismo” zion kapitulua idatzi zuela.²⁰

Euskal literaturak erlijioarekin izan duen lotura bezain betea izan dute beste literatur nazionalek ere beste botere batzuekin. Agian euskal literaturari, hasieran, beste literaturek politikarekin izan duten harrereana falta izan zaio. Horregatik ez dugu literatura epikorik, eta, aldi berean, horregatik gorde da umorezko antzerkigintza herrikoia. Baina “autonomia-diskurtsu” horretatik begiratuta, zer geratuko litzateke, esate baterako, gorteko amodio-literatura gizonkoitari autonomia eskatuz gero?

Gai hau, beraz, bere tokian kokatu behar da. Euskal literaturaren kasuan ez da ahaztu behar, gainera, euskararen batasuna itxi antzean baldin badago, ez dela horrelakorik euskararen normalkuntzan, eta irizten diot, agian, euskal literatur-idazleak aditasun gehiago jarri beharko lukeela euskaraz literatura ez den beste zenbait alorretan idazten denaz, beti dena hutsetik sortzen aritu gabe.

8.3. Aurreneko ezaugarri hori oso lotua dago, euskal literaturaren historiagileek etengabe errepikatu duten euskal literaturaren atzerapen eta zaharkin-kutsuarekin.

Arestian aipatu dudan bezala, euskal literaturak Gabriel Arestiz geroztik modernizatzeko eta berritzeko izugarritzko ahalegina egin du²¹. Larre-hizkuntza oraindik kale-hizkuntza bihurtu ez bada ere, esan daiteke, euskal literatura kale-literatura dela, kalekumea, erabat.

Baina zein kaletara ematen du euskal literaturaren leihoak? Oraindik ere, neurri handi batean, baderitzot Villasantek zioena betetzen dela, eta ez dela euskal literatura Euskal Herriaz ari, herri “moderno” eta “normal”ago bati buruz baizik. Ez dut uste honek zerikusia due-

nik Villasantek aipatutako “dialektoen” auziarekin, baizik eta “gutxitu konplexu” kaxkar batekin .

Euskal literaturak, moderno izateko, askotan, Euskal Herritik ihes egiteko joera hartu du. Ez naiz konpromezu-literatura deitzen den horretaz ari. Ez dezagun ohitura-eleberriekin nahastu. Literaturaren erreferentzigiiaz ari naiz, eta gai hau ere “euskal idazleen” status idiliko batekin lotzen dela iruditzen zait, beste behin, aldizkari honetan bertan adierazi nuen bezala²². Azken berrogei urteotan beste herrialdeekin erkatu beharrak akuilatu gaitu, eta ziztada horrek suspertu gaitu zenbaitetan, baina beste zenbaitetan beldur naiz ez ote gaituen beti mindurik sentiarazi. Esango nuke, ordea, azken hamarkadetakoek literatura modernotzat duten guztia, askotan, euskal letretatik kanpo ikusi dutela, eta euskal letrak baino irakurriagoak dituztela.

9.- XX. mendeko euskal literaturaren historiaren bila.

Eta amaitzeko, adierazi nahi nuke, plazer handi bat izan dela niretzat berriro liburu honekin gaurko literaturara hurbiltzea. Baina berrogei urteren ostean, euskal literaturak XX. mendeko euskal literaturaren historia behar du. Sekula baino erraztasun handiagoa izan dezakegu, poesian bederen, Julen Urkizarena bezalako bibliografien ostean, euskal aldizkariak sarean dauzkagunean, Koldo Izagirrek XX. mendeko kaierak atonduak utzi dituenean, Jon Kortazarrek urtero-urtero irteten diren poesia-lanen jarraipena egin duenean, Ana Toledok euskal eleberrigintzaren azterketaren urratsak aztertu dituenean, M^a Jose Olaziregik XX. mendeko nobelagintza aztertuta daukanean etab. Berrogei urte beranduago, Joan Fusterrek Katalunian egin zuen *Literatura catalana contemporánea* hartan zioen bezala, beldurrik gabe, esan ahal izango genuke “*teniem una literatura*”. Beldurrik gabe gogoan hartu beharko genuke, irakurtzea berrirakurtzea dela, eta literaturaren historia sorkuntzan eta irakurketan oinarritzen dela.

OHARRAK

1. VINSON, J. 1891. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: Maisson-neuve.
2. Euskal Esnalea. 1917.17
3. *Historia de la literatura vasca*. 1960. Madrid: Minotauro.
4. Horrek ez du esan nahi euskal literatura eta euskararen egoeraren korapiloak askatzen saiatzen ez zenik, eta behar zenetan, eztabaidetan sartzen ez zenik. Hala egin zuen, kasurako, liburuan, Miguel de Unamunok euskarari buruz eta euskal literaturari buruz zituen iritziak arbuaiatuz, behar bezain luze, 386-391. zenbakia daramaten ataletan.
5. Villasantek craginkor jotzen zituen euskal klasikoei eskainitako espazioak eta argibideak (ikus 326-328 atala) ez dute parekorik puristen literaturari eskainitako espazio-ekasiarekin. Lizardiren estiloaren inguruan 382.atala) saiatzen da purismotik bereizten, eta berriz Manuel Arriandiaga edo Jose Zabala-Aranaren hizkuntza hautaketei buruz dioenak (396-398 atala) euskarazko liburuen artean egindako hizkuntza-hautapen garbia adierazten dute.
6. "Euskal literaturaren etorkizuna" Egan, 1951 (3) ikus baita Mitxelenaren idazlan hautatuak. Bilbo: Etor-Gero, 1972,34-35. or.
7. ALVAREZ ENPARANTZA, J.K.. 1956. *Karta idigia*. Euskera. 247. or.
8. VILLASANTE, Luis. 1976. "Sarrera", in Axular. Gero. Oñati: Jakin-Arantzazu. XVI. or.
9. "Urtain: Euskal herriaren opioa". Zeruko Argia, 1969-III-2.
10. Horregatik, argi ikusi da azken urte honetan, euskera serioki kultur hizkuntza bilakatu nahi denean, tradizio zaharrera itzultzeko beharra. Hildo honetan gaurko literatur-hizkuntza bereganatuz doa zaharrak zituen alde positiboak ortografian, deklinabidean eta batez ere hiztegi mailan (...) Baina batasunaren eta kultur-hizkuntzaren ordu honetan literatura zaharrak gauza asko irakats diezakegu, ez soilik hitzei dagokienean. "Pablo Nerudaren poema baten itzulpen polemikoa", in Egan, 1973 (1-6). 3-4.
11. JUARISTI, Jon. *Literatura vasca*. Madrid: Taurus. 37.or. SARASOLA, Ibon. 1976 *Historia social de la literatura vasca*. Madrid: Akal. 37.or. MUJICA, Luis M^a. 1979. *Historia de la literatura euskerika*. Donostia: L. Haranburu. 8. or.
12. Guillermo Diaz Plaja (ed). 1972. *Literatura vasca*. Madrid. 20. or.
13. Kasu bat aipatzeko bakarrik Jesus Antonio Ciden "Nota del traductor" in SARASOLA, Ibon. 1976. *Historia social de la literatura vasca*. Madrid: Akal. 8. or.
14. "Nola erein teatroaren gaurkotasuna euskaldunen artean". Euskera. 1962. 285-287.

15. "Bearrezko gaurkotasuna". Zeruko Argia, 1964-4-19, 4. or.
16. URRETABIZKAIA, A. Eta SARASOLA, I. "Psotfaci", 56. or.
17. "Euskal literatura eta abar". Zeruko Argia, 1966-6-5, 7. or.
18. LASA, Mikel. 1964. "Liburuak". EGAN. 1964, 161-163.
19. Azpimarratuak artikulugilcarenak dira.
20. *Historia de la literatura española*. 1980. Madrid: Gredos. 2. arg. 17-18. or.
21. URKIZU, P. 1994. *Influencia de las vanguardias europeas en la literatura vasca. Revisita de Lengua y Literatura Catalana, Gallega y vasca*. UNED. Madrid. 189-213. or.
22. "Itzulpenaren norabide eta noragabeak". Hegats. 1997. 19-20. 69-74.

Txosten monografikoa: Aita Villasante



**Jose Luis Zurutuza
Jose Antonio Gandarias**

15. "Bearrezko gaurkotasuna". Zeruko Argia, 1964-4-19, 4. or.
16. URRETABIZKAIA, A. Eta SARASOLA, I. "Psotfaci", 56. or.
17. "Euskal literatura eta abar". Zeruko Argia, 1966-6-5, 7. or.
18. LASA, Mikel. 1964. "Liburuak". EGAN. 1964, 161-163.
19. Azpimarratuak artikulugilearenak dira.
20. *Historia de la literatura española*. 1980. Madrid: Gredos. 2. arg. 17-18. or.
21. URKIZU, P. 1994. *Influencia de las vanguardias europeas en la literatura vasca. Revisita de Lengua y Literatura Catalana, Gallega y vasca*. UNED. Madrid. 189-213. or.
22. "Itzulpenaren norabide eta noragabeak". Hegats. 1997. 19-20. 69-74.

Txosten monografikoa: Aita Villasante



**Jose Luis Zuruza
Jose Antonio Gandarias**

Sarrera

Frantziskotarrak Arantzazun daudela V. mendeurrena ospatzen den honetan, bidezkoa zen argitalpen honetarako aita Luis Villasanteri buruz zerbaite idaztea. Mendeurreneko erakusketa ederrean ere han dago bera, Gandiaga gure olerkariarekin bikote eredugarria egiten duela.

Eta zer egokiagorik, izendatu zaidan gaia baino: "Aita Villasante eta Arantzazu". Izan ere, berak Arantzazun, Andre Mariaren ondoran eman zuen bizitarik gehiena eta bertako fraiderik ezagunenetakoa zen Euskal Herri osoan.

Saiakera moduan idatzi behar omen dut. Hau da: aparatu kritikorik gabe, gaia zer agorturik ez daukadala, era irakurgarri samarrean... Lantxoia ondo egosi gabe ateratzen bada ere, pentsatzen dut egunen batean norbaitek idatzi beharko duela aita Villasanteren biografia, eta bitartean ondo egon liteke geure aldetik zerbaite datu metatzen joatea.

Saiakera izateak -nire aldetik behintzat- ez dio batere seriotasunik kendu nahi idazlan hori. Izan ere, dohainen bat edukitzekotan, haxe nahi luke norberak: gauzak diren bezala, edo hala direla uste den bezala kontatzea. Beti ere aspaldiko arau hura kontuan izanez: *Amicus Plato, magis amica veritas*.

Teologia ikasterakoan, geure maisu izan genuen aita Villasante. Handik urteetara, lagun eta adiskide bihurtu ginen biok, eta harreman estuetan jarraitu genuen hogeita hamar urtez. Barkatuko al dit bere "ondran" kontatuko ditudanak, eta ez al dit handik goitik gaizki hartuko "orin" bat edo beste agertzea.

Aita Villasante eta Arantzazu: norik esan gai honen mugak non

dauden? Arazoa erabat argitu gabe hasi naiz ibilian. Garbi daukat eskararen aldeko lan gehienak kanpora gelditzen direla. Berdin gertatzen da Sorazuri buruzko idazlanei dagokienez ere, zalantza gutxiagorekin hemen. Aita Luisen beste hainbat ekintza eta emaitza idatzik ere ez dute zerikusi zuzenik Arantzazurekin. Badira, ordea, muga argirik gabeko gai eta gertaerak. Aukerak egiten asmatuko ote dudan? Ez jakin. Noan behintzat ibilian eta ikusiko da.

Hona hemen esku artean erabili ditudan informazio iturriak: Arana Martijak idatzitako *Luis Villasanteren bio-bibliografia* (Iker-6), Jose Antonio Gandariasek amaitu berri duen *Luis ene lagun mina* (2001), eta Joseba Etxeberriak Arantzazun liburutegi eta artxibotik esku-eskura jarri dizkidan hainbat informazio bide -Villasanteren eskuizkribuak ere bai, horien artean-. Gainera, bera ondo ezagutu zuteneengana ere jo dut sarritan, bere arreba Maria Dolores lekaiame brigadatarra ahaztu gabe. Eta azkenik, hor dago geroxeago aipatu dudana iturria: haren adiskide izandakoaren urte askotako ezagutza hurbila.

Ohartxo bat oraindik: guk geure artean ohitura dugun bezala, Aita Luisi beti "Villasante" deitzen genion, eta hala aterako zait orain ere sarritan. Aldizka erabili beharko dut izendapen formalagoren bat edo beste baina, barkagarri izango al zait adiskidetatasunezko "lizentzia" hori etxetiar giroko saiakera honetan.

1. Arantzazurako bideak egiten

Nondik eta nola sortu zitzaion Luis Villasanteri Arantzazura joateko "bokazioa"? Berak kontatua dauka, Arantzazun 1995eko abuztuaren 8an apaizgintzako urrezko ezteietan egin zuen hitzaldian. Hil ondoan agertutako koaderno batean dator hitzaldi hori. Hemen, hala beharrez, zertxobait ordenatuta emango dut, argibide batzuk ezarriz.

Bi familiak lagundu zioten batez ere Jose Villasante, Luisen aitari, bere semearen geroa bideratzen: "*Omaetxebarria familiarekin oso adiskide zen nire aita. Gabonak hurbil zirenean, haien dendan egiten zituen*

erosketa bereziak: jaietarako jaki edo edari batzuk, alegia, eta paketea etxera ekartzeko, ni bidaltzen ninduen”.

Denda horretako jabea Leandro Omaetxebarria zen. Aita Luis ondo gogoratzen zen gero ere nola gizonak ez baina bere andreak gozokiren bat ematen zion hara joaten zenetan. Senar-emazte hauek bi seme zeuzkaten frantziskotar, Aita Ignazio eta Aita Karlos. Bidezkoa zen, beraz, Jose Villasanterekin egindako hizketaldietan Arantzazu izena behin baino gehiagotan aipatzea, han ikastetxe on bat zegoe-la, Luis bere semearentzat ere aukerakoa izan litekeela halako zer-bait, eta abar.

Villasanteren hitzekin jarraituz, *“Gure etxetik oso hurbil zegoen, baita ere, Gernikako fielatoa Errenteriako zubiaren ondoan (“Luisen portaletik berrogeita hamar bat metrora, ibaiko zubiaren beste aldera, Gernikako lehenengo etxean”, zehazten du Gandariasek); eta han bizi zen Satur, Gandarias baten alarguna, eta honek zeraman fielato hura. Hor ere sarritxo egoten zen gure aita Arantzazuko errebistak, eta batez ere Mixioetakoa, irakurtzen”.*

Satur izeneko alargun hori Saturnina Gorriño zen, Jose Antonio Gandarias beraren lagunaren ama. Eta “fielato” delako horretan, Satur-ek zerga moduko bat kobratzen zien gauzak saltzera zetozen baserritarrei, herriko merkatuan saltoki bat eduki ahal izateko. Frantziskotarra zuen honek ere koinatu bat, Aita Frantzisko Gandarias ajangiztarra, Arantzazun komentuko bikarioa zena eta bertako abesbatzaren zuzendaria. Jose Villasantek bazekien Saturnina, Aita Frantziskorekin bat hartuta, Jose Antonio bere semea Arantzazura bidaltzekotan edo zebilela. Etorkizuna ilun ikusten baitzuen emakumeak bere lau seme-alabentzat! Eta hortik etorri zitzaion aukera.

Gogoan izan behar da Jose Villasante Martínez, gure mutikoaren aita, alargun zegoe-la bera ere, bigarren emaztea, Luisa Kortabitarte Gerrikaetxebarria Murelagakoa 1926an erditze gaizto baten ondorioz hil zitzaiolarik. Hiru seme-alabarekin gelditu zen orduan gizona: Jose Gonzalo -lehen emaztearen semea-, gure Luis (6 urtekoa)

eta Maria Dolores (lau urtekoa). Etxeko lanetan Bizenta Kareaga, beraren emazte zenaren lehengusuak, laguntzen zien, ahalegin osoz amatzakoa eginez.

Giro horretan gertatu zen 1931n Aita Luisek kontatzen duen hurrengo hau: *“Nik pentsatzen dut, bada, bi etxe horietakoekin hitz eginez sortuko zitzaiola nire aitari ni Arantzazuko kolejiara bidaltzeko asmoa. Nik 11 urte nituen. Gu ume kaletarrak ginen, eskola-orduetatik kanpora kalean batetik bestera genbiltzanak, fundamentu gehiegi gabe. Sei urte nituenean ama galdua nuen. Egia da, bestalde, monagillo ere banintzela San Joango elizan. Eta kristau dotrinan ikasten genuena eta gure inguruan ikusten genuena elkarrekin alderatuz, halako kezka sortzen zitzaidala. Nire aitak, bestalde, pentsatuko zuen: ume hau umezurtz da amaren aldetik, ni ere urteetan aurrera noa (65 urte zituen ordurako eta osasunez ere makaltzen hasia zegoen). Bideren bat bilatu beharko zaito”*.

Garai horretan, Luis, herriz ajangiztarra izanik, Gernikako herri-eskoletara joan ezin eta azken bi urteetan Joan Ansotegi maisuaren eskola partikularrean zebilen. Aurretik agustindarren ikastetxean ere ikasia zen, eta txikitan serora karmeldarren haur-eskolan ere bai. Gehiagorako talentua zuen, ordea, berak.

“Eta egun batez bat-batean eta supituki nire aitak proposamen hau egingen dit: “Nahiko zenuke Arantzazuko kolejiara joan, han interno bezala urte batzuk egiteko? Era hortara asko ikasten da, etab. Proposamen hura guztiz ustegabekoa eta bat-batekoa izan zen niretzat. Garai hartan ozta-ozta nekien nik Arantzazu bazenik ere. Dena dela, “Bueno, bai” edo horrelako zerbait erantzun nion, ez berotasun gehiegirekin. Baina azken batean ikuspegi berri bat zabaltzen zidan proposamen honek. Behin baino gehiagotan pentsatu dut, baita ere, nire amaren borondatea zein zen bazeki-lako ez ote zuen guzti hori egin aitak, baina zinez hori ez dakit”.

Eta hala, Saturninarekin eta Aita Frantzisko Gandariasekin hitz eginda, Jose Villasante bere semetxoa Arantzazura bidaltzeko pres-tamenak egingen hasi zen. Arantzazuko ikastetxerako eskabidea egin zuten bi familiek eta egun batean han azaldu zen Gernikan Aita Ber-

nardo Madariaga baldatikarra, mutiko biei sarrerako azterketa egi-tera. Saturninaren etxean, azterketa-gaia beste zer batzuen artean as-
makizun ezagun hura izan zen: nola moldatu beharko lukeen aita
batek bera, bere semetxoa, bildots bat eta barazkiak -lau hauek- ibai
baten beste aldera eramateko, kontuan edukita bere txalupan birent-
zako lekua besterik ez zegoela. Mutiko argiak izan biak eta nahiko
erraz gainditu omen zuten azterketa. Horrela, Arantzazurako onar-
tuak izan ziren.

2. Arantzazuko apaiztegia edo ikastetxe serafikoan

*“Eta heldu zen eguna -dio Villasantek-, [1931ko] abuztuaren 18a. Egun horretan -edo bezperan- etorri zen ‘La Oñatiarra’ autobusa hiruga-
rren kursoko mutikoak Forura ekartzera. Eta abisatu ziguten bueltakoan
hortxe joan behar genuela. Forutik Bederatziurrenean kantatzera joaten
ziren Padre batzuk ere -Gabirondo etab.- hor joan ziren gurekin. Gernika-
tik, berriz, Gandarias eta ni, (eta haren osaba fraidea) eta nire aita, guri
bioi laguntzera. Oroitzen naiz egun hartan ohetik jaiki baino lehen negar
pixka bat egin nuela”.*

Maria Dolores bere arreba ondo oroitzen da bere zahartzaroan ere:
*“Luisek gure aitarekin lo egiten zuen. Eta hau oso nahigabetua jaiki zen,
kezkaturta Luisek gau hartan negar asko egin zuelako, eta artean ere ne-
garrez zegoelako. Orduan gure aitak: “Zer egingo dugu?” Ez zuen Luis
behartu nahi, berak nahi ez bazuen, baina bidaia prestatua zegoen. (Bi-
zenta) lehengusua joan zitzaion zer gertatzen zen jakitera. Ez dakit zer
esan zion, eta berak animatu zuen joatera, bidaia prestatuta zegoela eta,
ondo etorriko zitzaiola gauza asko ikusiko zituelako eta... Arantzazun gel-
ditu nahi ez bazuen, berriro aitarekin etorri ahal izango zela... Luis ani-
matu zen. Utzi zion negar egiteari eta Arantzazura joan zen”.*

Hara iritsi zirenean, aita Urkiola erretorearekin hitz egin zuten.
Eta gauerako Jose eta semea fraideen ostatura bildu ziren; Jose An-
tonio, berriz, osaba fraidearekin seminariora joan zen.

Hurrengo goizean, Arantzazu inguruak bisitatuz Luis oso pozik

omen zegoen han ikusten zuenarekin. Ordua etorri zenean, agurtu zuen aita eta ikastetxean barneratu zen, ikastetxeko bere lagun berriekin bat eginez. Handik aurrera hiru urte egingo zituen bertan: 1931tik 1934ra.

Apaiztegiko lehen egunak nahiko gogorak gertatzen ziren sarritan zenbaitentzat. Luisek ere izango zituen bere kezkak; begiz ondo jota omen zeukan behintzat Milikuena etxeko sarreran zegoen buzoia, badaezpada etxera eskutitzen bat bidali beharrik izaten bazuen edo. Hala ere, bere arrebaren esanetan, ez omen zuen sekula etxera itzultzeko nahirik izan, ikasketak bukatu ondoren baten batzuek horretarako tentatu bazuten ere.

Luis eta Jose Antonio Gandarias elkarrekin zebiltzan ikastetxe serafikoan, eta beren artean, "beti legez", euskaraz egiten jarraitzen zuten. "*Behin -kontakten du Jose Antoniok-, hurreratu jakun mutil altu bat, eta bat-batean bota egin euskun arpegira: "¿Qué euskera habláis vosotros?"... Gu biontzat kolpe ikaragarria! Non gara? Nora etorri gara?... Aurrerantzean agur gu bion arteko euskara! Gure artekoa erdara hutsean hasi genduan*". Orduko heziketa seminarioan gaztelaniaz bakarrik izaten zen, eta ez zen euskararik ikasten Foruko laugarren urtera arte. Gertaera hori gogoan zuela idatziko zuen geroago Aita Villasantek bere liburu batean: "*Allí padecemos el encuentro de los dialectos*".

Luis nahiko mutiko txintxoia eta esanekoa zen, dirudienez. Handik urteetara ere oroitzen zen behintzat ikastetxe hartan hartu zuen lehen "eskandaloaz" (bere hitzez esanda). Aita Amundarain jantokian inspektore zegoenak esan omen zion mutiko bati: "Koldobika, póngase de rodillas". Eta mutikoak: "¿Por qué?". "Porque ha estado charlando". Eta besteak: "No he estado". "Sí ha estado. Ahora mismo voy a la celda del Padre Rector..."

Ikastetxeko kaperan maiatzeko loreak egiterakoan, beste mutiko aukeratu batzuen artean Luis ere agertzen zen denen aurrean bere rolete zuriz eta sotana urdinez, aldareko Ama Birjinari poesiak esaten, gaztelaniaz noski. Arantzazuko hiru ikasturteetan bukaerako

portaera-notak osa onak atera zituen, batez ere azken bietan, eta urbanitate aldetik ere bai.

Oso buru onekoa zen Luis, adimen argikoa eta oroimen zehatze-koa. Gaineratu horri oso saiaturia zela ikasteko orduan eta hala iris-ten zituen ikaslaro gehienetan notarik gorenak, Arantzazun eta geroago Foruan ere bai. *"Horregaitik -dio Jose Antonio beraren lagunak-, inspektore nagusiak (latin eta erdara asignatura garrantzitsuena- tan irakasle ere zanez gero) lan bereziak emon eutsazan: esate baterako, "El Quijote", apunteak hartuz, irakurtzeko baimena. Eta geroago, Menendez Pidalen iruzkinez, "Mio Cid" eresi-liburua ere bai"*. Frai Roman Iturrioz inspektoretzan ibiltzen zen ikasaretoan, haserre itxuran nork zer ikasten zuen begira: *"A ver, qué está leyendo usted..."*, eta horrela. Iritsi Luisen pupitre ondora, hau buru-belarri Kixotea irakurtzen aldizka barrez, eta begiak altxatzen zituenean, Frai Romanen irribarrearekin egiten zuen topo... Honek he he! egin eta aurrera.

Garai hartan Arantzazuko ikastetxean irakasgai hauek ematen ziren: erlijioa, latina, gaztelania eta beraren literatura, frantsesa hirugarren urtean, geografia eta historia, matematikak eta zientzia naturalak, musika eta kaligrafia, eta azken bi ikasturteetan marrazketa. Euskara eta grekoa Foruan ikasten zituzten hurrengo bi urteetan.

Luisek, ahots egokirik ez eta, ez zuen Santutegiko koruan parte hartzen, horren ordez monagilotzan ibiltzen zen; baina hala ere nota politak zeuzkan musikan, eta kaligrafian bertan ere bai. Kiroletarako ez zuen ez joerarik, ez gaitasunik; pilotalekuan nahiago izaten zuen aita Ibarreta inspektorearen ondoan egon, oso begiko baitzuen honek izan ere. Mutiko azkarrenei pianoa edo mekanografia ikasteko aukera ematen zitzaien, eta Villasantek idazmakinari ekin zion, berarentzat ikasketa onuragarria noski, soldaduskakoan ere ondo egiaztatu ahal izango zuenez.

Mutiko zintzoa izateaz gain, Luis ez zen nonbait batere atzeratia. Bazekien behar zenean mugitzen. Behin aitak abisatu zion bisitatze-
ra etorriko zitzaiola. Badoa erretorearengana eta -inork egiten ez

zuen gauza- ea utziko zion Oñatira aitaren bila joaten, eta hark baita baimena eman ere. Jaitsi zen Oñatira oinez eta han lagundu zion aitari autobusean Arantzazura etortzen.

1934an, hirugarren ikasturtean 14 urte bete eta handik denbora gutxira bisitatu zuen aitak; bere azken bisita Arantzazun. Fraide-bokazioari buruz benetan jardun omen zuten aita-semeak, eta Luisek adierazi omen zion -hala dio beraren arrebak- erabaki sendoa hartuta zeukala bokazio horretan heriotzara arte irauteko. Oso gustura gelditu omen zen aita, horretarako semeak eman zizkion arrazoiekin.

Arantzazuko Amaren bederatziurrena amaitu zenean, irailaren 10ean Forurantz atera zen Luis Villasante bere ikasturtekideekin, hamabi denera. Horietako lau apaizgintzara helduko ziren, bik anaia laiko izatea aukeratuko zuten, eta beste seiak utzi egingo zuten fraidetzarako bidea.

3. Berrito Arantzazura etorri bitartekoak

Labur bada ere, ipini ditzadan hemen Luis Villasanteren nondik-norakoak, berriro Arantzazuko Santutegira itzuli arte.

– FORUAN: 1934-1936 bitartean Gernika ondoko herritxo horretan jardun zuen humanitateak ikasten. Luis bertara etorri aurretik, aitak aginduta zeukan batzuei eta besteei, ez egiteko gero hari kontrarik bokazio-kontuan: “Berak fraide izan nahi badu, izan dadila”. Gandarias beraren lagunak dioenez, Foruan “*Luis, ‘erderazale’ amorratutzat hartua, eta euskararen arbuiatzaile eretxia, baztertua izan zan*”. Bi ikasturteetan euskarako azken notak 8,5 eta 8,2 izan ziren.

– ZARAUTZEN: 1936ko uztailearen 27an, hamasei urte zituela, Jose Antonio Gandariasekin eta Jose bere aitak lagunduta, Zarautza jo zuen, fraidetzarako Nobiziadua egiteko asmotan. Gerraren istilubeldurrez, berriro etxerantz bidali zituzten. Orduan Luis gaztea Tomas Gomezaren gaileta-fabrikari sartu zen bulego-lanetarako. Bitarte horretan, Jose Gonzalo, beraren anaierdia, miliziano sozialisten artean zen, “Saltos del Gorbea” deituriko koartelelan.

1937ko apirilaren 26an, aita oso gaixo zegoela, ezin ihes egin eta Gernikako bonbardaketaren larriak bizi behar izan zituen hegazkinen azpi-azpian. Maiatzaren 19an, gaitzak (minbiziak edo) erabat jota zegoen aita azkenez agurtu eta Zarauzko Nobiziadura joan ahal izan zen azkenean, Jose Antoniorekin eta Pedro Anasagasti bermeotarrarekin batera.

Urte bereko maiatzaren 29an, abitu hartzea. Ekainaren 7an aita hil zitzaiolako berria jaso zuen, eta hiletara joaterik ez: "ez omen zegoen ohiturarik horretarako". 1938ko maiatzaren 31n, Luisek aldi baterako profesia egin zuen bere bi lagunekin.

– BURGOSEN soldadu: 1938ko irailaren 17rako Olite-Erriberrira filosofia ikastera joateko zirelarik, Luis soldaduskara deitua izan zen abuztuaren 31n frankotarren aldetik. Lehen egonaldia Burgosko Salas de los Infantes-en egin ondoren, Burgos hiriburuan bertan gelditu ahal izan zen, eta hantxe egin zuen ia urte beteko zerbitzua "San Martzial 22" erregimentuaren "Mayoria"ko (koarteleko zuzendaritzako) goi-bulegoetan, Komandantearen esanetara jarriarik. Garai batean nork esan une larri hartan mekanografia jakiteak salbatuko zuela frontera joatetik?

Soldaduskako denbora horretan, bere arreba aldi baterako profesara joan ahal izan zen Valladolida. Hirian oinez zihoazela, aita Modesto Sarasola lekeitiarrak komentu bat erakutsi zion, esanez: "*Hortxe bizi izan zen serora euskaldun bat, mistika handia: Aingeru Sorazu, zumaiarra*". Hitz horiek gogoan josita gelditu zitzaizkion Villasante gazteari.

1939ko apirilaren lehen gudu zibila amaiturik, abuztuan hartu zuen Luisek "lizentzia" bere fraide soldadu lagunekin batera, eta berehala Arantzazura jo zuten. Hemen bildu ziren irailaren 10ean Kantabriako frantziskotar Probintziatik soldadu ibilitako fraide guzti-guztiak, eta soldaduskako hautsak astintzeko, gogo-jardunak egin zituzten aita Julio Egiluz Kustodio probintzialaren gidaritzapean.

– ERRIBERRI-OLITEN: 1939ko irailaren 26an Nafarroako Erriberrri-Olitera aldatu zen bere zenbait lagunekin. Eta 1939-1942 bitarte-

an komentu honetan bizi izan zen beste hainbat fraide gazterekin, gehienbat filosofia-ikasketak egiten. Hemen bizi izan zuen anaia Luisek nahigabe handiz fraide ikasle gazteen arteko zatiketa, espainiazaleak batetik eta abertzaleak bestetik, eta bera bi talde horien artean nolabaiteko oreka aurkitu nahian zebilen. Hemen hasi zen gernikarra, Aita Benito Mendiaren eragincz, Altuberen *Erderismos* eta Azkueren *Morfología Vasca* ezagutzen, eta Karmelo Iturriarekin batera gipuzkera-bizkaierazko aditz-paradigma labur bat prestatzeari ekin zioten. Gerraren ondorioz euskal liburuen garbiketa negargarria jasan arren, Villasantek komentu honetako biblioteca zaharrearantz Axularren Gero-rekin egin zuen topo eta harriturik hura irakurtzeari eman zion.

4. Berriz ere Arantzazun

Erriberrri-Oliteko filosofia-ikasketak bukatuta, 1942ko abuztuaren 27an, anaia Luis Arantzazuko Santutegira itzuli zen anaia Jose Antonio eta beste zenbait ikaslagunekin Teologia ikastera. Handik hiru egunera, 30ean, Arantzazuko Bederatziurren nagusia hastera zihonan egun berean, Villasantek profesa nagusia egin zuen bederatzi ikaskiderekin batera, haien artean anaia Jose Antonio beraren herrikidea zelarik, eta bizitza guztirako frantziskotar bizimoldea besarkatu zuen.

Leku pribilegiatu honetan emango zituen hurrengo bi urteak, 1942-1943 bitartean Teologiako bi ikasturte eginez. 41 gaztek osatzen zuten orduan "korista" izenez ezagutuak ziren teologia-ikasleen taldea.

Anaia Luisek betiko fintasunez jarraitzen zuen bai bere portaeran eta bai Teologia ikasten. Hauek ziren orduko irakasgaiak: Teologia dogmatikoa (oinarrizkoa eta berezia), Teologia morala, Zuzenbide kanonikoa, Elizaren historia, Idazki Santua eta Patrologia. Honetan ez bestetan, maila goreneko notak atera zituen.

Hala ere, egia osoa esan behar bada, bere portaeraren puntuaketa jaitziera nabarmen samarra ageri da bigarren ikasturtearen azkenean.

Nondik eta nola? Ez jakin ziur. Agian zerbait suma daiteke gertaera honetatik: 1943ko irailaren hasieran Kantabriako Kapitulu probintziala egin zen Arantzazun, bertan kargu berriak izendatuz, eta hauen artean “koristen” maisu berriarena. Eginkizun honetarako Aita Jesus Larrinaga ekarri zuten La Aguilera komentutik. Hau, Arantzazun eman berri samar zituen gogojardunak zirela eta, famaz inguratua heldu zen 1943ko irailaren 19an. Benetan Aita Jesus gizon jainkozalea zen, izpiritu zientziaz ondo jantzia, baina odol bizikoa. Hortik sortu ziren, antza, zenbait tirabira ikasle gazte haietako batzuekin.

Anaia Luisek Arantzazuko “koristaduan” bizi izan zuen giroaz honela dio Jose Antonio Gandarias beraren lagun minak: *“Koristadu-barneko bizigiroa, Herriberrikoaren luzapena zala esango genduke: kanpoko gizartearen politika eraginez joa, han letxe; baina hori bai, erabidez eta zuhurtasunez baretuagoa... Euskaltzaletasuna, esate baterako, isolatua, banandua, bakotxaren ardurapean egoan. Erriberriko gar bizia, hemen hauspean egoan estaldua”*.

“Eugenio Agirretxe egoera honekin ez zan konforme: gure herriarenganako konpromisoak eta gure geroko apostolutzak, gugandik zerbait gehiago eskatzen baiteben. Eta, arlo honi begira, beraz, suspertu nahi ginduzan gure garapen-bideetan. Eta halantxe horretarako, lagun bi honeek (Agirretxek eta Joxe Mari Elustondok, alegia) prestatu eta proposatu egin euskuen taldetxo bat eratzea, umila, isila, baina alkarren asmoetarako lagungarri eta pizgarria”. Eta hala, “Izarño” izeneko aldizkaritxo moduko bat sortu zuten, beronen antolaketa, euskaraz ez zekien anaia Pedro Mari Beltran de Heredia-ren, “deuterokanoniko” deituaren, esku egoten zelarik.

Berehala inguratu omen zitzairen Salvatore Mitxelena eta, haren proposamenari jarraituz, “Bai” izenaz berbataiatu zuten aldizkari-txoa: Lizardik bere asmotan zerabilen aldizkariarentzat nahi izan omen zuen titulu hori. Horrela, euskaltzaleen taldea ugarituz joan zen Arantzazuko fraide gazteen artean. *“Taldeen alkarren lehian lan egitea bultzada handia gertatu jakun gure arlo guztietan... alkar suspertuz*

eta bizkortuz, alkarrekin hizketalditan, batzar, pasealdi, euskal kanta-saioiditan... Horrek ekarri zuen gure historiari, herritartasunari, kulturari, folkloreari, erromantzeari guk ardura eta arreta berezia prestatzea”.

Horren guztiaren lekuko, 1943ko urtarrilaren 23an egindako “Velada” aipatzen du Gandariasek: erromantzea eta historia erabiliz, teologo gazteek “Arantzazu”ri buruz prestatu eta fraide-komunitatearen aurrean aurkeztu zuten jaialdi eder hura.

Villasantek 1967an kontatuko zuenez (Jakin sorta 2), “*Aita Agirretzek eta nik ere hitz egin genuen ‘Velada’ hartan, baina Salvatore Mitxelena izandu zen denaren asmatzaile eta aintzindari. Gogoan dut baita ere nola joan ginan hirurok Arantzazuko Albitxuri baserrira. Josefa Ollakindea amona xahar batek, Arantzazuri buruzko kanta zaharrak zekizkiala, eta hoiek jasotzera”.*

“*Aurrerantzean –dio Gandariasek–, alkar arteko lana egin zan, egin ere, artxiboan, kronika-liburuxkatan, bibliotekan, koaderno zahar, aspaldiko aldizkari eta liburuak irakurriz, taldekide guztiok jardunkide ginela”.* Giro horren fruitu umotua izango zen geroago Salvatore Mitxelenaren Arantzazu euskal-sinismenaren poema (1949).

Zalantzarik gabe, Villasanteri Erriberrin piztutako euskararen zaletasuna, Arantzazuko bi urte hauetan gero eta gehiago joan zitzaion indartzen. Zaletasun horretan zerikusi handia izan zutenetako bat, bereziena, Salvatore Mitxelena izan zen: “*Asko zor diogu denek –aitortzen du aita Luisek aipatu lekuan–, eta beharbada ni neu nautzaio denetan zordunena. Nork esan, aldamenean duzun lagun baten eraginak zer dezakean? Eta eragin horren luze-laburra nola neurtu? Ixil-ixilik, han, kontzientziapeko tolesetan egiten du bere azpi-lana, zerorrek ere ez dakizula...”.*

Gandariasen esanetan, Mitxelenak Teologiako garai honetan bakarrik izan zituen Luisekin benetako harremanak; honek askoz geroago ere bizi-bizi zeuzkan gogoan. Euskal literaturaren historian, Villasantek aitortzen du Salvatoreren lagunek, eta berak haien artean, halako harridura batez begiratzen ziotela zarauztarrari. Mitxele-

naren izaeraz nahiko luze ari zaigu Historia horretan, eta bertan ematen digun haren zuri-beltzeko irudiak argi-une gehiago dauzka itzalezkoak baino, garrantzi handiagokoak behintzat.

Zer-nolako iritzia zuen Salvatorek berak gure gernikarrari buruz? Gandariasen idazkian irakur daitekeenez, Mitxelenak 1944an Luisi beronen jaiotegunerako egindako gutunean honela esaten dio: “Ene Luis bihotzekoa, Jaungoikoak nire alboan laguntzaile eta nire aurrean eredu jarritako Luis adiskide handietsia... Utzi zadazu, eskerron agiri eman deizudan. Utzi, hemen maitasun beroz aitor dezadan: beti, laguntzaile handi izan zaitudala, eta asmo zailtan gogaikide sutsu, eta nire barruko aunaldietan indargarri... Aunitz esker zuri”.

Anaia Luis erizain izendatu zuten garai honetan eta berak zeukan botikinaren ardura. Behin Salvatore futboletik behatzean min hartuta etorri zitzaion odola zeriola. Villasantek, sendaketa egiten zion bitartean, hala esaten omen zuen: “Zaindu egin behar dogu Salvatore, euskararen eta Euskal Herriaren alde gauza eder asko burutzekoa danez gero”. Ezberdinak, baina oso adiskideak ziren biak.

Urte hauetako oroitzapenak biltzean, honela marrazten digu Jose Antonio beraren “lagun minak” orduko anaia Luisen irudia: “Luis apartekoa zan. Ezer egingo ez baleu legez, olioaren isurtze leun, onuratsu, osasungarri bailitzan, bizitzako momentu garratzetan han egongo zan lagunaren ondoan; inongo arrandia barik, ezertarako handiuste barik, berba egokia, ernagarria, baretsua lagunari esan eta horrela, barru-barruraino bigunkiro sartzen zalarik, sartu ere, bizinahia, on-iritzia, eta pertsonatasun balioa, bestearengan sortaraziaz”.

Lehentxeago aipatu dudanez, anaia Luis Teologiako hirugarren ikasturtea hastear zegoela, kanporako bidea hartzeko aukera egokitu zitzaion, nahiz eta ez zen beraren asmoetan seguruenik halakorik sartzen. Zer gertatu zen horretarako? Pedro Anasagasti bermeotarra, hirugarren ikasturtea amaitu eta ordurako beste ikastetxeren bat ezagutzeko gogo biziz zebilen, nolabait esateko. Aita Frantzisko Ajuria irakaslearen bidez, eskabidea egin zion Aita Bernardo Madariagari, orduan

Ikasketa-prefektu zenari, bere motiboak azalduz eta honek ondo iriztzi zion, eta bai aldeko aholkua eman ere aita Julio Egiluz Probintzialari; gainera anaia Pedoren lagun bezala joateko, anaia Luis Villasante izan zen aukeratua. Aita Egiluzek baimena eman zuen hala egin zedin.

Ikastaro berria hastera zihoala, Pedro eta Luis bi koristak Santander aldera atera ziren 1944ko irailaren 25ean, Comillasko Unibertsitatean apaiz ikasketak bukatuz Teologian lizentziatura egitera.

5. Comillas eta Arantzazu bitartean

Luis Villasantek 1944an hasita Teologiako hirugarren ikasturtea bukatu zuen Comillasen. 1945ko oporraldiaren hasieran Arantzazura itzuli zenerako, hemengo bere ikasturte-lagunak hartu berri zeuzkaten diakonogoa (uztailak 1) eta apaizgoa (uztailak 29).

Aita Maisuak ordenazio hauen berri eman arren, Villasantek ez zuen etortzerik izan ikasturteko azken azterketak egiten ari zelako. Apaizgintzako urrezko ezteietan (1995, abuztuak 10) koruan bere hitzaldia irakurtzean kontatu zigun ondoren gertatua:

Ikasturtea bukatu eta etsamina egin ondoren, bada, etorri nintzen Arantzazura. Aita Larrinaga haserre edo haserre antzean zegoen: "Eta orain zer? Zoaz obispo bila". "Behar diren dokumentuak ematen badizkidazu, egingo ditut ahaleginak", esan nion. Eta, bai, eman zizkidan. Nik banekien Burgosko Artzapezpikua zegoela egun haietan Oña-n jesuita gazteak ordenatzen, eta hara jo nuen.

Artzapezpiku honi erakutsi nizkion dokumentuak eta esan nion zergatik eta zertarako ninjoan hara. "Bueno, esan zidan. Subdiakono ordenatuko zaitut, hor kapera batean, eta ez besterik, eta hori ere ez besteeekin batera". "Eta diakono eta apaiz?"-galdetu nion. "Hori ez, interstizioak gorde behar dira eta". Jesuitek ere ez dut uste gordetzen zituztenik, baina nik zer egingo nuen? Eskaintzen zidana hartu, cskerrak eman eta alde egin. Uztailaren 29a zen.

Olaiz jaunari berriro deitzea beste biderik ez zitzaion gelditu. Maisuarekiko topaketa honetan Aita Larrinaga gertatuaz jabetu zenean, haserretu zen apezpiku haren kontra. Honela da berak inoiz kontatu zidan pasadizua: "Orduan Larrinagak esan zidan (Barakaldo-Burzeñakoa zen bera): "¡A cuidar gallinas le mandaba yo a su Caridad!". Eta nik erantzun nion: "¡Ah, allá su Reverencia! No respondo de que se me murieran todas".

Etorri zen, bada, berriro Olaiz jauna –jarraitu zuen Villasantek irakurtzen– eta koristaduko kaperan, San Lorentzo egunean, hots, abuztuaren 10ean –gaur 50 urte– eman zizkidan bai diakonadutza eta bai apaizgoa ere.

Aita Amundarain kronikari guztiz zehatzak kronika-liburuan dioenez, Joakin Olaiz-Zabalza gotzain kaputxino jauna (Docineako titularr) Arantzazun zegoen uztailaren 28an lehentxeago aipatu ordenazioak ematera etorrira, eta bertan jarraitu zuen “casi continuamente”; diakonogoa abuztuaren 5ean eman zion Villasanteri (ez 9an, Arana Martijak dakarren bezala) eta apaizgoa abuztuaren 10ean.

Aita Luisek Aulestian, Luisa Kortabitarte beraren ama zenaren herrian, ospatu zuen lehen Meza nagusia abuztuaren 15ean, Andre Mariaren zeruratz- festaburuan. Eta 1945-46 ikasturte berrirako Comillasa itzuli zen. Han Teologiako laugarren urtea egiten jarraitu zuen eta, hau amaiturik, Teologian lizentziatu zen. Hurrengo ikasturtea, 1946-47, Unibertsitate berean aszetika eta mistika-sailean doktoregorako ikasketak egiten eman zuen, eta ondoren Aingeru Sorazuri buruzko tesia prestatzen jarraitu zuen.

Hiru urteko Teologia-ikasketak bukatuak Comillasko Unibertsitatea utzi eta gero, 1947ko irailaren 16an Arantzazura etorri zen Teologiako irakasle izateko Apologetika-sailean bereziki. Orduetik aurrera Santutegi honetan biziko zen 53 urtean, denbora gehienez irakasle, idazle, euskaltzain eta apaiz lanetan, 2000. urteko abenduaren 2an hil zen arte.

6. Arantzazun irakasle (1947-1977)

Gogoan dut oraindik teologo gazteek aita Luisi bere lehen urteko Erregetan eskaini zioten “Velada” hura. Unibertsitatetik sona handiz etorririk izan behar zuen gure gernikarrak, ikastetxeko mutiko ginenon belarrietara ere heldua baitzen haren hotsa. Etorri zen jaialdia hasteko ordua eta guztiok zain-zain –gu “oilategi” deitutako gain hartan– Aita Villasante “Aula Magnan” noiz agertuko. Bere pauso txikiaz ttiki-ttiki sartu zenean, hura txalo zaparrada! Eta nire alboko mutiko ilchori batek harridurazko irribarrez komentatu zuen: “¡Jo, tan pequeño y tan sabio!”

Aita Villasante "Lektore" eginkizunarekin Arantzazura etorri zenetik, fraide ikasle gazteek, "korista" izenekoek, bertatik alde egin baino urtebete lehenagorarte (1976-77), irakasletzan jardun zuen hogeita hamar urtez. Bi sail eduki zituen batez ere bere ardurapean: Oinarrizko Teologia -Apologetika ere deitua, eta geroago Teologia-rako sarrera-, lehen ikastarokoei egunero eskola bat emanez; eta gainera Aszetika eta Mistika edo Teologia izpirituala, astean behin gainerako ikasleei, azken eskolak 73-74 ikasturtean izan zirelarik.

Oinarrizko Teologia esplikatzeko, gehienbat Comillasen Salaberri jesulagunari hartutako oharrez baliatzen zen, dirudienez, lehen urteetan. Handik gutxira, 1949-1952 bitartean, inprimatuta atera zituen oharra hiru koadernotan, Theses Theologiae fundamentalis titulupean. Esplikazioak gaztelaniaz eman ohi zituen, garai batean eskola hasterakoan latinezko esaldiren bat edo beste esaten bazuen ere, eta ia beti liburu mordoxka izaten zuen alboan, bere baieztapenak ondo oinarrituak zeudela adierazteko.

Ikasleek oharra hartzen zizkieten eta berak ikasgaia txandaka galdetzen zien. Comillasko unibertsitatean egin ohi zen erara, astean behin edo -garai batean behintzat- izendatutako ikasleak, eskurtean zeramaten gairen bat aurrez prestatu eta gai hori besteen aurrean azaldu behar izaten zuen, eta beste batek objektioak egin. Ondoren azalpenari buruzko iritzia agertzen zuen irakasleak. Urteak aurrera, ordea, hirurogeiko hamarkadan, "debateak" baztertu egin zituen eta ikasgaiak galdetzeari utzi egin zion: gazteekin pazientzia gutxitxo alde batetik, eta bestetik, txantxetarako gogo gehitxo.

Aszetika eta Mistika irakasteko, aspalditxotik zetorren F. Navalen *Curso de Teología ascética y mística eskuliburua* (1919) erabili zuen aurrenik. 1959. urteaz gero, Alexius Benigar frantziskotar kroaziarren *Compendium Theologiae Spiritualis* estreinatu zuen. Gogoratzen naiz nola egin zigun liburu argitara berriaren aurkezpena, lehen orriak arintxo pasatuz, su gehiegirik jarri gabe, bere merkantzia saltzen asmatzen ez duen merkatoriaren antzera. Baina luzarora gabe,

ekinaren ekinaz, latinezko testu zabal hartatik garrantzizkoena laburbildu, gatzelaniaz jarri eta bere ohar txukun askoak prestatu zituen hiru liburuxkatan, gai batzuetan beste zenbait autoretara ere joz. Geroago, ikasketa-plana zerbait berritu zenean, Aszetika eta Mistika izena alde batera utziz, gai berriztatua "Teologia Izpirituala" izenpean irakasten hasi zen.

Egia esateko, ikasle gazte haien aurrean, ez zuen aita Luisek teologia-irakasle izateko karisma berezirik agertu. Batetik, zurrunegia iruditzen zitzaien Elizaren dotrina irakasterakoan, eta urteak aurrera beste irakasle batzuen aldean oso tradizionala; eta bestetik, zeukan izaeragatik, eta bere ikaste-lanean erabat murgildua bizi zelako, ez zekien ikaslearengana hurreratzen.

Euskararen irakasle izateko, bai, oso ondo hartu zuten koristek. Askok zekien, fama handia zuen kanpokoen eta etxekoen aurrean ere, eta euskalari nahiz euskal idazle bezala miarrespen handia zioten. Hori dela eta, Teologia izpirituala irakasteari utzi zionean, euskarazko eskolak ematen aritu zitzairen azken hiru ikastarotan.

Ikastetxe serafikoan, berriz, berrogeita hamargarren hamarkadan hasita, urte askoan jardun zuen hirugarren ikasturteko 13-14 urteko gaztetxoei euskara irakasten, eta nahiko ederki, dirudienez. 1960an Iparraldeko IKAS-biltzarrean emandako hitzaldi batean zehatz-mehatz azaltzen du euskara erakusteko zein bidetatik jo zuen: euskalki ezberdinetako mutikoak ikasgela berean bildu, euskarazko eskola euskaraz eman (eta ahal bazen, beste gairen bat ere bai), eta euskal gramatika bakarrik ikasten ordu aspergarriak igaro ordez, batez ere euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten saiatu, itzulpen batzuk ere eginez. Horretarako *Garoa*, *Kresala*, *Ipuin barreka*, *Kataliñen gogoetak* etab. ipinarazi zituen mutikoen eskuetan, beti ere gramatika ikastea baztertu gabe (hortik, euskal aditzaren bere paradigmatik eta euskal Gramatika laburra).

7. Aitorle eta sermoigile

Arantzazun fraideek, lehen orain baino gehiago, eduki izan duten

eginkizun nagusietako bat aitortzak entzutea da. Aita Luisek oso ondo betetzen zuen egiteko hori basilikan eta, behar zenean, bertako apaiztegian ere bai. Horretaz gainera, Aste Santuan eta zenbait festaburutan, beste fraide batzuen antzera aitortzak entzutera bidaltzen zuten hainbat herritara. Eta berak asko estimatzen zuen beste gauza bat: hango eta hemengo seroren komentuetara ere joaten zen, eta aitortu ostean bere plakatxoa eginez, santutasun bidean aurrera egiten laguntzen zien.

Irakasletzako lehen urteetan gaixo ibili zen belarri batetik. Ebakuntza egin zioten Santanderren, baina ez zuen entzumena ondo berreskuratu. Ez pentsa, ordea, hortik aitzakia ateratzen zuenik aitortza lanetik ihes egiteko. Bazekien berak apostolutza-bide honen garrantzia, eta bere bizitzaren ia azkenera arte eutsi zion aitortlekura zintzo joateari. Horretarako, basilikan aurreko aitortleku bikoitzean jarriko zen beti, jendeari bere belarri onetik ondo entzun ahal izateko.

Aita Villasanteri sermoiak egin beharra ere egokitzen zitzaion noizean behin, Arantzazun bertan baino gehiago, batez ere Aste Santuz edo jai bereziak zirela eta, herri edo auzoren batera bidaltzen zutenean. Hara zihoan fraideari, izan ere, apaizak jendea konfesatzea eta sermoiren bat egitea eskatzen zion. 1985ean Urbiako kaperautza hartu zuenean, berriz, ohiko urtealdian igandero egin behar izaten zuen sermoia.

Atal honen hasieran "sermoigile" deitu diot Aita Luisi, eta ez sermoilari, biak nolabait bereizteagatik: bere ohiko eginkizuna predikatzea ez zelako, eta batez ere bere sermoi edo hitzaldiak, predikatu baino gehiago, esan egiten zituelako, edo zehatzago, irakurri. Bera oso ohitua zegoen idaztera eta hau oso ondo egiten zuen; baina predikatzeke orduan behar den esamoldea bat-batean asmatzeko gaitasun hori falta zitzaion. Bere ahots meheak ere ez zion gehiegi laguntzen, eta hitz egin ahala berotzen joatea ere ez zen haren izaerari zegokion jarrera. Beraren hitzaldiek bazuten, ordea, halako argi-

tasun bat, halako apaltasun aire bat, non entzulea belarria gozatuta gelditzen baitzen eta bihotzean ere ukituta sarritan.

Aita Luis hil eta handik urte betera beraren koaderno eta paperak aztertu zituztenean, sermoi mordoxka agertu zen, eskuz idatzia, bakoitza norako eta zein datatan egin zuen zehaztuz. Idazmakinatxo inguratu zuenean, sermoiak garbira pasatu eta txukun asko prestatuko zituen erraz irakurtzeko moduan.

Sermoi batzuk, Sortzez Garbiaren festaburukoak adibidez, nahiko laburrak zirenez, sarritan berritzen zituen, batez ere herri berdinerara joan behar bazuen. Beste zenbait sermoi, Aste Santurako eginak batez ere, luze samarrak ziren eta orduan errepikatu egiten zituen han eta hemen. 1948ko Ostegun Santurako egin zuen sermoi baten azkenean, esate baterako, ohar hauxe dakar lapitzez: "Oirse muy bien, voz clara etc. Debía haber ido más despacio. Duró media hora". Ondoren apaizaren izena dago eta nongoa den. Jarraian bederatzi herri edo auzoren zerrenda dator, bat ez beste denak ezberdinak, hamar urteren barruan bisitaturikoak denak, bakoitza bertako apaiz jaunaren izen eta guzti.

San Eliasen egunez 1949an Araotzen (Sandailiko koban?) egin zuen sermoi-bukaeran, honela dio oharra: "Aita Izagirreraren iritziz oso sermoi ederra eta egokia izan zan; eskuketa haundirik gabe, baño sentzillua, ulerterreza eta gaia ederki esplikatzen duana. 20 bat minutu luzea".

8. Idazle argi, aberats eta oparoa

Saiakera honen hasieran esan denez, aita Villasantek mutikotatik aurkitzen zuen bere gozamina liburuak irakurtzen. Ohitura hori bere bizitza guztian gordeko zuen. Apaiztu eta gero, bere irakurgaiak ez ziren orokorrean literatura liburuak izaten -hauek, izatekotan ere, euskarazkoak-, baizik eta irakaskuntzarako eta bere lanetarako behar izaten zutenak, hots teologia- eta izpiritualitate-liburuak, hizkuntzalaritza eta filologiakoak, gai sozial edo historikoren bat tratatzen zutenak...

Oso ohargarria da, bestalde, nola irakurtzen zuen: ondoan edukiko zizun beti bere koadernoa, eta irakurri ahala, hantxe joango zen idazten irakurriaren laburpena. Hamaikatxo koaderno bete zituen era horretara! Hor daude oraingoz artxiboan gordeta hainbeste irakurraldi ereneren lekuko. Ez da harritzekoa halako irakurlea gero hain idazle trebe ateratzea. Berez zekarren scena, eserita egoten jakinez landu zuen aita Villasantek.

Geroago, idazmakina ekarri ziotenean ere, bere idazkiak eskuz idazten zituen aurrenik eta ondoren makinaz kopiatu, trebezia handiz kopiatu ere; egunero ematen zuen tarte bat idazmakinarean aurrez aurre. Idaztea, makinaz garbian jartzea eta irakurtzea, egunean zehar txandaka egin ohi zituen lanak ziren. Eskolak ematen ibili zen bitartean, ordutegi hartara egokitu behar izaten zuen bere lan-erritmoa. Baina erabat aske utzi zutenean, gosaldutik ondoren ekingo zion lanari, goiz erdian sagarren bat jan eta etenalditxo bat egingo zuen, errekreo-areto edo "konferentziara" bisitatxo bat egiteko; han egunerokoren bati begiratu bat eman, eta berriro bere gelara, bazkal aurrean tarteko liturgia-ordua errezatu arte. Arratsaldean ere berdintsu: jatostekoaren ondoren, maitinak errezatu anaiartean eta berriro bere laneko mahaira. Hurrengo atsedentarte, bere pasealditxoa izango zen, hori bai, egunero.

Lan modu sistematiko horrek sortu zuen Villasanteren lumatik halako ekarpen ugaria. Hau ere esan behar da, jakina, anaiarteko bizitzak ordu asko uzten zizkiola bere eskura -irakasletzan zebilela gutxiago baziren ere-; liburutegi bikaina zeukan gainera aukera-aukeran, eta nola ahaztu Arantzazuk eskaintzen zion eta berak hainbeste eskertzen zuen bake santua?

Bada, ordea, besterik ere. Aita Luis ez zen liburuak idatzi eta eserita gelditzen. Argitaratu egin behar ziren haiek. Eta horretarako inon diren ateak jotzen zituen, behar ziren diru-laguntzak lortu arte. *Arsko Erretore Santuaren Erakusaldiak*, adibidez, Iparraldean Ambrosio Zaratainen aita bisitatu eta hark lagunduta atera zuen; *El camino cris-*

tiano según Angeles Sorazu liburuak aterik ate ibili beharra ekarri zion... Ez zen, ez, adorea galdu eta etsitzeko gizona. Ez dut ezagutzen argitara gabe geratu den bere liburu edo idazlan bat ere (sermoiak ez ziren bere asmotan horretarako).

Aita Villasantek, aita erdaldun eta ama euskaldunaren semea izanik, bi hizkuntzatan idazten zuen, batean bezain ondo bestean. Bere ekoizpen idatzia oparoa da euskaraz nahiz gaztelaniaz. Ez zitzaion kostatzen idaztea, nik uste gozatu egiten zuela: erreka zela artean kantari doan bezala, halaxe ateratzen zitzaizkion esaldiak, berez-kotasun osoz, aberats esamoldetan eta argiz beteak, pentsaeran bihurturik gabe, oztopoak berak ere -urak harriak bezala- boro-bilduz eta leunduz...

Liburu-saila idatzi zuen: 30 bat. Bere irakasletzako gaiei buruz ari dira euskarazko liburu garrantzitsuenak: *Jainkoa* (1962), *Jesukristo* (1969), *Eliza* (1984) eta *Kristau Fedea* (1986); edukiz tradizionalak dira, baina euskarari gai horietan bide nahiko berria zabaltzen diotenak. Axularren inguruan idatzi zituen beste zenbait liburu eta idazlan, haren *Gero* maisu-obra aztergaitzat hartuz. Doktore tesia Aingeru Sorazu Zumaiako serora mistikoaz egin zuen; berari buruz dihardu beste hainbat idazkitan ere, gehienak gaztelaniaz eta bana-ka batzuk euskaraz ere bai, *Nere izena zan Plorentxi-tik* hasita.

Euskal filologiako liburuxka saila eman zuen argitara Eleizalde sortan. Pozik aipatzen zuen, salmentaren ardura zuen fraideak esan omen zion hura: "Estos libros se están vendiendo como rosquillas". Aipagarriak dira bere *Historia de la Literatura vasca*, bere garaiko obra izanik ere, hain estimatua gaur bertan, eta *Euskararen auziaz* nahiko hots atera zuen liburu pentsarazlea.

Artikulu eta idazlan labur edo ez hain labur asko eta asko (bostehundik gora) idatzi zituen eta hainbat aldizkaritan argitaratu: euskararen inguruko gaiez, euskal historiaz, frantziskotar eta euskal santu eta emakume eredu-garriez, eta abar.

Idazlan hauetatik gehienak -hirurehundik gora- Santutegiko

“Arantzazu” aldizkarian azaldu ziren. Sail berezia eduki zuen denbora luzez, “Hitzaren hausnarrean” zeritzana. Artikulu hauetan erlijio-gaiak izan ziren nagusi: Jainkoaz eta Jesukristoz idatzi zuen sarritan, eta horrekin lotuta batez ere fedearen garrantzia azpimarratzen zuen. Maiz aipatuko zizun Andre Mariak Elizan duen egitekoa. Azken Kontzilioaz ere jardun zuen, eta zer esanik ez Aita Santuak Elizari egiten dion egia eta maitasunaren zerbitzuaz... Aingeru Sorazu ere ez zeukan ahazteko. Guztira, idazlan-sorta oso aberatsa, dotrina nahiz euskara aldetik liburu bezala eskura edukitzea mereziko lukeena.

Erljio gaiez kanpo, Arantzazuri buruzko bere idazlanak nahiko ugariak dira aldizkari berean: bertako leku-izenak, erromesen bideak, basilika berria, Gesaltzako aitonaren bertsoak... Euskal gaiak askotan erabiltzen zituen: euskara, euskal historia, euskal herri eta gizonak, gure hizkuntzari buruzko bilerak eta liburuak...

Arantzazuren historiaz maiteminduta bizi izan zen; aita Lizarralderen obra nagusia -orain arte bere mailakorik izan ez duena- gazte-gaztetatik ezagutu zuen eta sarritan irakurri ere bai gozamen handiz. Gero behin eta berriz heldu zion Santutegiaren kondairari eta laburpen txit irakurgarriak idatzi zituen, ezagunena eta oso irakur-erraza *Santa Maria de Arantzazu Patrona de Gipuzkoa*. Beste hainbat idazlan nahiko luze ere azaldu zituen gai berari buruz entziklopedia eta hiztegietan. Bere azken lantxoetakoa, Arantzazun hil eta ehortzita dauden fraideen bizi-albiste sorta da, komentuko hilerrian bisitariaren eskura jartzeko asmoz egina.

Esan behar da, gainera, bere lanak argitaratzeaz gain, Villasantek inoren idazki-saila ere prestatu zuela inprimategirako. Arantzazuri buruzkoak besterik ez aipatzearren, hor dago Aita Gamarra arabarraren bertako lehen historia, antzinako Arantzazu hartaz hainbeste berri jakingarri ematen dizkiguna.

Horietakoa dugu Kandido Izagirre urretxuarraren *El Vocabulario vasco de Arantzazu-Oñate y zonas colindantes* titulua daramana ere. Liburu hau eratzeko gaiak in extremis bezala salbatu zituen Villasantek. Berak

kontatzen zuenez, aita Kandido minbiziak jota oso gaixo zegoela, bisitazera joan zitzaion eta baita esan ere bere ikerketa-gai haiekin zerbait egitea komeniko litzatekeela... Kandidok, orduan, beren lagunarteko hizkera tonuan: “¡Vete de ahí, majadero!...”. Ez zen galduko, ez, Arantzazu auzoko hizkeraren bitxi preziagarri hau. Hiztegia osatzeko eta zenbait zalantza argitzeko, Aita Luis bera ibili zen, neuk lagunduta ere bai, auzoko baserri bat eta bestea bisitatzen. Ondoren dena makinaz kopiatu eta inprimategirako prestatu zuen. Aita Izagirrek halako ahaleginez bildutako altxorrek merezi zuen, bai, hainbeste.

Gesaltzako Grazianorena da beste kasu bat. Aita Luisek sarritan bisitatzen zuen auzoko aitona bertsolaria. Zenbat elkarriketa izan zuen hainbeste ateraldi zituen gizon harekin! Erleak loreetan bezala, apurka-apurka jaso zituen Grazianoren bertsoak, “Arantzazu” aldizkarian ere argitaratu zituen batzuk, eta hiru liburutxo osatu zituen haiekin: *Aitonaren uzta* (1961), *Egunsentiko txoria* (1963) eta *Bertso bilduma* (1965). Pena ematen zion Grazianoren beste hainbat bertso sutatik salbatu ezin izanak.

9. Arantzazuko biltzar eta batzarretan partaide

Ez da hemen zehatz-mehatz kontatzekoa, baina bai irazean aipatzekoa zein era bitxian lortu zuen Aita Luisek Euskaltzaindian sartzea, Krutwig euskaltzainaren eskutik: dena, egunkarian irakurritako beronen hitzaldi baten albistetik hasi zen. Horren ondorioz eta garai hartako zirkunstantzietan esker, 1951n egin zuen bere sarrera euskal erakunde ezagun horretan.

Ordutik aurrera, Villasante, beste egitekoak albora utzi gabe, gero eta gogotsuago sartuko zen euskararen munduan, eta beroni zegozkion gaiak edo beste gai batzuk ere euskaraz lantzen ahaleginduko zen. Arantzazun bertan izan zituen hori erakusteko zenbait aukera.

- *Arantzazuko Euskaltzaleen Biltzarra, 1956an.*

Irail erdiko hiru egunez ospatu zen “biltzar” hau. Ongietorri hitzak

Aita Luisen kontura izan ziren. "Jardun hauek zergatik eta zertarako? -galdetu zuen-. "Euskal urduritasuna sentitzen degun guztiok elkar-tzeko, edo bata bestearekin al dan neurrian hurreratzeko". Euskara garbia, euskara ulerterraza, euskara kultur-tresna bihurtuta...: Nondik jo behar du gure hizkuntzak? Horixe zen gai nagusia, euskal herri-kulturaren inguruko beste aztergai interesgarri batzuen artean.

Giroa irakiten hasia zegoen ordurako, nahasteko arriskuan. Berri-ro ere euskaldunen arteko zatiketa, hala ikusten zuen behintzat bere sermoian Aita Julian Alustizak; eta bitartean euskara atzeraka, eta euskararekin fedea ere bai. Arantzazuko Ama sentitzen zuen berak aldare nagusi gainean elkartasun berri baten "Egunsenti"...

Beste zenbait jakitunek aurkeztutako lanen artean, Aita Villasanteren txosten luzea garrantzi handikoa izan zen. "*Gure eginbeharrak*" izenburu itxuraz gatzgabearekin, barrenean eskukada gatz eta piper zeraman idaz-lana irakurri zuen, liztor guztiak dantzan jarriz: garbizalekeriaren eta herri-zalekeriaren artean, erdibidetik jo behar zela euskal kultur ekintzetan...

Giroak eraginda nonbait, Aita Agirretxek proposatu zuen bilera batean egokia izango litzatekeela Euskaltzaindiak Arantzazuko Ama bere zaindaritzat aukeratzea. "Eta hala erabaki zan", dio Zeleta orduko kronikariak.

Gesaltzako Grazianok egun batean eta Balendin Enbeitak bukaera-ko bazkarian, bertso ederrik kantatu zuten biltzar horretan. Mahai-inguruan bildutakoak berrehunen bat lagun izan omen ziren, eta azkenean denak pozik, elkar besarkatuz eta egundoko giroan "Agur jaunak" abestuz amaitu zen biltzarra.

- 1959-60an, Kantabria frantziskotar Probintzia berreraiki zeneko mendeurrena ospatzen zela eta, lau batzar egin ziren Arantzazun hil ezberdinetan, lau edo bost egunekoa bakoitza (haiek garaiak, haiek!). Horietako laugarrenaren gaia hauxe zen: gure Probintziako "Literatura eta frantziskotar predikazioa euskaraz".

Aita Villasante zen batzar honen zuzendaria eta berari egokitu zitzaion sarrera-hitzak esatea eta programaren aurkezpena egitea (eta bere

buruarena ere bai: “Ni distraidu samarra naizela badakizute...; nere gela barruan sartuta bizi naiz eta askotan nere inguruan zer pasatzen dan ez det jakiten”). Oso baikor agertu zen orduan euskararen alde eta gogo biziz adoretzen zituen fraideak “Ebanjelioa, San Frantziskoren erakutsiak, Arantzazuko Amaren dohaiak, euskal jantzi apainduta” eman zituzaten. Kongresu honek -zioen berak- “kontzientziako esamina bat behar du izan, pultsu-hartze bat gure Probintziari euskera kontuan”.

Batzar honetan “Aita Uriarte eta euskerazko bere Bibliaz” arituzen ohiko maisutasunez. Iziritualtasuneko biltzarrean, berriz, Aita Palacios sermoilari ospetsua izan zuen jardungai.

- 1961eko uztailean, Batzar garrantzitsua berriro ere Arantzazun: oraingoan, Espainia eta Portugalgo Teologia- eta filosofia-irakasle frantziskotarrena, ordenako adar ezberdinetakoak. 50 batzarkide bildu ziren, buru aita Karlos Balic zelarik.

Teologia-irakasle bezala, aita Villasantek ere parte hartu zuen bertan. Bere gaiaren sarrera egitean, ohar honekin hasi zen: norbait lekuren batera joaten denean, ez al du hango janari edo edari bereziren bat probatu nahi izaten? Oportoko ardoa, Valdepeñas, “Pamplonako txorizoa”, edo hemen Urbiako gazta... Ba niri iruditu zait zuek eskertuko didazuela gure lurralde honetako zerbait berezia eskaintzea. Eta “a título de curiosidad o amenidad”, bere hitzaldi-gaia aurkeztu zien: “Andre Maria Bernard Dechepare-ren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuan”. Ederki kokatu zituen orduko giroan lehen euskal autore zena eta bere obra, eta iruzkin labur egokiak egin ondoren, Etxepare apaizak Andre Mariari zuzentzen dion otoitz bitxi bihoztia eskaini zien gaztelaniara itzulita. Arantzazu batean egiteko, ez zirudien batere desegoki!

- ***Arantzazuko Biltzarra, 1968ko urriaren 3-5ean***

Aurretik beste bilera batzuk eginak ziren Baionan (1965) eta Ermuan (1968), euskararen inguruko batasun nahiak nolabait bideratzeko. Olatua gehitzen zihoala ikusiz, eta bere urrezko ezteiak ospa-

tzeko, Euskaltzaindiak erabaki zuen bazela zezen bihurri horri adarretatik heltzeko ordua, eta heldu zion, nola gainera!

Bilera horien ospalekua zein izango eta, berriro ere Arantzazu. Aurreko biltzar hartatik dozena bat urte igaroak ziren, eta ordukoaren oroitzapen onak bultzatuta antza, aita Villasante euskaltzaina ere biarteko zela, Andre Mariaren ingurura bildu zen Euskaltzaindia. Bere "ezpataririk" onenak zekartzan ondo prestatuta eta euskaltzale ugazuriz inguratua agertu zen oraingoan ere.

Batzar hau da gerora oso famatua egin zena. Harritzekoa da orduko argazki banaka batzuk besterik ez gelditzea: Rementeriak edo ateratako taldekoa (goian, Iñaki Beristain, eta Berriatuaren atzean, honako hau), eta Gogartetxe barruko biak, makina kaxkar batez neuk eginak.

Batzar sonatuaren utzi ezineko gaia Euskararen batasuna izan zen. Gure hizkuntza zaharrak, izan ere, galtzada berria behar zuen lehenbailehen, aurrerantzean ere bizirik iraun nahi bazuen eta gaurko mundu berrian osasun sendoz sartu ahal izateko. Eginkizun zaila benetan.

Lekuona "zaharrak", mahaiburukoa zenez, badaezpada azaldu zuen hasieran bere guraria: *"Arantzazu izan dedila orain ere, lehen noiz-pait bezela -orain bostehun urte bezela- pakezko lokarri guztiontzat Euskararen alde"*.

Batasunari buruzko bibliografiaz gainera, Aita Luisek lan mamitsuua aurkeztu zuen batzar honetan, "Antzinako euskal hitzen formaz" ari zena. Hainbat euskalkiren aurrean, hau zen bere galdera: "Barraiatze hau, zatikatze eta elkarrengandik apartatze hau, nola erremediatu edo geldiarazi?" Aurrez igarri zitekeenez, berak Axular proposatu zuen euskararen batasuna egiteko ardatz bezala. Autore zaharraren distira zuen, obra ospetsu baten egile zen, hango eta hemengo euskaldunen lokarri... Txosten luzea berea, eta hainbat adibidez argitua. Azkenean, "demostrativu" sailean zera proposatzen zuen: "Hau, hunek, hunen... Horiek, horien... Hek (haiek), hei, hetan..." Hain Axular-zale zen, izan ere...

Luis Mitxelenaren txostena, "Ortografia", izan zen hautsak astindu eta laster istiluak sortuko zituen. Konfidantzaz azaldu zen, baina, maisu azkarra, txosten ondoko elkarrizketan: "Aita Alustizak esan digunez Elizako hitzaldian, Ama Birjinak bedeinkatzen ditu gure batasunerako asmoak eta ekintzak... eta goiko laguntza eta graziarekin... goazen aurrera H kontu hontan".

Batasunaren Batzar hau Oñatin amaitzekoa zen jaialdi batez, baina ez zuten hala egiterik izan. Hartarako ere Villasantek bere lan bikaina prestatua zeukan "Oñatiko euskarari buruz". Zehatzago esanda,

Arantzazu auzoko hizkerari buruzkoa zen, K. Izagirrereren bertako hiztegia argitara berria baitzuen aurreko urtean. Oñatiarrei xi-xauren konplexua kentzen saiatzen zen bertan, beren euskera zein eder eta maitagarria zen erakutsiz.

- **1997ko Korrika euskararen aldeko ibilaldia**

AEK-ak egin ohi duen Korrika saio honek bere hamargarren edizioa ospatu nahi zuen 1997an. Lehenengoaren abiapuntua Oñati izan zenez, antolatzaileek pentsatu zuten urte hartako Korrika-aldia ere bertan hastea, oraingoan Arantzazuko gain hartan. Aldi berean omenaldi bat eskainiko zioten Aita Villasanteri euskararen aldeko bere lan guztien eskergarri.

Eta halaxe egin zuten. Egia da bera ez zela omenaldien oso zale, eta zirkunstantzia batzuetan oraindik gutxiago. Baina erdi-gaixo eta guzti, atera zen kalera, txalo-zaparrada beroak jaso zituen, eta bular-oihal eta guzti bere nolabaiteko korrika egin zuen, zurezko lekukoa-ikurrinaz bildua, hain zuzen ere- eskuan zeramala.

Poza ematen zuen ikusteak nola zihoazen korrika txikian hainbeste gazte eta gatzetxo, beren maisu eta eredutzat goratu zuten fraide apalaren atzetik oihuka eta kantari.

10. Herriko jendearekin harremanetan

Aita Villasantek atsegin handia hartzen zuen herriko jende xeheare-

kin zituen harremanetan. Ez zen sekula Arantzazu auzoko kaperau izan, baina fraide gutxi izango ziren Santutegian auzotarrek hainbeste ezagutzen zutenik. Sarritan bisitatzen zituen Arantzazuko baserriak, gehienetan beste fraideren batekin. Baserrietako etxekoandreak irribarre gozoz hartzen zituzten sukaldean; patxadan eseri eta hantxe egoten ziren -ginen-, zerbait hartuz, edadekoekin batez ere kontu kontari.

Bisitaldi hauek, gehienetan, adiskidetasun hutsez egin ohi zituen. Beste batzuetan, berriz, hizkuntza gaiak jasotzeko izaten ziren, bertako ohiturak, ipuinak, lekuen izenak... Hil ondoren bildutako papereen artean, blok koxkor bat ere azaldu da bisitaldi horietako emaitzak jasotzen dituen, bertako hizkera berezian. Batzuetan lapitz eta paperarekin nahikoa izaten zuen horretarako; geroago magnetofoi-txo batez baliatzen zen. Ikustaldi horietan, bazen batere gustatzen ez zitzaion gauza bat: halako lagun batek oñatiar hizkeraren xi-xauari egiten zion irritxo... Horrelakorik ez, mesedez!

Beste mota bateko jendearekin ere harremanak izatea egokitu zitzaion Aita Villasanteri. Arantzazuko obra handien garaian izan zen. 1950tik aurrera Basilika berria jaso zenean eta gero, hirurogeiko hamarkadan, apaiztegi handia eraikitzean, langile kanpotar asko bildu zen Arantzazura: galiziar, andaluziar, gaztelar eta beste. Jende pobrea ia beti, eskola gutxikoa, erlijio aldetik hotz samarra ere bai ez gutxitan...

Obrako lana utzi ondoren, Aita Lasa eta biak joaten zitzaizkien barrakoietara eta hantxe ematen zieten eskola nahi zuten guztiei: matematikak Lasaren kontu, eta irakurtzen eta idazten erakustea Villasantek egiten zuen. Hara orduko pasadizu bat: Uriarte basilika berrirako kontratistak jakin zuen bi fraide zebiltzala langileen artean. Susmoren bat hartu zuen nonbait, hortik iskanbilaren batzuk sortuko ote zitzaizkion, eta galdetu dio fraide ezagun bati: "Aizu, hor omen dabil-tzan fraide horiek, ez dira gero izango..." Eta besteak, barrez: "Aita Lasa eta Villasante? Ez gizona, ez, lasai egon horiengatik..."

Igandean meza entzun nahi izaten zuten langile batzuk. Baina losatu egiten ziren zeuzkaten arropa pobre haiek jantzita elizara jaisten.

Horregatik, Aita Villasante Kurtzipizioko ermitara joaten zen, eta langile batek “¡A misaaaa!” deitzen zuenean, inguratutakoei hantxe ematen zien meza, Jesus gurutziltzatu apal eta pobreaken aurrean.

Obrak bukatuta askoz geroago ere, zenbat aldiz gogoratzen zigun Villasantek: “*Begira, hementxe zeuden barrakoiak, honaxe etortzen ginen Aita Lasa eta biok eskola ematera*”.

1985ean Aita Lasak, hainbeste urtean Urbiako “artzainen artzain” edo kaperau izan eta gero, urteen pisuak eraginda, utzi egin behar izan zuen kaperautza pena handiz. Orduan Aita Villasantek hartu zuen txanda. Horrela, zazpi-zortzi bat urtez maiatzetik azarora bitartean igandero igotzen zen Urbiara -eta jai nagusietan ere bai-, soldaduska garaiko motxila zaharra bizkarrean zuela. Komentuko sukaldariari otartekoa eskatu (urdaiazpikoarekin, ahal bazen, nahiz eta txerrikirik ez zitziola komeni esaten zuen...), eta goizean nahiko goiz ateratzen zen Urbiarantz, bide zaharretik zeharka-meharka igotzeko. Eguzki-printzak berotzen hasten zirenean, pagoren baten itzalpean eseri eta betiko apetituekin ekingo zion otartekoari, txoriak kantuan ari ziren bitartean...

Urbian aukera ona izaten zuen mendizaleekin jardun atseginean egoteko, horien artean Oñatiko bere ezagunekin, eta batez ere bertako artzainekin. Hauek aspalditik ezagutzen zituen, hango neska mutikoei bertan eskola ematen ere ibilia baitzen, eta batez ere artzain-txabolak bedeinkatzerakoan urtero bisitatzen baitzituen.

Garai batean, bedeinkazio-sasoia zetorreanean, goizean goiz ateratzen ziren fraideak Arantzazutik, bi Katabera aldera eta beste lau Urbiarantz. Horrela, artaldeak larrera irten aurretik bedeinkatu ahal izaten zituzten txabola ondoko eskortan. Geroago, urteek ere agintzen zuten eta, eguzkia epeltzen hasten zenean heltzen ziren fraideak Urbiara, binaka bedeinkazio-lana egiteko.

Roketea eta estola jantzi, aita Villasantek eta han joaten ginen biok txabolaz txabola, tokatzen zitzaigun bidetik. Artzainei lehen agurrak egin, “Hemen gatoz ba aurten ere...”, eta bedeinkazio-otoitzak

esanik, lizar ostu batzuekin ur bedeinkatuz ondo zirtatuko zituen txabolak eta inguruko ardiak; ondoren hizketalditxoa izaten genuen bertakoekin, zerbait eskaintzen ziguten bitartean. Aita Luisek horixe aurkitzen zuen bere atsegina, jende on eta xalo harekiko harremanetan. Artzainek, berriz, oso begi onez ikusten zuten.

Bazkalordurako Domingo Goiburu artzainaren txabolara biltzen zen fraide taldetxoa, Kataberatik zetozenak ere bai garai batean. *"Honaxe ekarri nuen nik behin Joan Karlos gaztea, gero Espainiako errege izango zena"*, errepikatu ohi zuen urtero Aita Villasantek. Bazkari bitartean -babarrun gozoak, geuk eramandako haragia eta koroa bezala mamia-, artzain-familiarekin berriketa atseginean egoten ginen, denok pozik, baina pozik handienaz Aita Villasante bera. Azken urteetan, Goiburutarren seme-alabak hazi ere egin ziren eta, kaperako sukaldean bazkaltzen genuen, Joxe guraso gaztea geurekin genuela. Bai gogoan gordetzen zituela Aita Luisek lagunarteko bilera haiek!

11. Paseo eta mendi-ibiliak

Villasanterentzat ezer utzi ezinezkoa bazen, hori eguneroko ibilalditxoa izaten zen. Hainbeste ordutako lana arintzeko behar ere bazuen eta, astegunez arratsaldeko bostetatik seietara kaminoan zehar aterako zen gehienean bere ibilalditxoa egitera, Aita Lasarekin ahal bazuen, edo beste norbaitekin; besterik ezean, bakarrik ere bai.

Ostegun eta igandeetan, ordea, ibilaldi hori hiru bat ordukoa izaten zen mendian zehar. Batzuetan talde ugari samarra ateratzen ginen, batez ere teologo gazteen irakasleak Arantzazun zeudenean. Umore onez eta berriketan joaten ginen pozik, Aita Villasanteren inguruan irribarreak erraz sortzen zirelarik. Geroago, gehienetan hiruko taldetxoa izaten ginen: Villasante, Aita Esnal eta ni.

Ohitura bitxi bat genuen pasealdia nondik nora egin jakiteko: Aita Esnalek paseo-bideen zerrenda bat zeukan idatzita bere gelako leiho markoaren alde batean, -orduan liturgia-jaiekin egiten zen bezala- ibilaldiak hiru mailatan banatuz: lehen, bigarren eta hirugarren mai-

lako ibilaldiak, luzearen arabera. Astiak ematen bazuen eta eguraldiak laguntzen, “Gaur lehen mailako ibilaldia tokatzen da: halako lekutara!”, eta beste gabe hara bidean ateratzen ginen.

Ez da Arantzazu inguruetan egongo gu joan ez ginen leku edo mendi tontorrik. Aloña malda hau, izan ere, oso aberatsa da paseolekutan, eta neke handiegirik gabe heldu daiteke beste leku zoragarrietara ere: Urbiara noski, Aloñara, Artiako San Joan, Gailaur, Katabera, Zurkrutz, Burdinkrutz, Artaso, Katiluiturri, erromes-bidetan zehar, eguzki-bide deitutakoan zeharka Urbiarantz... Ezin esan ahala bide eta helmuga, zein baino zein ederragoak, nekatuta ere barrutik erabat berrituta uzten gintuztenak.

Pasealdiaren gozagarri eta indarrak berreskuratzeko, geure askarritxo eramaten genuen nahiko sarritan, Villasantek bere betiko bizkar-zakutxo gainean zuela (“la mochila de la calumnia”, deitzen zioten batzuek, gertatzez plastikozko poltsan eramaten bainuen nik jatekoa). Ibilaldi hauek urte guztian egiten genituen: udaberriaren pagoak haizearen ukitu bigunez hosto-berritzean, udako eguzki galdataz Lizardiren itzal urdinak bilatuz eta iturri garbietan egarria asez, udazkenean gaztainondo berde-horiaren joku polittak miretsiz, eta neguan elur bigun loditan pausoa sakonduz, hotzaren beldurrik gabe, Aita Esnalek elurrez zamaturako zuhaitz-adarrak makilaz astintzen zituen bitartean... Villasantekin batera, guk bizi egiten genuen hori guztia, nolako atseginez bizi ere!

Gure hirugarren lagunak, igandeetako futbolaren “jopu” bihurtu eta utzi gintuenean, Aita Villasante eta biok ateratzen ginen mendira, ordurako ibilaldi laburragoetan, Duru eta Mailara, Iturrigorriarantz, Aloña aldeko Belarrera... Ez zen gure artean zertaz hitz egingo izaten euskaraz beti, jakina, horretarako akordioa eginda geneukan eta: teologia eta mistika-gaiak, Arantzazuren historia, euskal kondaira, bertako eta urrutiko politika-kontuak, euskararen inguruko gauzak, Euskaltzaindiaren martxa... Berotu ere egiten ginen batzuetan, baina isilunearen ondotik, gehienez berehala itzultzen zitzaigun umore ona.

Lizartza inguruko zelaigain hartatik, a zer nolako gozamina hartzen genuen biok ilunabarrari begira, Elgea mendiko Aumategi atzean eguzkia azken printzatan ezkutatzera zihoala... "Ea, kanta dezagun -animatzen nuen nire laguna, eta ekiten genion-... "Ilunabarra! Eguzkia hasten da jetxitzen jetxitzen..." eta abestiaren amaierako hartan, "sartzen, sartzeeen", luze eusten genion, eguzkiaren azken distira mendi atzean galdu arte.

Inoiz kanpotar bereziren batzuk Arantzazun agertzen zirenean, Aita Villasante prest egoten zen ia beti haiei mendi-bideetan laguntzeko. Joan Karlos Borbondar gaztea, Frankok jadanik Espainiako errege izateko aukeratua zeukala, lagun-taldetxo batekin etorri zen Donostiatik, apaiz bat (Zaragueta edo) arduradun zutela. "Lagunduko al zenieke Urbiara?", goardianoak. "Nola ez!", eta han joan zen gernikarra xalotasun osoz beraiekin, Lazpiur fraide donaduak zaldi gainean jatekoa eramanez. Gogora dezadan hemen, aita Luisek handik urteetara agurtu ahal izan zuela Joan Karlos Erregea Zarzuelako jauregian, euskaltzainburu gisa "Errege-akademia" izendapen eman berria eskertzerantz joanda: "¿Se acuerda de cuando, estudiando en San Sebastián, subió con nosotros a Urbia...?" Villasante zendu zenean, Errege-Erreginak izenpetuta iritsi zen telegrama Arantzazura: "Enterados de la triste noticia del fallecimiento de Fray Luis, de quien tan grato recuerdo guardamos..." Benetan, poza ematen zioten oroitzapen hauek Villasanteri.

Anaia Manuel Lekuona arabarra ere ekar liteke hona. Ikastetxe serafikoan egiten zuen lan; fraide oso jainkotiarra eta ona zen, baina berezi samarra eta sinplea, mendian basabehie ere bere sermoitxoak egitea gustatzen zitzaiona. Noizean behin bere jaioterria bisitatu nahi izaten zuen, eta Elgea mendian gora igota, gailurretik oihuka hasten zen "¡Alava, patria mía!"... Horrelako ibilaldietan berari lagun egiteko nor hoberik, aita Villasante baino? Hau, berriz, beti prest horretarako. Ez zen erraz esaten bietatik nork gozatzen zuen gehien.

Aita Raymond Paratte, frantziskotar suitzarra, zen beste bat. Arantzazura etorri zen behin Metz-etik udako oporrak gure artean igaro-

tzeko asmotan. Eta hain zoragarria iruditu zitzaion lekua, hain anai-kiro hartu zuten fraideek, non etortzen jarraitu baitzuen hogeita bost urtetan zehar. Denen artean, bazen fraide bat beti adiskidetasun apartekoz hurbiltzen zitzaiona, eta hori Aita Villasante zen. Egiaz, bihotza irabazi zion suitzarrari; izan ere, honek hain zintzo, leial eta jakintsua ikusten zuen, hain xaloa beti... Aita Raymondek entzuna zuen gainera Villasantek gutxik bezala ezagutzen zituela Arantzazu mendietako bide eta bidezidor ia guztiak: idatzi ere hainbestetan idatzi omen zuen-eta mendi bide horiei buruz... Eta biak -hirurok ez ginenean- ateratzen ziren mendiaz gozatzerara, eta batzuetan gertatzen zitzairen jo handik eta jo hemendik, "planoa" galdu edo egiten zutela. Ibilalditik itzultzean, Raymondek bereiz hartzen ninduen eta isilean bere irribarretxo harekin aitortzen zidan: "Surhutusa, ¡hoy hemos tenido aventura!..."

Azken urteetan, Aita Luis oraindik nahiko osasun onean zegoela, noizean behin txango batzuk egiten genituen berebilez. "Zer iruditzen zaizu, Villasante, oraingo honetan Cadaguara joango bagina?" Esan banion esan nion: hark hartu zuen ilusioa! Ia egunero galdezka, ez zitzaion behingoan etorri hara joateko eguna. Halako batean heldu ginen bere aitaren herritxora, Aita Raymond ere gurekin, eta dena zen oroitzapena Villasanterentzat: "Begira han goian *"La Roblako"* trenbidea zena; umetan haraxe igotzen ginen arreba eta biok merienda hartuta; hor behean dago Cadagua ibaia -eta jaitsi ginen hara; hango ur bizi garbiak!-; errota horretakoek amuarrain bat erregalatu zidaten behin..." Aita Luisentzat, hura bere sustraietara itzultzea zen!

Behin, 1987ko abenduaren 29an, Rufino Gil Ororbiako bere ikaslaguna etorri zitzaion bisitatzerara eta biak atera ziren Urbiarantz. Eguna pozik elkarrekin igaro eta bazetozen etxera bidean; ohi zuenez, Villasante beti bere laguna baino atzeraxeago. Maila gaineko Arlepo inguruan, halako batean estropozo egin eta han doa aita Luis aurpegiz aurrera, harkaitz baten ertza jotzeraino. Berehalaxe hurreratu zitzaion Rufino Gil hori. Villasantek bekoki gaineko azal guztia begien gaine-

ra eroria zeukan, odol ugari zeriola. "Semejante espectáculo ni en la guerra" esaten omen zuen Rufinok, oroitzen zen geroago Villasante. Adiskide batzuek beren landroverrean hartu eta Arrasateko erietxera eramán zuten. Han egon zen egunetan, pazientzia handiz, behar bezala osatu arte.

Ezbehar honek ondorioak ekarriko zizkion gerora. Sudur inguruko hezurretan pitzaturen bat edo gelditu zitzaion eta harrezkero ur-jario moduko bat izaten zuen. Basurtuko ospitalean ibili zen ebakuntzaren bat egingo ote zioten, baina agian endredoa besterik ez ziola ekarriko eta, bere hartan utzi zuten. Villasantek, sendatu ondoren, bere betiko mendi-ibilietan jarraitu zuen, eta Urbiako kaperautzari ere cutsi egin zion. Azkenean -1993 aldera-, Urbiarako bidea nahiko zakarra zenez eta bista ere galtzen ari zitzaiolako, bere borondatez utzi zuen lan hori.

12. Nolakoa zen

Urte askoan -hogeita hamar bat bai- ezagutu nuen Aita Villasante, hurbil-hurbiletik ezagutu ere: berarekin ibili, berarekin lan egin, berarekin adiskide arteko harremanak izan... Beraren benetako irudia kanpo-aldera ematen zuena baino aberatsagoa zen, "ñabarduratua-goa" ere bai, nolabait esateko.

Haren erlijioso-bizitzan izpiritu handiko fraidea zen Aita Luis, otoitz-zalea eta oso zintzoa. Zenbat erlijio-gai sakondu zituen bere idazkietan!... Ez ziren buruz bakarrik asmatuak; bihotzean zeramana eta bizitzan bizi zuena jartzen zuen paperean. Eta nola eskertzen zuen Arantzazuko Amaren ondoan bizi-zea! Hementxe aurkitu zuen berriro ama, eta berak piztu zion fraidetzarako bokazioa.

Maite zuen San Frantzisko eta frantziskotar biziera -oroitu *Anai Frantzisko, arreba Klara* liburuaz-. Bere janzkeran -abituz beti-, liburu-eruz aparte ezer gutxiz hornitutako bere gelan, dirua erabiltzeko moduan, jaterako exigentzietan... pobre bati dagokion portaera izaten zuen. Esanekoa zen gainera, bai Eliza Amaren eta bai Ordenako

agintarien aurrean: dotrina zuzenari eusten zion beti, eta goitik markatzen zioten bidean erabaki sendoz egiten zuen aurrera. Bihotz garbikoa zen, bestalde, eta umetzaroko errugabetasun hura bere hartantxe gordetzen zuen.

Giza izaeran apal ikusten genuen, hainbeste sari, titulu eta omenaldik harrobiderik ematen ez ziotela -Eusko Jaurlaritzaren saria Lan Onari, Eusko Ikaskuntzaren Humanitate eta Giza Zientziena, Erakunde honen kide izendatua, Bizkaiko Aldundiaren omenaldia...-. Engainurik gabeko xalotasunez jantzia agertzen zen, denentzat irekia, Euskaltzaindiaren unerik gogorrenetan ere (heriotzamehatxua bidali zioten behin!) bere barrua behartu gabe aurrekoarengana hurreratzen zekiena. Hain zuzen ere, hortxe zuen bere "armarik" onena oztoporik zailenak gainditu eta ateak irekitzeko. Bere apaltasunean gizon nolabait ausarta zen, ordea: hala erakutsi zuen soldaduskan, beretzat eta fraide laguntzat lantoki egokiak lortuz; behar zenean, edonora joateko prest egonez; Euskaltzaindian nola sartu aurkitu zuenean (1951), euskaltzainburu gisa (1970-1988) aurkari sutsuenak bakebidera ekarri eta bereganatzean...

La beti bare eta hurbileko agertzen zitzaizun; baina jenio bizikoa zenez, alditan eta gai jakin batzuei buruz bazekien eztanda egiten ere. Halakoetan, ordea, berehala itzultzen zen bere onera. Sentibera zen, kanporako keinuetan beroegi azaltzen ez bazen ere. Bere amaz oroitzen zenean (hil berritan ohean luze, haurtxo jaioberria alboan hilotz zuela...), gehiago ikusiko ez zuen bere aita gaixoaren azken agurra gogoratzean (balkoitik, "adios, hijo mío" esaten ziola), orduan begiak lausotzen zitzaizkion eta erdi-negarrean ikusten nuen. Adiskidezalea zen, besteengandik ordezkio gehiegiren zain egon gabe; ez zen, ordea, lagunarte zabalekoa, taldean galdu bezala egiten zen. Jasotako gutunei ia beti erantzun ohi zien, ahal zuen laguntza eskainiz.

Erabakiren bat hartzen zuenean, tinko iraungo zizun bere asmoan; bazekien, ordea, behar zenean inoren aholkua eskatzen ere. Norbaitengandik zerbait lortu nahi bazuen, leun-leun baina sarritan go-

goratuko zion eskatutakoa. Eguneroko lanerako, ez zeukan "gaur zer egin behar dut" pentsatzen ibili beharrik: plana aurrez egina izaten zuen eta hartantxe murgiltzen zen buru-belarri. Horren fruitua zen hainbeste urtetan idatziz ondu zuen bere obra zabal eta era askotakoa. Lanean taldekide izateko ez zuen gehiegi balio -etxean behintzat-, bere aldetik saiatzea gustatzen zitzaion, eta grazia egiten zion Plazido Mujika gizon txiki bezain langile erraldoi hark esaten omen zuenak: "Yo ando siempre sólo, como los grandes cetáceos".

Bere estudioetan murgildurik bizi zenez, nahiko oharkabe eta distraita zen. Ez zen gehiegi konturatzen jendeak begiratzen zion ala ez, hura berera joaten zen. Sarritan aski zuen bere barruko munduarekin, -grafologoak behinola esan zuenez- bere baitan gertatzen zen teatroan parte hartuz. Pasadizu bat kontatzen zuen berak, honekin lotua: Nobiziaduan zegoela, aita maisua kaperako erdi-ilunpetan nobizioei bere platika ematen; Villasante, berriz, bere ondoan azpitik barrez... "¿De qué se ríe su Caridad?. "Si no me reía...". "¿Qué se puede esperar de un novicio que se ríe de cosas tan serias?". Komentuko baratzean bere lagunari entzundako imitazio barregarriez oroitzen Villasante!

Buruz oso argia genuen Aita Luis. Gehienetan arazoan sustraira joko zizun, ur sakon gardenetan bezala sartuz. Bere pentsamodua ez zen gaiak korapilatu eta gero korapilo horiek askatzen jardutea. Begiak xaloki zabaldu eta gauzak diren direnean ikusi, horixe egiten zuen Villasantek, eta ondoren esaldiak berezko jario errazean ateratzen zitzaizkion lumatik. "Zuk gehiegi konplikatzun dituzu gauzak... Salvatore Mitxelenak bezala", entzun behar izaten nion inoiz.

Aita Luisek ez zuen bere bizitza guztian aginte-kargurik izan Ordenan. Norbaitek pentsa dezake, bere irakasletzan eta estudioetan hain sartua egonik, astirik ere ez zuela izan horretarako. Baina, egia esan behar bada, Jainkoak eman zizkion hainbeste dohainen artean, ez zion eginkizun horretarako gaitasunik eman, eta berak ez zuen sekula horren gutziarik agertu.

Bazekien "secretum meum mihi" arau hura gordetzen: izpirituzkoetan, zer esanik ez, baina baita mundu honetako zenbait gauzatan

ere. Politika-alorrean, isiltasun zuhurra gordeko zizun, kanpokoen aurrean eta etxean bertan ere bai. Gogorkeriazko jarrerak atsekabe handia eragiten zioten, arrazoi moral eta etikoengatik noski -horiengatik batez ere-, baina euskal gizartean herritarren arteko zatiketa sortzen zutelako ere bai. Maite zuen bihotz-bihotzez euskara eta euskal kultura; eta esan behar, gaurko autonomia-antolakundean nahiko zabal sentitzen zela, horretan ere beroegi izan gabe; “abertzaletasuna”, berriz, arrotz egiten zitzaion. Sarritan aipatzen zuen, Luis Mitxelena esaten omen zuen hura: “Gaztelania ere hemengo da gero!”

Euskarari buruzko bere jarreraren bazuen horrelako desadostasun antzeko bat. Garai batean, “*Cantabria Franciscana*” Probintzia barneko aldizkarian eztabaida bizian aritu zen aita Ignazio Omaetxebarriarekin. Honek, euskararen maitale eta landuzale izanda ere, gure hizkuntzaren erabilera etxe-barruko bizitzara eta lagunartera, folklore eta literaturara mugatu behar zela irizten zion. Villasantek, berriz, iritzi askoz zabalagoa zuen, alegia, euskarak gizarte-bizitza osora hedatu behar zuela, kultura eta zientzia-maila guztietara, inolako mugarik jarri gabe.

Komentuaren barruan, ordea, anaiarteko bizitzan ez zuen presia handiegirik euskara etxebarneko harreman tresna bihur zedin. Alde batetik, noski, heziketa guztia betidanik gaztelaniaz ematen zelarik, euskaraz jarduteko oso ohitura gutxi zegoelako; baina horretaz gainera, Aita Luis beldur zen nonbait anaien artean etenen bat sortuko ote zen, eta agian baliteke horren atzetik jokaera abertzalcegia sumatzea ere. Edozein modutara, eguneroko praktikan, oso erraz jotzen zuen gaztelaniara komentu-barruko bizitzan, banaka batzuekin izan ezik: Gandiaga, neu, anaia laikoren bat eta ez dakit besterik.

Villasanterentzat ohiko aisialdia mendian ibili eta egurastea izaten zen batez ere. Horretaz aparte, egunero emango zien ikusi bat egunkari batzuei, “Don Celes” agertzen zenari batez ere, euskarazkoentzat zaletasun handiegirik erakutsi gabe. Telebistarako ez zuen batere afiziorik, geure telebistarako gutxiago; eguneroko “te-

lediariora”, horixe bakarrik. Filmeren bat sekula ikusi bazuen, asko; kiroletan, hortxe bai, bere umetako Berrotabeña txirrundularia aipatzen zuen inoiz.

Harritzekoa bada ere, oso umoretsua zen lagunarte txikian, paseolagunarekin bereziki. Aipatu dut “Don Celes”-ena. Kafekoan eguneko haretxen txistea ikusi eta barre egitea zen bere poza, batez ere norbaitek txantxetan zirikatzen bazuen. Gero, berriz, mila kontakizun zekizkian, batez ere bere aurreko fraideenak, pasadizu xelebrea asko. Zenbat barre gozo egin ohi genuen geure ibilaldietan!

Idazmakina -esana dut- trebezia handiz maneiatzen zuen, baina hor bukatzen ziren haren trebeziak. Berandutxo ere bai ordurako eta, ez zuen ordenagailurako biderik asmatu. Irribarrez kontatzen zidan, soldaduskakoan Mosketoiaz tiro-probatan ari zirela, kabo hark esan omen ziona: “¡Qué poca maña se da usted, jovencito!” Ez zen, ordea, gaitasun falta horregatik gehiegi kezkatzen. Gelara joaten zenean, berak ezagutzen zuen ordenan paperak bilatzen asmatuz gero, nahikoa zuen aspertu gabe lanean jarduteko, eta nolako probetxuz jardun ere!

13. Azken aldikoak

“Maila” zelaien gaineko Arlepon izandako erorketaren ondorioz edo, Aita Villasante oroimen hutsuneak izaten hasi zen. Lehenengotan, ez zuen horrelakorik ametitu nahi izaten. Gero, berari ere irreten zitzaion noiz edo noiz, poltxikoan giltzak aurkitzen ez eta, “ez dakit burua galtzen ari ez ote naizen...”.

ibili zen medikuetan, eta pronostikoak gero eta ilunagoak ziren. Nik esaten nion batzuetan, “ea, kontatu neri halako eta bestelako; eragin egin behar diezu neuronei!” Eta berak: “Zerekin, baina, koi-lara batekin?” Idazlanen bat egitera ere animatzen nuen. Arantzazuko V. mendeurrena zetorrela eta, gure “frantziskotar Probintziako euskal idazleak” izendatu ziguten bioi gaitzat. “Nola banatuko degu gaia bion artean?” -galdetzen zidan. “Ia, zeu ere hasi pentsa-

tzen" -nik. Handik gutxira erabakita zeukan berak. Etorri eta esan zidan: "Nik Sorazuri buruz egingo dut nire partea".

Eta 'bai. Hasi zen nolabait Sorazuren 'lanarekin: 'haren "Autobiografia" hartu (edizio zaharra lehenengo, berberak egina zeukan edizio kritiko berria gero), eta hura euskarara itzultzeraz eman zen, era honetara hasiz: "Lehen edizioako hitzaurrea (Aita Nazario Pérez jesuitak egina). Irakurle jainkozaleek Ama Aingeru Sorazuren berri zerbait jakin zutenetik, haren santutasuna eta zerutar jakinduriaren berria zabaldu egin da", e.a.

Itzulpena aurrera zihola, bigarren koadernoan ja, "Autobiografia"ko atalak gaztelaniaz laburbiltzen hasi zen, eta azkenean hori ere utzi.

Gaixotasunaren lehen aldia nahiko argi eta bake onean eraman zuen. Oroitzen naiz, bere apaizgintzaren urrezko ezteiak zirela eta, 1995 inguruan egin genuen ibilalditxoaz: Gomiztegira bidean, Joanesen harizpea izan zitekeen hartan, geure mokadutxo hartu eta basoekin klin! egiterakoan, berak esan zuen: "Jainkoaren borondatea bete dadin!".

Gaitza aurrera joan ahala, eguna luze egiten hasi zitzaion. Zerbait egin behar eta, betiko ibilgrinari eutsiz, koroazioko kapera aldera ateratzen zen goiz eta arratsalde. Gaitzagatik kaminoan pare bat aldid erori zenetik, fraideren batek laguntzen zion beti. Egunak aurrera, ordu eta lekuen zentzua galduz zihoan gero eta gehiago. "Ez dakit zer egin... Hau da gosea daukadana!" Eta ohera jotzen zuen sarritan; gauean gero kontuak!

2000. urteko abenduaren 2an, larunbata, eguerdian abitua atzekoz aurrera jantzita agertu zitzaidan, eskuak hotz, kanpotik bueltatxoren bat eginda nonbait. Gauean, afaltzera ez zen garaiz azaldu. Etorri zenean, zertxobait jan zuen eta abiatu ginen denok eskaileratan gora errekreo lekurantz. Aita Luis ezinean bezala omen zihoan, eta gora orduko bertantxe erori zen lurrera. Jarleku batera jaso -artean bere sena galdu gabe-, apur batean bertan eduki, eta goiko gela batera eraman zuten gurpil-aulkitxoan. Han bi edo hiru buruko atake ("mi-

kroenbolia”) izan zituen berriro, “No sé si podré aguantar más”, esaten omen zuen berak. Sendagilea iritsi zenerako, azkenetan zegoen. Eta berehala berri samina: “Hil da Aita Villasante!” Gaueko hamar eta erdiak ziren. Ezin genuen guk ia sinetsi ere.

Hurrengo goizean Arantzazutik irratiko mezan iragarrita, berehala xe jakin zen lehen albistea. Laster Euskal Herriko irradi-telebista guztiek eman zuten hil-berria, beraren bizi-laburpen bat eskainiz. Doluzko berriaren oihartzuna gero eta zabaltzenago zihoan. Harrituta geunden gu. Bagenekien Aita Villasante “Arantzazuko fraidea”, euskaltzale eta idazle bezala, jende askok maite zuela eta mirespen handia ziola. Baina ez genuen uste hainbesteraino izango zenik.

Egun hori igandea zen, abenduaren 3a. Arratsaldean bisitariak etortzen hasi ziren, Aita Luis hil kaxan ikusi eta beren dolumina agertzera. Hurrengo egunean jende ilada luzea igaro zen komentuko hil-kaperatik: aurrez aurre eman nahi zioten azken agurra, hain ezaguna eta maitea zuten Aita Villasanteri. Hantxe zegoen bera zerraldoan, bere betiko frantziskotar abituz jantzita, ilea urdinxka eta bekainak beltz, sudurtxo puntan... bere “liburu” izan zuen gurutzeta eskuetan estutzen zuela.

Arratsaldeko bostetan ospatu zen hileta meza. Basilika jendez ondo bete zegoen, Euskal Herriko leku askotatik etorrita. Bertaratuen artean, Ibarretxe lehendakari jauna, Sudupe Gipuzkoako aldundi-burua, Mari Karmen Garmendia kultur kontseilaria, Bizkaia, Araba eta Nafarroako Diputazioen ordezkariak, Euskaltzaindia Haritschelhar euskaltzainburuarekin, eta beste asko, ezagunak eta ez ezagunak, euskaltzale eta euskaldun arruntak...

Ospakizun-buru Aita Joan Telesforo Zuriarrain Santutegiko goardianoak egin zuen, Elizbarrutiko Joan Maria etorri ezinik, ondoan Karmelo Etxenagusia jauna, Bizkaiko gotzain laguntzailea, zuela. Berauen inguruan, 80 bat mezaemaile: frantziskotar, beste erlijioso eta herrietako apaizak. Hitzaldian bihotz-hunkituta gogorarazi zigun aita Telesforok fraide apalaren irudia:

“Lehenengo hauxe esango nizuke: Denak maite genuen fraide bat hil zaigula. Komunikabideetan eduki duen oihartzunari begiratu besterik ez dago zenbateraino miresten genuen jakiteko. Benetan maitagarria eta miresgarria zen Aita Villasante...”

Gizon handia eta xumea batbata, jakintsua eta apala, langile bizkorra eta dohanekoa, bakardadea maite zuena eta taldean atsegina, euskaltzale suitsua eta aniztasuna errespetatzen zekiena eta bere inguruan elkartasuna sortzen zuena. Fede sendoko gizona eta Jainkoarekiko harremanak zintzo gordetzen zituen. Jauna bere bidera atera zaio Abenduaren hasieran. Goian bego. Halaxe espero dugu..."

Hileta-mezaren ondoren, kantuz eta prozesioan, komentuko kanposantura zuzendu ziren mezaemaileak Aita Luisen hilkaxari lagunduz, honen jarraian segizio ugaria zihola. Hilobiratu aurretik, Aita Zuria-rainek ohiko otoitzak egin zituen, jendea adi-adi eta aurpegi triste zegoela. Gero Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariordeak esan zituen hitz batzuk bihotz-zirrarak hartuta -18 urtez aita Villasanteren lankide estu izan baitzen eta beraren oso adiskide-, eta zenbait dolu-minezko telegrama irakurri zizkigun. Azken agurra emanez, Lizaso, Lazkano eta Azpillaga bertsolariak egoki osatu zuten beren lana.

Hileta-ospakizuna amaitzera zihoan. Aita Villasante zenaren frantziskotar anaiak eta beraren adiskide ugariak Andre Mariari zuzendu gintzaizkion kantuz: "Zure bihotzak, Ama maite, gorde gaitzala zerura arte...". Zalantzarik gabe, Villasanteren Andre Maria-zaletasuna ezagutzen genuenontzat, hitzok luzapen besterik ez ziren, Aita Luisek aspalditxo hain ederki komentatuak zeuzkan Etxepareren hitz hauen luzapen gozo:

O andere exzelente, ezein pare gabia,
salbatuietarik nizan egidazu grazia.
Zuri gomendatzen nuzu hila eta bizia,
neure gorpuz eta arima eta dudan guzia;
othoi, behar ordueitan zu zakitzat balia
eta, othoi, zuuk goberna ene bizi guzia.

Atsekabez baina itxaropenez ere beteriko egun haietan, hainbat telegrama heldu zitzaizkion Arantzazuko frantziskotar anaiarteari, erakunde gorenek igorriak batzuk, beren samina eta esker ona azalduz.

Joan Maria Donostiako gotzainak honela zioen Arantzazuko Aita Nagusiari zuzendutako gutunean: "Aita Villasanteren eriotzaz ikututa gagoz as-

ko Euskal-herrian. Bera izan da euskerarentzat bidesortzaile ta bultzagile apartekoa. Zor aundia dauzagu euskaldunok. Argitasunez eta eroapenez jarraitu eban bide aldazgorakoa... Bere ekintza guztiak, bere prailletza gitxitu bearrean, aunditu eta sakondu egin eben. Benetan prantzizkotar bat izan da: apala ta otsana. Gizajakituria ta Jainko jakituria beregan ondo ezkondu ziran. Jainko Aitaren altzoan biak sakondu al izango ditu eten barik...".

Gemika-Lumoko alkate jaunak mezu hau bidali zuen: "Aita Luis Villasante, euskaltzale, Gernikako arbolak sufrituriko sarraskiaren lekuko eta gure auzokide. Euskeraren enborrak hor irauango du berak sustraituriko lanari eskerrak, bera baitugu eredu eta bide".

Ajangizko alkate jaunak, Luis Villasanteren jaiotagiri ofizialaren kopia egiaztatua erantsiz, bere gutunean dolumina agertu eta hau gaineratzen zuen: "... Gure hizkuntza bultzatu eta bateratzeagaitik egin zuen lana parebagea izan da eta euskaldun guztiok beti izango dugu izugarritzko zorra pertsonai honekin... Jakin ezazue euskaldun guztiok, ajangiztar guztiok oso harro gaudela tamainako pertsonai bat, langile izugarria eta pertsona hobe, gure herritarren artean izateaz eta gure pertsonai ilustratuen artean beti ere toki berezia izango duela".

Xabier Iratzeder Belokeko beneditar eta bere adiskide minak, hileta ogetxoan idatzitako papertxo hobetuz, otoitzezko mezu bat bidali zion gure frantziskotar anaia zintzoari. Eskari hauxe geure eginez amaitu nahi dut saiakeratxo:

"Aita Villasante
Kortabitarte,
gutaz orroif zaite
zeruan urtez urte
denak zu-ganatu arte.

Goiko izarrak beite
euskal-anaiez bete".

Jose Antonio Gandarias frantziskotarrak Luis Villasante fraide frantziskotar eta adiskideari buruz idatzitako "Luis ene lagun mina" lan oraindik argitaratugabetik ateratako zati aukeratuak.

Oroitzapenak

Umezaroa

Luis, 1920ko martxoaren 22an jaio zan Erreterian, Ajangizko auzoan (Bizkaian); eta ni, urte berean, uztailek 22, Gernikan (Portuko kalean, San Joan ibarran); baina laster, Luisen portaletik berrogeita hamar bat metrotara, ibaiko zubiaren beste aldera, Gernikako lehenengo etxean bizitzera etorri gintzazan.

Ibaiak, beraz, banandu egin ginduzan arren, hala ere, guk horrelakorik ulertu ez, eta gure artean mutiko-talde estua osotu genduan, ibai-ertza bateko eta bestekoak alkaturik, auzoan nahiko ospetsu: Patxikito, Seberito, Migelito... Gure betiko talde-lagunak.

Patxikitoren aita, "Txautxi" ezizenez, aulestiarra, Erreteriarra lanbidez, errementari eta perratzailea zan, eta Luisen familia bizi zan etxeko ugazaba. Etxe honen atzealdean, patio zabal eta ederra egoan, Erreteriarriko errekatxoaren ertzean: patio ireki eta zabal hau zan gure sarritako entretenimendu-leku: izan ere, bazan han non eta zertan jolastu, bazan tresnamendurik pila, aparailu, ohol eta burdin-zatirik zenbatgura. Askotan hortxe gure mutiko-jolasak. Bestela, taldeko bakotxa bere tokitan eta erara. Ni, Gernikako eskola publikoetan; Luis, barriz, gernikar izan ez, eta Agustinoetan bere ikasketak hasi zituan, baina ordaindu beharrez.

Gernikako goi-mailako jendea, ibili ere, ebilen ikastetxe horretan.

Eta ez dakit horrengaitik ala, bederatzi urteko zalarik, bertan gus-tura ez ebilela, behintzat Luis ikatetxe horretatik Juan Ansotegi mai-su partikularrak antolatutako eskolara hasi zan. Eskola hau "El co-jo" izeneko aldatzan kokatua egoan (herrena baitzan maisua).

Egia esan, Agustinoak goi-mailakoak ziran: frontoi, futbol-zelai ederra, patioa kirol-saioetarako, etxe-inguruan; eta etxe-barruan, ikasgelak eta maisuak ondo prestatuak. Nik aukera izan neban ikas-tetxe hau barrutik ezagutzeko. Ikasketa ofizialak ez ezik, ikastetxe honetan, Herran familia aberatsa diru-laguntzaile zalarik, domeka goizetan katekesia ere moldatua egoan bertan. Amak laster hartara joateko. Hau dala-eta, bertako ikasleekin beste guztiok ere izaten genduan hango saioetara sartzeko aukera, batez ere, pelota eta fut-bol-partiduak jokatzen zirenetan. Bazan, izan ere, bertan ekiporik, izenez behintzat harroak eta arranpaloak: "Trueno", "Relámpago", "Rayo" eta. Gu pozik joaten gintzazan futbol-saioak ikustera; batez ere, Luisek jokatzen ebanetan. Han gengozan gu txalotzeko prest, "Hori!", "Aurrera!", "Ekin!" oihuka. Eta gure barreak, garrasiak eta txilioak Luisi baloia joaten jakonean. Baldarragorik! Gu barrez leher-tu beharrean.

Gure taldean, (entzunak entzunda, esatera noa), ez genduan eus-kara besterik egiten. Gaztelania, eskolan, eta Agustinoetako kateke-sian domeka-goizetan, eta arratsaldetan, Andra Mari parrokiako ga-rizumako katekesian, azken honetan euskaraz eta erdaraz nahasian. Ni -hiru urte-edo nituala-, aitarik bako umezurtz gelditu nintzan. Luis, ostera, sei urte inguru eukazalarik, amarik bako umezurtz. Gu errentari bizi ginen. Etxea "aduaña" zan. Udalaren izenean, Gerni-kako merkaturako salketaren postua ordaindu izatearen ardura eu-kan. Gure amak, alargundu zanean, aitaren lanpostu hau hartu eban, familia aurrera eroan beharrez.

Luisen aita, ostera, pentsioduna zan, Kubako gerran herren geldi-tu zanekoa: euki ere, diru eta komertzio-arazoetarako sen berezia eukan. Semeak ez, horraitino. Aita Burgosko Cadagua de Mena jaio-

territik sarritan Bilbora etortzen ei zan. Alargun egoan, seme bakarra eukalarik, Jose Gonzalo izenekoa. Eta Bilbon ezagutu bigarren emazte izango zan Luisa Kortabitarte, gure Luisen ama: aulestiarra. Eta ezkonbarriak Errenteriara etorri ziran bizitzera.

1926ko uztailaren 17a

Egun tristuraz gogoangarria! Gu, oporretan, landan jolasean. Eta askaria hartzeko ordua zala eta, etxera abiatu gintzazan. Eta Luise-nera heldu, eta ateetan andra batek askaria emon, eta jolastera joateko. Zerbait "raro"rik igarri bai, baina joan gintzazan olgetara, beste barik. Eta... orduantxe, erdiminetan, Luisen ama eta umea hil!!!

Handik laster, Aulestiatik, Bizenta Kareaga lehengusina etorri zan Errenteriara, amaren hutsunea betetzera. Eta bai ondo bete! Luisek ez zituan bizitzan ahaztu bere amaorde honen maitagune lastana eta maite-erakutsi ederra!

Bokazinoa

Hamaika urte bete genduzanean, guri bioi bizitzako aukera nagusia gertatu yakun. Niri San Pablarena yatort orain gogora: "Bai aztergatxak Jaunaren erabakiak, eta sumaezinak Haren bideak!" (Erm. 11, 33). Luis-ek eta biok inoiz gero honetaz berba egin genduan, batez ere bokazinoaz hitzaldirik-edo egiten euskuenetan. Luis-en gitxi-gorabeherako burubidea: "Nire aitak zer egingo etxean, ni eta arreba, mutil-neska koxkor ginelarik? Erabakia zein, eta bata fraileetara, eta neska moja". Nagusia Elgoibar-era ezkondu zan. Nire pentsakera ere, beste horrenbestekoa: ama neban alargun, eta aita zanaren lan-postua, "Aduana"-ren ardura, hain zuzen, amak berak hartu eban, eta hantxe jendearkein ekinean, biziari aurre egiteko, lanbide honi eutsi eutsan zintzoro. Askotan esaten euskun amak: "*Lau zinien: neska eta hiru mutil: danok, otzara baten sartzekoak*". Etor-kizuna, beraz, ilun! Nora jo? Horregaitik dinot: "Jainkoaren asmoak nork igarri?".

Arantzazura

1931. abuztuak 18. Zenbatetan Luisek data hau gogoratzen eustan! Egun honetan, bada, "aduaña" zubi ondoko gure etxe aurrean gelditu zan autobusa. Osaba frailea eta gurasoak alkar agurtu, gure baul eta maletak autobusean sartu, eta osaba frailea eta Luisen aita kokatu zirala, eta Luis eta biok gure aulkietan, motorra martxan jarri eban txoferrak. Nire ama autobusaren ondoan guri agur egiten. Egia esan, ez nintzan momentuaz orduan asko konturatu. Menturazalea edo ni? Ama, bai, negar-arpuloak begietan hatzamarraz lehortzen; baina ni "beste mundu" baten murgilduta, antza danez. Eta azkenik "Agur Erretereria! Agur, Gernika!" Eta Arantzazurako bidean. Erdi berbetan, erdi kanpora begira ginoiazan, zer etorriko artegaturik edo.

Arantzazun

Eta heldu gintzazan. Eta gu biok mundu barrian murgildu! Biok inoiz baino alkartuago! Apurka-apurka hurreratu jakuzan batzuk. Luis eta biok genbiltzan alkarrekin. Beti legez, gure artean euskaraz egiten genduan. Eta behin, honelakoan, hurreratu jakun mutil altu bat, eta bat-batean bota egin euskun aurpegira: "¿Qué euskara habláis vosotros?" Luisek geroago, bere liburu baten, idatzi eban: "Allí padecimos el encuentro de los dialectos!". Gu biontzat kolpe ikaragarria! Non gara? Nora etorri gara? Inoiz baino isolatuago gu gizajook! Oraindino gaur ere ezin izan dot ulertu, zelan moldatu izan ginen biziera barri hartara!

Aurrerantzean, behintzat, agur gu bion arteko euskara! Gure artekoa erdara hutsean hasi genduan. Heziketa, hatan be, erdara hutsean zan! Eta horra orduantxe, gure umetako hezi-bizierari eta kulturari agur egin beharra izan genduan. Noiz arte? Zenbateraino? Hara. Ama ni bisitatzeraz etortzen jatanetan, erdaraz egiten neutsan nik, nahiz eta amak niri euskaraz berba egin. Halakoan, ama behin erdaraz hasi jatan, eta nik barre egin neutsan okerra esanagaitik. Amak, orduan, leun baina zorrotz erantzun eustan: "*¡a! Hasi gaitzean euskaraz, ia nork egiten dauan hobeto!*".

Orain, bizitzaren tontorretik, ibilitako urteen bideak buru-bihotzetan irauli eta irauli, norberaren barneari halako susmorik jaulkitzen jako: "Zenbat aukera, eta eurok zein desbardin gerta leitekidazan bizitzan!". Horra behintzat nireak!

Arantzazun, humanitate-ikasketak, hiru urtetan, burutu genduzan. Musikari, hala ere, aparteko errespetua gordetzen jakon. Muskarako, hain zuzen, Luisek ez eukan "karisma"rik. Eta horregaitik, basilikan "beretter", aldarekoei laguntzeko liturgiako zeremoniak ikastera aukeratua izan zan.

Forua

Arantzazuko Amaren bederatziiurrena amaitu eta hurrengo egunean, hiru urteko Humanitate-ikasketak burutuak izanik, gure orduko kurtsokideok aldatu gintzazan Forura (1934ko irailaren 10-ean), Humanitate-ikasketan azken urte bi egiteko asmotan.

Arantzazun, dakigunez, arduradunaren babesa gozoro irabazi eban. Baina Forura aldatu gintzazan. Eta hemen, arduradunak bestelakoak izan.

Bestetik, Foruko barne-giroa askoz ere nasaiagoa zan, nabarmenki sumatzen zan hau. Arantzazun bazterturik egonak -erdara gitxi-koak eta barne-giroz eta kulturaz desbardinak, eta horregaitik ikasgelatan atzeratuenak kokatuak zirelarik-, ordurarte, beraz, "basati eta landugabetzat apaletsi izanak", zer esanik ez, bizkortu egin ziren, eta eskubide egokiz indarbarritu, Foruan askatuago curen burua ikusirik. Horra bizitzatik ikasbidea.

Luis, ostera, "erdarazale" amorratutzat hartua, eta euskararen arbuizatzaile eretxia, baztertua izan zan. Baina mutila bizkorra izan, eta giroa horrela aldatua ikusirik, latin, greko eta erdal literaturaren irakasle zaneke Ignacio Ajuria beraganatu eban. Inspektoreak, biak euskaldunak, oso "enpatikoak" ziran, eta eurekin ederto moldatu zituan hartu-emonak. Urte bi honeek, oro har, Luis-entzat aberatsak izan ziran: bazterketa hartatik gogo handiz itzuriz. Izan ere, frogaa

tzat, hor dira, Luisek, 18 urtean euskaltzainburu zalarik, jasan behar izan ebazan eraso-aldi gogorrek eta faltsukeriaz beteak, berak nagusitasunez eta gogo-adorez eroan izanak.

Salbatore Mitxelenak, ordea, alderantziz izan zuen bere zorzea Foruan. Bi honeen Foruko bizi-esperientzia pentsagarri benetan! Bizitzako bideak zelan aztertu behar doguzan ikasteko. Salbatore, izan ere, Arantzazun, inor izan bazan inoizko mesprezios erabilia, berau izan zan, oso baztertua. Mitxelenak berak hor nonbait, beste testuinguru batean, dioenez, “‘kathama’, euskal erru guztien higuina eramane behar zuen hilgarri etsia”, gertatu zan. Zenbateraino? Gainerako ko-lejial guztioi berarekin ez ibiltzeko aholkua emoteraino. “¡Váyase a casa!” berari esateraino.

Dana dala, Mitxelena Forura etorri, eta, Arantzazuko gainerako “kathama”tuak legez, oso estimatua izan zan. Eta hara, gerokoan, euskal olerkaririk handienetakoa suertatu.

Gure ikasturtekideok, Foruko laugarren eta boskarren Humanitate-urteak (1934-1936) burututa, 1936ko uztailaren 17an, etxera, familia, bialduak izan gintzazan hamar egunetarako, familian Nobiziadurako “arreo” prestatu beharrez. Nik lagunci, hizketaldietan, entzun ohi deutesdanetan: “Gu ikasturte berekoak gara”, zerbait euren bizitzako zati apartekoren bat, kutunagoa, aitatzen dabela bururatzan jat. Ikasturtekoa izate hori bizi-lokarri bereziaz alkartzea lako baillitzan; eta izan, halantxe da. Ikasturtekoak sentipen estuagoz alkartuagoak, erkidegoak, norberaren bizitzan partedunagoak bailliran. Luisek eta nik, zer esango? Biok honelakorik gitxi!

Gudu zibila sortu (1936ko uztailaren 18a)

Begira. Etxetik Arantzazurakoan, 1931an, hatan be, Errepublikaldia suertatu zan. Eta etorkizunari beldur edo, urte hartan ikastetxerako izena emondakoen erdiak ez ziran Arantzazun agertu. Horrela, gure ikasturtea kopuruz eskasa eta kaxkarra gertatu zan hasieratik bertatik.

Hau ez ezik, gero, Foruko ikastaldia amaitu, eta Zarauzko nobiziadura joatekoan, Francoren matxinada jazo. Nobiziadurako eguna, 1936ko Uztailaren 27a aukeratua egoan. Barriro, beraz, menturabideetan sartuak gu, gure aukerak aldrebestuak izanik. Gernikan, Nobiziaduan sartzeko epearen ezezkorik guk hartu ez, eta biok, etxean dana prestatua geunkala eta, gure gauzak hartu, eta Luisen aitarekin, trenez, Zarautza joan gintzazan, nobiziadurako asmotan. Baina lehengoa: gainerakoak bildurrez etorri ez. Herri-giroa, izan ere, ez baitzan bat ere gozoa, baretsua. Irun aldetik, gerra-hotsa; guganaino heldutako zurrumuruak, baltzak: hilketak, elizaren bat sutan, kainoi-dunbadak hurre entzuten zirala. Geroa, beraz, ilun. Zarautzen, nobiziadua amaiturik, aurreko ikasturtekoek frailegintza-ospakizuna noiz eta zelan egingo zalantzan.

Gu biok han geldi: abitua hartzerik ez, eta nobiziadu-urtea hasterik ere ez. Eta halakoan, arduradunak deitu eta esan euskun, egoera oso larria zalarik, eta zer gertatuko inondik inora ez zala argi ikusten, eta fraile-batzarraren aholkuz, onena eta seguruen gu biok barriro etxera bihurtzea izango zala. Eta halantxe: deitu egin genduan Gernikara, gure etxeetara.

Gernika-Erreterian barriro

Gure bizimodua eratu behar, honela edo hala. Eta hasi gintzazan gure plangintzak egiten. Luisi ibilaldiak gustatzen jakozan asko. Eta hainbat arratsaldetan, inguruko mendi eta herrietara egiten genduzan arratsalde osoko ibilaldiak. Aixerrota (Kosnoaga), Burgoa, Ereinozar, eta baita Urdaibaiko herrixkatara: Kanala, Laida, Antsora, Laga, Elantxobe ere, Sukarrieta, Mundaka eta baita Bermeo (trenez bueltarakoan).

Zapatu-domeka zoragarriak izaten ziran, izan ere, gureak!

Harik eta Luisek, irailean, aitaren aholkuz, bere anaiordearen bulego-postua Gomeza gaileta-fabrikari hartu eban arteraino. Jose Gonzalo anaiordea soldadutzara deitua izan baitzan, eta Tomas Gomezak Iparragirre kalean eukan gaileta-fabrikari bulegari, haren ordeaz, sartu zan Luis.

Orduan nik neure eguneroko jardunaldia, goiz-arratsalde, Luisen la-

norduen barruan, neure kasa antolatu neban. Goizetako betiko meza-tan jarri nintzen mezak erasoten, sakristian laguntzen, San Joan elizan nahiz Merzedeko komentuan. Eta gero, goizaldiak, sarriago etxean liburu interesgarriak gozoro irakurtzen, igarotzen nebazan.

Bonbardaketa (1937ko apirilaren 26a)

Harik eta apirilaren 26a argitu zan arte. Astelehenez Gernikan, merkatu-eguna. Baina egun honetan udalak ezezkoaren deia egin eban. Salerosterik izan ez arren, betiko "baina": Harako baserritar batek erantzun ebanez: "Baina Gernika da eta!" Alkargunerako aukera!. Astelehen hartakoa, hala ere, odoltsua, sutan gorria gertatu zan.

Arratsaldeko hiru terdiak inguru. Haginetako minez nengoan ohean. Eta non entzuten dodan geure kalean, San Joan kalean, hain zuzen, berrogeita hamar inguru metrotara, bonba-leherketaren dandada dardartia. Hegazkinak ia egunero ikusteak, euren motor-zarata hainbestetan entzuteak, lantegietako adarraren arrisku-hotsek, edo Aixerrota mendiko bolanderen tiro-leherketek, edo Andra Mari elizako kanpai-soinu arinek, ez euskuen jadanik bildurrik sartzen, ia normaltzat hartzen baikenduzan. Baina arratsalde hartan, bonbaren eztanda bortitza izan zan, eta geure kalean gainera! Ohetik arrapaladan jagi, eskuetara hurre neukan abrigoa lepo gainera bota eta eskilaraz behera laster kalera urten, eta Patxikitoren etxe-portaletik zehar, patioz aurrera Errenteriako errekaen ertzera, ibarrera, heldu nintzan.

Zoritxarra! Orduantxe gainean, hegazkin baltza. Halakoan, goitik txistu zoli heriogarria, gero eta zorrotzagoa! Gorputza luze lurrera, abrigoaz burua estalduaz. Eta handik hogeiren bat metrotara, bonbaren dunnun! leherketa bildurgarria, lurra dardaratan ipiniaz. Niri basatzea, kaskoz nahasturik, heldu jatan. Lepotik lur-pusketa zikinok astindu, zutundu, begiratu, eta ez urrun, sutan bonba-zati batzuk. Emon neutsan arrapaladari, eta Ajangizerako errepedearen beste alde-
ra igarota, Oleskorako bidean ninoiala, non babatzaren erdian beste bonba bat sutan erretzen. Abiaduraz, heldu nintzan Olesko taberna-

ren albora eta Arratzurako errepidetik eskumatara muinoz gora. Burgoa mendirantz, igon, eta pinadi-barrura sartu nintzan. Hantxe, arbolarte, lur gainean luze egon nintzan arratsalde osoan etzunda. Jazar-hegazkin arinak ziran bildurgarri, hara eta hona, metrailadore-tiro-zaparradaz, tximistaren abiadaz bira-biraka ebiltzanetan. Gainera Gernika aldean jausten zireneko bonben burrundara entzun eta euren lehertzapena, lurraren dardaratan, sentitzen nebazan.

Ni, geldi, isil, luze...

Harik eta eguna iluntzen hasi sei t´erdietan edo, eta basoan herio-isisitasuna egin zan arte.

Zutundu nintzan. Eta pinadi-barruari begirada zabala emon neutsan: hainbat jende lurrean barreiatuta etzunik. Hasi ziran horraitino banaka batzuk zutunik jartzen. Alkarri begirada isilak, amets gaizto ondoko aurpegi itxurak danok, negarrik ez, barbarik ez.

Barriro pinadi-luzera begiratu, eta guztiak ez zirala zutundu oraindino, ohartu gintzazan batu ginen taldekook. Hantxe, ez urrun, neska bat luze pinadi-hegalean. Hurreratu ginen batzuk. Eta hasi gaiakoan: “Amaitu da...! Joan dira...!” Neska geldi. Beragana hurbildu eta batek leun-leun kolpekatu sorbaldan, baina geldi, hala ere. Orduan neskari heldu, eta aurpegiz gora jarri eban. Begitartea odoletan, eta bekoki ondoan tiro-zuloa. Hilda!!! Niri bizkar-hazurretik, goitik behera, dardara hotza! Zer egin ez genkian. Harago, gudari bi ikusi genduzan, osabide-tan: emakume bat bertan, besaburuan soinekoa apurtuta, hazurra agerian eukala. Eta gudari hareetako batek zorrotik gasa eta kotoi atara, zauria odol zikinetik garbitu, eta jodo-flaskotik bota eutsozan zauriaren luzeran tangadak, eta gero gasaz estaldu egin eutsan. Guk neska hilda-koaren barri emon geuntsen gudariei. Eta hartarako etorriko zirela bila.

Danteskoa, orduko ilunkada: laster gaba. Burua erdi galdurik neukan. Zer egin? Nora joan? Pinaditik errepidera urten neban. Gaba aurrera. Malosterantz jo neban automata, kontziente ezpainintzan legez. Heldu nintzan, heldu! Gernika aurrez aurre sutan!!! Kaleak su eta ke. Etxerik etxe su-mihin mugikorrak, balkoi-leihoetatik, amorruez luzatzen

eta luzatzen euren mizto errauslea, teilatu eta hormak kiskaliz, etxe osoa lurrera botatzeraino. Eta gora sugarra gaueko ilunetan, zerugoian erregaiezko geruza gorria, Gernika hiltzorian estaltzen. Ni hantxe luzaro, Malostetik begira, barrua garrazturik. "Agur, ene jaioterri! Horra nire umezaroa betirako erretzen!"

Horrela nengoalarik, Oleskoko ezagun bat hurreratu jatan: "Jose Antonio!" Begiratu neutson. Eta berak: "Ama -eta Oleskoko tabernan dagoz". Nik: "Mile esker!". Eta berarekin joan nintzan Oleskora. Eta bai: hantxe egozan, hainbat jenderen artean, ama, Milagros eta Sebero.

Gerra-erasoaldia bertan

Baina laster, barru giro txar, oker-behar eta artegasun urduria. Gure baserritik, aurrez aurre kokatua egoan eta dago Burgoa menditxoan; iruntzitara, Ajangiz, Gernika eta ibar zabalera guztia daukela. Eta horra tontorrean, urrun-ikuskinen bidez, ikusi milizianoak. Nongo asmotan edo? Beheko errepedean zehar, ostera, kamioiak gudariz beteta joiazan, Bilborantz edo, 'Burdingerrikoa' eraiki zaneke erresistentziaren gotorleku-sistamarako bidean beharbada. Milizianoak Burgoa tontorrean, zer egiteko? Atzerakada babestu?

Gu bai orduan dardarka. Laster baietz Francorenak heldu! Egun batzuk barru, izan ere, non agertu ziran militarrik. Eta honeek milizianoak menditxoaren tontorrean ikuskatu. Eta behingoan, baserritik hurre, kanoi txiki batzuk eta metrailadoreak tiro-zaparradaka hasi ziran. Baserrian gu urduri: batzuk leiho eta zirriskueta zaku, koltxoi eta ipintzeko arazo-lehian. Izan ere, erasoaldiaren erdian, gu. Gutariko baten bat, urrun-ikuskinenez, mendi-hegaletik gora, izkutuz izkutu, fusil-tiro-hotsean, soldaduak igoten ikusiz egon zan, gero berak esan euskunez. Eskerrak gerra-eskatima hau labur gertatu zala: laster egin baitziran soldaduak tontorraren jabe. Izan ere, gainera. beste aldetik, Zornotzatik eta, baietozan Francoren tropak mehatxagarri...

Gerra, beraz, gure inguruko lurraldetik aldendu zan nahiko. Askoz bareago gengoan orain. Eta gu ere joan gintzazan Gernikako honda-

kinak ikustera: gure etxea erreta guztiz kiskaldua, horma-zatiak zutunik erreak, ikatz bilakatuak, gainerakoa lur jota errauts eginik, teila, hari eta mukur nahasian pilotuak.

Baserrira bueltan gentozala, Maguna familiarekin topo egin genduan. Euren etxea, barriz, zutunik gelditu zan Errenterian. Alkarrizketan, eskeindu euskuen euren etxea, gure egoera jakinik. Guk, baserriko biziera nasaitzearren, han piloan bizi gintzazanez gero, ontzat hartu egin genduan euren eskeintza hau. Oleskoko jabe zintzoari, bada, gure esker ona bihotzez agerturik, Magunarenera aldatu egin gintzazan: bertan egun batzutarako asnotan. Arteetan, ahaleginak ipinirik, Busturiko Altamirako senideekin berba egiteko. Sollube aldean ziran gerra-eraso gogorak. Eta Seberok bizikletaz Altamirarako ahaleginak egin arren, arriskugarria zala eta, galerazo egin eutsoen. Hirugarrenez, hatan be, joaterik lortu eban. Izekorekin berba egin, eta bai joateko, konpontzerik izango zala eta. Eta halantxe, familia osoa baturik, joan gintzazan Altamirara (Busturia), izekoa bizi zan baserrira. Eta hantxe atondu genduan holan eta halan gure bizimodu barria.

Eta Luis, zer?

Apirilaren 26an, beste egunetan legez, joan zan Luis bere bulegoan lan egitera. Eta beti legez, eguerdian etxera, bazkaltzera. Baina hara, arratsaldeko hiru t'erdietan gitxi gora behera, bonbardaketa hasi! Laster ohartu zan Luis, hegazkinen oraingoan euren hondamen-arazo gaiztoa gogor burutzekotan etozala: hegazkinen joan-etorri sarriek, bonba-leherketa gogorrek, horixe erakustera emoten baiteutsoen. Ezin eikean, beraz, aita gaisorik etxean itzi eta bera bulegora joan. Eta gero eta gogorrago joiala bonbardaketa ikusirik, etxean ez egozala ondo, eta ez jakon beste urtenbiderik bururatu, han, etxeosteko patioan, errekatxo ondoan, Patxikitok eta jaso eben aterpera joatea baino. Eta halantxe, manta batzuk harturik gozoro lagundurik, eroan eben aita bertara. Hiru ordutan, hantxe! Gertera hau kontatzean, Luisek berbeta negartia erabiltzen eban. Gerrea krudela da benetan! Hegazkinen burrunba mehatxaria, Gernika aldetiko

bonba-danbada bildurgarriak, jazar-hegazkinen metrailadoren tiro-zaparrada zorrotzak entzuten, noiz eurena izango dardaratan.

Eta Luisek kontatu euskun, orduan erdi itsurik, egin eban ausarkeria bildurtzekoa. Berak ikusi eban, aita ez egoala ondo aterpe haretan, eta aulkia behar ebala eroso egoteko. Eta beste barik, babeslekutik urten egin ei eban, eta joan ei zan etxera aitarentzat aulki baten bila. Etxean sartu, eta hainbeste gauza ikusi ebazala, zer hartu ez ekiala, sutatik salbatzeko. Azkenik aulkia hartu, eta armairu-gainetik aitaren erlojua boltsikoan sartu, eta arrapaladan aterpera heldu zala. Arriskurik ikusi ez edo? Eta barriro bildurrez, aterpe hautserrez hartan!

Oro har, askotan etorri jat burura: gertaerak gertaera, baina halako hondamendi ikaragarri haren erdian, eta ez ebala Luisen familiak inongo minik jasan! Harrigarri!

Minutuak joan eta minutuak etorri, azkenean egun negargarri hau iluntzen hasi zan. Inguruetan isiltasuna egin zan. Eta aterpetik urten eben. Lehengo biziera joan zan! Non gagoz? Nora jo? Zer egin? Gernika, sutan! Euren etxebizitzara begiak zuzendu, eta lehiatetatik ke eta su. Ez egoan etxean sartzerik. Kalera urten, eta hara zorionez Gomeza ugazaba suertatu. Hau bere etxea ikuskatzera etorri. Eta zutunik aurkitu eban; bonbardaketa kiskalgarri hartatik han egoan osorik. Gomezak, Gernika hala ikusirik, Bilbora familiarekin joateko asmoa hartu eban. Eta gizon zuhur, konturatu zan halako gertaera nahasietan, ugazabarik bako etxea lapurketazaleen harrapakin gozoa gertatzen dala. Luis eta aita gaisorik, nora joan ez ekiela, bulegoan langile fina izandakoa gogoraturik, Gomezak bere etxea eskeindu eutsen momentu garratz hareetan. Bai eskertu eskeintza Luisen familiak.

Baina zer janik ez, ezta dirurik ezer erosteko. Eta soldaduen errantxutik eskatu eta lortu. Hala ere, aita esne hutsez bizi, eta Luis baserrietara joan eta ekarri. Niretzat beti harritzekoa izan da ondoko hau: Luisek beti erdi-isilean gorde izan zituala sasoi honetako bere bizitzako gertaera mingarri honeek.

Gerra-ostea

Gerrea igaro da gure lurraldetik. Sutea, errautsa, hondakina nonnahi. Guk etxerik ez, limosnaz lo eta jan. Bizitzari begira, noraeza, plangintzak eta bideak apurtuta, zeri heldu ez, "airean" etorkizuna. Hara eta hona, azkenean Altamiran, izekoren baserrian, besterenetik bizitzen. Luis ere, inoren etxebizitzan eta eskean jaten.

Eta hara, maiatzaren 19a. Eta non agertu ziran Altamiran osaba frailea eta Arantzazuko fr. Bixente kamioiagaz, Foruko eta Bermeoko komentuetara laguntza ekartzera etorriak. Gernikan Luisekin egon ei ziran. Osaba gurekin gelditu zan, fr. Bixente Bermeora joan artean. Osabak niri deitu, eta ea frailetarako asmotan nengoanentz. Nik, baietz. Eta ama-osabak berbeta luzean egon ziran. Zerbait jakin neban gero: arreoaren arazoa zala edo. Senideen artean, limosnaz soineko eta gainerakok eskatu, eta inoren emoitzez nobiziadurako maniatu nintzan.

Fr. Bixentek Bermeoko komentuan bere mandatuak eginda gero, eta han Pedro Anasagasti gure ikaslaguna harturik, Altamirara bueltatu zan osabaren eta nire bila. Gernikan, Luis prest egoan: barrero alkartu gintzazan. Eta Luis, aita gaisorik Bizentaren ardurapean itzirik, kamioian atondu zan.

Gernika zanari agur egin geuntsan: gure umezaroa hantxe erre zan.

Fr. Bixentek Debara eroan ginduzan. Donostiako trena Debaraino baitebilen.

Eta azkenik heldu ginen Zarautza. Horra gerrak banandutako hiru bizkaitarrok Foruko gure ikaslagunekin batera. Han ikusi genduzan gure ikasturtekoak "fraileki", abitu eta guzti. Jakin genduaneez, 1936ko urriaren 3an Zarautza etortzeko aukera izan ei eben; gu, artean, gerrafronteak galerazorik, Bizkaian gelditu beharra izan genduala.

Nobiziadua

Solastartean, gure aspaldiko lagunekin alkarturik, bagenbiltzan bertan hara eta hona. Han izan zan itaun-galdera zaparrada jakinminez. Prasadunoi gure lagun abitudunak itaunka Bizkaiko gure bizimoduaz, hango egoeraz: ea jatekorik geunkanentz, ea Foruko ikastetxe-komentutik

fraileak kanporatuak izan ziranentz, ea frailerik preso eroan ebenentz. Eta ahoa zabalik, belarri luzez, guri entzuten. Guk erantzunez, egunero geunkeala mezatarako aukera, astero joaten gintzazala Forura fraileekin egotera, aita Ajuriarekin berbetan luzaro egoten gintzazala. Egiatan, ikastetxekomentuak bahituran hartuak izan zirala, errefuxiatuen atarpe eta egoitzarako; baina atarirako barnebidea, sakristia eta eliza fraileentzat gorderik.

Gure lagunak adi-adi, adurra dariela entzuten: gu, egia esan, pixka bat harriturik gengoan. Gero, batek esan eustan, harrigarria gertatu izan jakela gure kontaketa. Bizkaiko egoera czinaz, biziera baltz, marapilotsu, gogor, gaiztoaz, batez ere gizarte-arloan, jan-cdanetan, eliz-ospaketatan, erlijino-arazoetan eta, hainbeste gauza entzunak zirela eta. Gure kontaketaaren aurrean, begi-ahoa zabalik gelditu zirela.

Fraile-biziera

Eta hurrengo egunean nobiziadu-urteari emon geuntsan hasiera. Abitua hartzeko, prestaeratzat astebeteko gogo-jardunak izaten ziran. Aita maisuak berak gidatuak izanik, ordutegi nasaia prestatu euskun, barne-deskantsua behar genduala eta.

Baina lehenengo platikaren hasierak harriturik jarri ninduan. Kaperan, hirurok eta maisua, erdi ilunetan, kortinek leihoak estaltzen zituala: "Hermanitos! Es un gran paso el que van a dar dentro de unos días. Pero ¿no habrán venido a esta Casa como refugio, porque ya no tienen casa allí en su pueblo?". Esana sartu jatan zorrotz burubihotzetan. Gero, Luisek eta biok: "Honelakorik esan daiteke? Inoiz izatekotan, oraintxe behar gaitue etxekoek-eta!".

Gero, ikasturtekoekin hizketan, esan euskuen: "Hori maisuaren estrategia da. Hainbestetan erabiltzen du horrelakorik, platikak edo azalpenak ematean, gure erreakzioak nolakoak diren jakiteko!" Eta bai. Halaxe zan, gero egiaztatu genduan. Nobiziadura aurretik, erdi jokoan, esaten euskuezan aspaldiko frogak edo.

Gogo-jardunak amaitu, eta heldu zan abitua hartzeko eguna, 1937ko maiatzaren 29a. Orduan, guretzat bizi-kronpromezu sakona: bar-

ne-zentzuna bizitzari emoteko. Aldean geroian txakea kendu, eta abitua jantzi, hau da: honetaz biluztu, beste honetaz janzteko, mundu gaiztoaz erantzi, Kristoz jantzi.

Maisu gogoangarria

Lehena, Bizente Urdanpileta, Bidaniako semea, Kuban luzaro bizi izana. Igaro-aldiko edo fraile-tankerakoa: alkarteko bizieraren arauetara zehatz emona, halako mistika berezitakoa, tolesbakoa, norbaitek zorrozkienez, esango leukeanez: “ona, baina besterik ez”, hau da, bere azalpenetan, teologian eta erlijioso-motibazino sakonetan ez hainbestekoa. Legearen letrari, ordea, zintzoro atxikia. Platikatan, beraz, diziplinari edo Erregelari begira lege-arauak gogora ekarrarazi izan ezik, berezkorik ez euskun ezer esaten.

Harik eta, Probintziako huteskundeak gertatu, eta, 1937ko abuztuaren 24an Castor Apraiz aukeratua izan Probintziaren gidari. Eta gure maisua ere aldatua izan zan, ordez Luis Zaloña izendatua izanik. Hau, bere bizitzan, aszeta zan, zehatza; haugaitik beharbada, ez eban, ordainez, ikasleen konfidantzarik irabazten; bildur-errespetua geuntsan, oster, nik behintzat. Beronek seriotasunez, zintzotasun osoz, bai bete eta guri eskatu diziplina, Konstituzino Jeneralen arauetara leial, bertuteak lantzen, Ordenako legeak eta usuarioak arretaz gordetzen; eta kanpo-bizieraren zulentasunari zehatz begiratuaz, etsenplu ona emon beharrez. Munduari buruzko eretxi pesimista aitazten euskun askotan, aspaldiko “*fuga mundi*” aholkatuaz; salmo-egilearen otoitza errepikatzen euskula: “*Averte oculos meos, ne videant vanitatem*”(118,37) = “*Gorde, Jauna, nire begiak, munduko huseria ikusi ez daien*”. Mundu berbak, Joanengan dituan hiru zentzu desbardinetatik, honek, haren Ebanjelioko lehen kapituluari agertzen dauana, hartzen eban bakarrik; sarritan, izan ere, halaxe orduan adierazia (1,10). Eta horri jarrai, kritikari zorrotza zan kanpoko arloan arauak betetzen ez ebezan fraileen kontra: abituaren erabilera, orrazketa fina, oinetako-sandalien ordez zapatak janztea zirela-eta; bardin, alkarteko ospaketarako ordui leialtasuna gordetzea zan beretzat

erlijioso-bizieraren oinarri. Obserbantzia deitua zan, izan, erlijiosoaren xede eta helmuga, hots, arauak eta orduak zintzoro betetzea.

Nik ez dakit, baina, nahiz eta garaia desbardina izan gurea, eta orduko gazteok gure barne-egitura bestelako eratarara moldatua izan, hala ere, guri emondako heziketa behintzat hainbat bizi-balioetasu-netarako egokia zala-ta, pentsatzen egoten naiz sarri. Gaurko psikologiak zerbait esango leuke horretaz. Orduko arau batzuk gaurko begien aurrean ez ete gizatasun-kontrako? Bai, beharbada! Ez ete pertsona bera, azken batean, heziketaren protagonista? Horixe! Eta guk azken hauxe ikasi gendualakoan nago.

Adibidez. Zarauzko baratzean paseo-leku ederra egoan errekreo-orduetarako. Han, taldeka aurrera eta atzera ibiliz, gure autugai, solasaldi, barriketa nasaigarritarako aukerak izaten genduzan. Arratsalde batez, han genbiltzala, maisuak Luisi deitu egin eutsen. Laster belarrira esan eustan: "Aitarena, baietz!". Joan zan. Errekreo-ordua amaitu, eta, ni ere kezkatu, joan nintzan Luisen gelara, eta ez egoan bertan. Geroago bera etorri jatan, eta oso triste: "Bai, aita hil da!", erdi negarrez esan eustan (1937ko ekainaren 7an). Nik behingoan: "Eta noiz edo zelan joan behar dozu?" Burua eraginez: "Enea. Nobiziadu-urtea ez ei dago hausterik, galdu egiten baita bestela eta barrero hasi beharra ei dago". Harri eginda gelditu nintzan. Esaidazue, izan daitekean honako hau eroateko bihotzik. Hemen itauna: "honelakoaren aurrean, pertsonak, zer?"

Soldadutza

Luisek soldadutzarako deia izan eban: 1938ko abuztuaren 31an. Eta Burgos aldera egin euskun agur: "Regimiento San Marcial 22"rako izendatua. Eta, hurrengo egunean, irailaren lehen, Pedro Anasagasti Iruñera izan zan soldadu deitua. Biak, izan ere, ziran urtearen lehen hiruhilabetekoak (urtarrilekoa bata, eta martxokoa bestea); eta ni, oster, hirugarren hiruhilabetekoa (uztailekoa). Nik, bada, ez neban deirik izan.

Barrero niri gogora Isaiasena: "Bai dirala aztergatzak Jaunaren bide eta asmoak!". Hiru izan gu nobiziadu osteko frailegintza egitean. Hiru-

rok soldadutzarako deituak. Eta bata, Pedro. Iruñera, uste dot "Regimiento América"ra; bigarrena, Luis, Burgos-aldera "Regimiento San Marcial 22"ra; eta azkenik, ni hirugarrena, data diferentean eta Herriberritik Oihartzabalekin batera deitua, eta ez dakit nongo zotzetara egina, baina ni Burgos aldera bialdua izan "Regimiento San Marcial 22"ra, Luisen beraren erregimentura, hain zuzen. Eta ez Pedro, ez eta Oihartzabal, Burgos aldera. Eta horra biok batera barriro soldadutzan. Nik ez dot sorginkeriatan sinisten!

Trenez heldu nintzan Burgosera. Tren-geltokian zain, Luis. Alkar besarkatu, eta soldadu jantzibarriaren gidaritzapean, "Santa Clara 26" gure moja klaratarren kaperau-etxean, Lukas Arizetak hartu ninduan.

Hona nire lehenengo eguna koartelean, eta abituz jantzirik. Joan ginen Luis eta biok. Nor laguntzaile bikainagorik? Aurrena, soldadu-jantziak hartzera, eta zorroan sartu. Eta gero, erregimentuko goi-bulegotara komandanteagana. Laster igarri neban han Luisen eskua. "¿Este es su amigo?". "Sí, mi Comandante!". "Y ¿sabe música? Pues, bien podría trabajar en la sección de la banda militar. Vea de colocarle allí". Igarri-igarrian Luisen leun-leuneko nire aldeko erreguren bat. Zer? Eta erregimentuko bandarako musika-kopiatzaile ni? Inoizkoa: barregarri!!!

Aurreko hau, Luisen izaera igartzeko egoki: beti adikor eta lagun. Hala ere, ez neban lanpostu hori inoiz hartu. Beste baten aukera izan neban, askoz ere seguruagoa, Luisek berak aitortzen ebanez. Hara. Burgosko gure fraile-komentutxoan (hobeto, moja klaratarren kaperau-etxean) Lukas Arizeta arduradunak egun hareetan hartu eban ostatzu fraile katalauniar bat. Ez jatort orain burura honen izena; baina bihotzez eskertzeko gizona, horrela beste barik, mesede egiteko prest agerturik. "Auditor de Guerra" (hitz biribila!) zanaren kaperau ei zan. Oso gogoz entzun eban eskabidea: "Auditoría de Guerra"ren bulegoetan lan egitekoa, kontzientziazko jendea behar eba-la, eta erlijioso egokienetakoa zala lanpostu horretarako. Eta hara, nik lanpostu segurua lortu "Capitanía General" eraikinean. Goizetan hiru ordu, eta arratsaldez hiru t'erdí. Gure laneguna, bada, iza-

ten zan: goizetan bakotxa bere bulegoetara joan, eta arratsaldeko lanorduak egin eta gero, barrero alkartzen gintzazan.

Koarteleko jatekoa nazkagarria zan. Eta derrigorrez jan beharra izaten zan. Hantxe, jantokian, begizuhur, alferrez bi gora eta behera mahaiartean ibiltzen ziran, jan genduanentz ikusteko, eta agintzeko. Baina legea hala, tranpa hola. Gehienok, platerera emondako hazurra eta salda baltza mahaipera botatzen genduan. "Txusko" opila bai gozoa! Hemen ere, Luis desbardin. Errregimentuko sukaldariek eroan behar izaten eben eguneroko janaria, azpil batean zopa edo katilutan, eta okela edo arrain platerean komandatearen goi-gelara honen on-iritzia izateko. Baina komandateak ikusi ere ez eban ikusten. Baina bai han adi-adi egoan Luisek. Eta halan, bazkari polita egiten eban egunero.

Zazpi pezeta t'erdi zan hilabeteroko gure alojera. Ederto baino edertoago niretzat. Izan ere, erreal batez erosten baineban "sardina zaharren" ogitarte gozoa. Dirutxoan zan, beraz, guretzat. Baina guk jai, batez ere fraileren bat Burgosera etortzen zanetan. Gure egoeraz errukiturik, emoten euskuen zeozertxo dirurik.

Intxaurbe, Orokieta eta Ozio

Ordurararte bi gintzazan Burgosen. Baina gure artaldetxoan ugaritu egin zan laster: beste hiru Burgoserako izendatuak izanik; horrela, bost izatera etorri ginen. Hona hiruek: Andres Intxaurbe, Manuel Orokieta eta Dionisio Ozio. Lehenengoa, bilbotar, eta hurrengo biak, donostiar. Intxaurbe, urdailetik gaiso, baina ez zan soldadutzatik libre gelditu: orduko gizarte-zerbitzuetarako baliogarri zala eta.

Gure etxean ez egoan ohe-kuxa bat besterik. Luisek erabiltzen eban; eta honek eskeindu eutsan Intxaurberik gaiso zanez. Gure gelako lurgaina hotza zan, zementuzkoa, hatan bere. Nik aspalditik zaku txiki batzuk zabalean josirik, zaku handi bat egin neban, eta barruan kapatxak zenbatgura sartu, eta koltxoi eder bat suertatu jatan, koartelekoak beste bai, behintzat. Soldadu-kapotea gainean zabaldu, eta lotarako prest. Baina orain kopuru-problema sortu. Hainbat lasterren, zaku bila ibili,

lehen lege zakuok josi, kapatxak han-hemen batu, eta zakuok bete, eta ederto, beste bi barriak prestatu nebazan. Zuek esango dozue: eta hirugarrena? Bada, ohe-kutxa lortu!

Burgos

Gure sasoiari, Burgos herri ederra zan, baina, gaurkoaren alde, ez handi. Bai arte zoragarriaren kutxa eta agertoki goren. Hiritik, hilometro t'erdia, Las Huelgas, Espainiako serora zisterarren monasteriorik ospetsuena. Eta hiru kilometrotara kokatua "La cartuja de miraflores": San Pablo zubitik, Paseo de la Quinta ibilbide zabalean zehar, Avila-ko Santa Teresak azken eraikitako karmeldarren komentua albora itzirik, Miraflores deituri toki gozatsuan jasoa agertzen da. Enrike IV.aren seme zan Joan II.ak bertan jasoriko jauregiak, testamentuz, kartusiarrei emon eutsezan, hantxe monasterio bat, Kartusia bat, hain zuzen, eraiki egien (1442ko otsailaren 24an): hil eta ezin izan eban amaitu. Baina gero, Joan honen arreba, Isabel la Católica-k, amaiera emon eutson elizeari; baina, nabekoa kartusiarren legeak agintzen eban izan arren, egin eban hain eliza eder eta egoki, ezen beste kartusiar elizetan ez baitauka honek, parerik. Datu historiko honek aparte, Luisek baeukan arrazoi berezirik, monasterio kartusiar hau bisitatzekoa. Miraflores-en, kartusiar anaia lege, bizi baitzan Aulestiko beraren lehengusua.

Arratsalde batez joan gintzazan lehengusu honi bisita bat egiteko asmotan. Ez genkian ziur, horretarako aukera izango gendukeanik, kartusiarren erregela oso estua izan daitekeela eta. Bertara heldu, eta Luisek ausarditsu ateko dei-kanpaiari leun eragin eutson. Eta agertu zan atezaina, eta gu biok, soldadu jantzirik, ikustean, irribarre gozoa argitu jakon begitartean. Eta Luis hasi zan berbetan: frantziskotar bi ginela eta monasterioan bere lehengusu bat bizi zala, ea berarekin egoterik izan eitekeanentz. Abegi-gelara sartu ginduzan; eta joan zan arduradunarekin berba egitera. Eta laster, non datorren lehengusuarekin berarekin. Nik neure kautan pentsetan, Luis barriro hemen betiko diplomatikoa, aurpegiz eta berba leunez!

Lehengusua, morrosko ederra. Gozoro agurtu alkar, eta atezaina aldendu zan. Eta erdi-isilean berba eginez, lehengusuak eroan ginduzan barrura. Monasterioa bera kokatua dagoan tokitik at, zabale-
ra ederrean, orube luze-zabala erakustera emon euskun. Baina guk biok monasterioiaren bizieraren barri jakin nahi genduala agertu geuntsan, eta bai. Aurretik, oso autonomoak dirala, eta isiltasunari inportantzia handia emoten eutsoela. Berari hauxe izan dala gehien kosta egin jakona, eta orduan ere barrua aztertzen eta aberasten ar-
dura ipini behar ebala, monje zahartxoak inotson lez.

“Begira, nik neure etxolara eroango zaituet; beste guztienak antzekoak diranez”. Gogo-zuzendaritzarako eta autortzako sakramenturako badira gela apartekorik. Biblioteka handia ere badagoala kontsultak eta egiteko, jantokia ere egun berezietarako, guztiok batera bazkaltzeko, nahiz eta irakurketa entzuten egon edo isiltasun osoan (orduan irakurtzen dira entziklikak, Elizaren eta Ordenaren dokumentuak edo beste interesgarririk ezer). “Bestela, autonomia pertsonala gure artean oso errespetagarria da”.

Eta korritura bat igaro eta bere etxolaren atea zabaldu euskun. Oinplanokoa. Lorategitxo bat aurrean, monje bakotxak gogara landu egian; laster, egur eta erregaiak gordetzeko gelatxoa estufarako; hurrengo, lan-
tegitxo bat tornuzila eta guzti; eskilaratxo batez gora, eta han aurre-gan-
bara, liburutegitxo aulki-mahai eta guzti; gero logela, eta otoizleku aulki eta belaunaulki. Ohea, lastozakua koltxoitzat, artulezko burusiak. Eta alboan, jatorduko mahai, eta estufa. Jatekoa, hormari zulatutako leihatilaren apalean anaia batek ezartzen ebala: barrukoak nahi ebane-
an hartu egian. Guk tarteetan, hainbat itaun egiten geuntsan: ez ete zan bizimodu hori burua “nahastu araztekoa”, “zoro gelditzeko” modu-
koa. Berak, baietz: inoiz gertatu dala horrelakorik. Barrua sendoa behar dala, eta monje oso jakitsuak badirala etxean kontsultatarako, eta nahi dozunetan, eurenganako aukerak libre dirala. Eta gaineratu eban, ez dakiala zein Aita Santuk, monasterioko arauetan sartu eragin eutsela, astean behin ibilaldiren bat monasteriotik at binaka egiteko agindua. Eta egia: guk inoiz ikusi genduan bikoterik han-hemenka paseatzen.

Bestela, euren bizimodua eremutar ei da: denpora bete-betean, ikasten, eskulanetan (lanik erruz baegoala, esaten euskun), eta otoiitz egiten, emoten ei dabe. Baina azpimarratzen eban: badaukela etxean nork lagundu, jende oso ikasia. Eta autortzarako eta kontsultarako, kanpoko jendea ere etortzen ei zan sarri. Guk lehengusua barne nasai, irribargozo eta neurritsu, ikusi genduan. Gero, etxerakoan, Luisek, guztiz ikuturik, esan eustan: "Gustatuko litzakit bizimodu hau!". Luisen esan honek harritu egin ninduan.

Bidaiak

Gernika-aldean ibili gintzazan legez, Burgos-aldean ere bardin. Gaztea, geldi egon-ezina da; eta gainera Luis ameslari, "asmoen lapiko"; eta behin burubiderik honen gogoan biztu eginez gero, jo eta ke saiatuko zan, asmoa egiteratu arteino. Eta ekin eutson ondoko arlo honi: "Vivar del Cid" herritxoa ikustera joan behar genduala. Plangintzak asmatzeko apartekoa zan; baina gero zelan horreek burutu, beste problema zan.

Eta emon geuntsan biok oinez bideari, domeka arratsalde batez. Luisen sistema inoren gogoa irabaztearren, izaten zan, bere proiektuaren bikaina behin eta barriro goretsiari. Heldu ginen herritxora: etxe mordo batzuk eta kitto. Han ez egoan mogimendurik. Etxe baten atera hurbildu eta aguretxoak esan euskun: "Aquí no hay nada. La gente joven marcha pronto del pueblo". Berandu ere bai, eta patxadaz, Burgoserako bideari ekin geuntsan bueltan.

Burgosera agertu zan, eskuetan arazoren bat ekarrela, A. Luis Oleaga, Tangerren urteetan lanean ibilitakoa, baina orduan Valladolid-eko komentuaren goardianoa. Solasaldian gengozala, zaharren eta gaisoentzat barne-erropa eta soineko egokirik aurkitzea gatx egiten jakela, aittu eban Oleagak. Luisek Intendentziako koartelera joango litzatekeala, komandantearen sinaduraz, eta errez izango leukeala zerbait arkondarra eta gainerakorik ataratzeko aukera, aurreratatu eban. Oleagari aurpegia argitu egin jakon.

Halako egun batez non etorri izan jakun Luis, pakete bi erropa eka-
rrera. Beste hiru lagunek muzin egin eutsoen Luisen egiteari. "Hor
konpon zu! Guk ez dogu nahi istilurik!". Luisek eta nik Valladolidera
deitu, eta trenez joango gintzazala Luis eta biok, esan geuntsen.

"Lista de embarque" biontzat atara eban, eta joan ginen tren-gel-
tokira. Gu legez egon arren, trenean sartzerik ez genduan izan "txar-
tel-zulatzaille" ergel zoroagaitik. "Monten, si quieren en el mercan-
cias!". Laster etorriko zala... Bai zera! Ilunduta heldu zan. Edurra
mara-mara. Furgoi bat aurkitu genduan zabalik, atea itxi egin ezin
zalarik: edurra barrura etorrela. Sartu gintzazan bertan, atzera egite-
rik ez egoan eta. Barruan, ilunetan, beste soldadu mordoa, zokondo
babestuan pilaturik, bata bestearen ondoan etzunda, kapote ba-
rruan hotzari aurre eginez, loak noiz hartuko ahaleginetan. Aldean
geroian soldadu-soingaineko artulezkoari esker, gu biok ere euren
ondoan, alkarri beroa emonez, etzun egin ginen, euren erremuska-
den artean. Azkenik, hala ere, hartu egin ginduezan. Triki-traka, tri-
ki-traka, behin edo behin, heldu ginen. Valladolid!!! Jaitsi. Eta orain
nora jo? Gure pakete biak eskuetan, aurrera! Halako orduetan, nor
kaleetan?

"Oiga, por favor! Paseo de Zorrilla. Franciscanos?". "Todo a lo
largo!".

Zorionez ondo genbiltzan. Heldu. Eta komentu aurrean, gaber-
dian, zer egin? Susmagarri, baina deitu egin genduan, tinbrea jo...
eta isiltasuna! Barriro geroago, tinbreari ikututuxoa. Eta bai! Goiko
leihotik: "¿Quién?". Dos soldados, frailes franciscanos!". "¿Sois los
de Burgos?". "Sí, en efecto". Hurrengo eguna egun apartekoa fraile-
ekin. Oleaga pozik esker onez. Eta gu pozago, hango giro eta baz-
kari be-tegarriarekin. Horrelako momentua merezi eban gure gazte-
erokeriak. Eta Oleagak emon euskun esker onez, agur egitekoan,
janari-paketea (latontziak) Burgoserako bueltarakoan.

Aste Santua hurre egoala eta Luisi otu jakon Erramu-domeka Si-
los-en ospatu behar gendukeala. Non hobeto, Aste Santuari hasiera

egokia emoteko? Eta plangintza, hola edo hala, eraturia eukan, inoren gogoia irabazteko bere sistemari egokionez. Trenz Salas de los Infantes-era joango gintzazan: lehenago ere -Burgoseko bulegoa izan aurretik- hemen soldadu-ariketak egiten ibilia zan. Hauxe baitzan Silos-tik estaziorik hurbilena. Eta gero, horra helduta, oinez, Monasteriora.

Bueltarako, zer? Hementxe ere suertea guk. Soldadu-taldea ikusi genduan kalean: kamioi handi bat ekarri eben Silos-era etortzeko. Eta baietz, eurekin Burgosera itzultzeko ba egoala tokirik. Giza animaliak legez, orduantxe Burgosera!

Soldadutzatik komentura

Castor Apraiz zan garai hartako Probintzial; eta bere kontseilariekin honako erabaki hau hartu eban: soldadutzan ibilitako guztiak, edozein ikasturtetako, adin eta kargutako izan, Arantzazun alkartu geintezala (1939ko irailaren 10ean): kanpoan luzaro egondakook komentuko bizieraren jarraipena pixka bat prestatu gengian; horretarako danok batera gogo-jardunak eginik. Eta Arantzazun alkartu gintzazan, alkartu ere, mezadunen, frailegintza nagusikoen eta aldizkoen kopuru ederra. Eta jende nagusi honeen artean, Luis eta behe-mailako "hasibbarri moko-guriok", beteranoen esanetan, "amaren bularretik" ia zuzen soldadutzara behartuok.

Julio Egiluz, probintzial ohiak berak zuzendu euskuzan gogo-jardunok. Nondik-norako dan gure bizitza! Bestelako ikuspegi, burubide, pentsaera, sentipen! Zure baitan zer eta zelakoak iraultzen dozuzan! Mundua mundu, urteak urte, ni mutiko xume, Arantzazun-Foruan lehenengo, gero nobiziaduan asmo-gogo sakonagotan, hurrengo kuartelean soldadutza-aldiko buru-bihotz iraulketa bizian, eta azkenik orain Arantzazun gogo-jardunetan, adin eta buru desbardinetaoen alkartean ingurune-giro serioan. Isaiasena: "Bedarraren antzeko da gizateria... ihartzen da bedarra, zimeltzen lorea; gure Jainkoaren Hitzak,

ordea, betiko dirau" (Is.40, 7b-8). Edo salmuarena: "Zer da gizakia Zu hartaz axola zaitezan?" (8.salmoa, 5 b). Gogo-jardunak amaitu dira. Eta horra barriro bizitzaren gurpila, biraka!

Filosofia-ikastaroa

Azkenean ere...! Filosofia ikasteari ekitera ginoiazan. Noizedo-noiz, hatan bere. Baina hara barriro ere harri koxkor sartu oinetakoetan! Bernardo Madariaga, ikas-azterkariak dei egin euskun Luisi eta niri, eta honako proposamen hau egin: "Biok humanitate-ikasketak ondo burutuak dozuez. Hemengo lehen ikasturtea arlo horretako ikasgaiak zati handitan zabalagotzera doa. Horregaitik, ondo iruditzen bajatzue, lehenengo hau emondakotzat hartu, eta bigarren eta hirugarren filosofia-ikasketak landuko bazenduez, ondo prestaturik joango zintzatekeze teologia ikastera. Horrela, gerra dala eta, hainbeste urte galdu dozuenez gero, bat behintzat aurreratuko zendukee". Biok, ezetz: nahi genduke-ala Herriberriko hiru ikasturteak burutu: izan ere, ez baitogu gero inoiz izango galdutako ikasturte honen hutsunea betetzeko aukerarik. Luis, esan behar dot, honetan ni baino tinkoago agertu zan. Hiru ikasturte, beraz, Herriberrin.

Eta aurrera jo baino lehen, nahi neuke, Luisi esker ona agertu nahiez, pasadizu hau agertzera emon. Beharbada ez dau inportantziarik izango; baina nik beti oso gogoan gordea izan dot. Hara. Ni, egia esan, nire gauzatan oso 'itxia' izan naiz, nire barnealdea inori zabaltzeko, inorekin nire barne-arazoez hitz egiteko, zailtasunak izan ohi ditudan pertsona. Batez ere, bestea nire nagusi danean, edo nire barnearen barri jakin nahiez uste izaten dodanean. Honelako zerbait jazo jatan Herriberriko hezi-maisuarekin. Honek bere gelara epeka deitu egiten euskun. Nik ez neukan berarekin konfidantzarik: bildur antza neutsan, argi esateko. Eta behin, gainera, guztien aurrean, kaperan, okerraren autortza egiteko, eskatu eustan. Eta nik zertaz egin behar nebanik jakin ez.

Gero jakin neban. Hara. Nik, soldadutzarakoan, utzi nebazan Herriberrin abitu eta gainerakoak. Soldadutzatik bueltarakoan, han egozan

abitua eta gainerakoak, oinetakoak-sandaliak izan ezik. Beste batek hartu eta erabili ebazan, jakin nebanez. Nik uste, halako baten maisuak ekarriko eustazala. Ekarri eustazan bai; baina berarengana bila joan ez nintzalako, izan zan "penitentzia publikoa". Bere gelara joan, eta errieta egin eta esan eustan: "Gernikarra zarealako, uste dozu nigandik pribilegiarik izango dozula?". Aurrerantzean, lehen baino itxiago ni. Benetan txarto, maisuarekin nire hartu-emonak. Orain, urrundik, barre egiten dot. Umekeria edo dalakoan! Baina orduan..!

Hau kontatu nahi izan dot, Luisen omenez. Luis konturatu, ez nenbilela ondo maisuarekin. Eta jakin dakit, maisuaren aurrean nire alde askotan hitz egin ebala. Horra nire laguna!

Herriberriko hiru urte honeek benetan garrantzitsuenetakoak gertatu izan jatazala niri. Gu, izan ere, 18, 19, 20 urteen borborrean, bizitzaren aurrean dana ginen begi, belarri, barne-sentipen, gogoz, asmoz, ametsez buru-bihotzak irakitan. Gainera, filosofia orduantxe ikasten, batetik, hainbeste jakitunen, burutsuen ideia, ikuspegi, arrazonamendu desbardinaren basoan murgilaraziak gu; bestetik, nobiziaduko (Frantziskoren ikuspegitik), eta soldadutzako (behe-positibismotik) bizi-esperientziak, sentipenen bidez zaporatuak (gozo, gazi, garratz, mingots) barruan erabilirik, non eta Herriberrin, hiru urtean, bizitzaren adin garrantzitsuenetakoetan, gure fraile-biziera irauliz gain, alkarren arteko gazte-borrokaldiaz oratua gertatu izan jakun.

Nik neuretik ondoko hau autortuko deusuet. Herriberrira etorri aurretik, Luisek eta nik, bion arteko autuetan, ez genduan auzi honetaz, gero Herriberrin sortutako problemarik susmatu ere. Ikastaro bakotxean ikasten saiatu, ikaslanak ondo egiten ahalegindu, aginduak betetzen, hala-hola, arduratu gintzazan batipat. Herriberriko lehenengo urtean, hain zuzen, soldadu ohion bereizkuntzari buruzko gure marmarrek, erdi isilpean estaldurik euken benetako problema gordina. Zerk ekarri eban ekatxa? Nondik askatu ziren gaztegrinak, eta hankaz gora jarri ebezan hainbeste giza-balioak, eta Frantziskoren mezua horrela bazterrarazo?

Hara. Aldiro "Akademia" deituriko saioaldi publikoa izaten zan; eta bertan hiru ikaslek prestatuturiko lanak irakurtzen ziran, bakotxak gaia bere gogara aukeratzen ebalarik. Arreta handia ipintzen zan hone-lako lan hau prestatzean, ikasturte guztien aurrean irakurri behar zanez. Honelako Akademia-saioaldi baten gertatu zan tximist-deskarga. Aurretik zerbait zurrumurrurik nire belarrietara heldu zan. Hiru irakurle horretariko batek liskarbiderik gerta eitekeanik edo, gaia ekarrela eztabaidagarria eta. Ez zan, hatan be, gauza askorik behar lapikoa irakitan jartzeko, gero ikusi genduanez.

Egia esan, lehenago esan dodanez, ni neu auzi horretatik at bizi izan nintzan. Akademia hau jazo zanetik ohartu nintzan auziaz. Egun hartan, hala ere, susmatzen neban "airean", elektrodinamikaren antzeko zerbait astunik. Akademia-gelaren zabalunean ikasturte guztiak entzule; atzealdian lau irakasle, saioaldiari itzala emoten. Arduradunak irakurraldiari hasiera emon, eta hiru ikasle hasi ziren lana seriotasunez irakurtzen. Bakotxari amaieran txaloak. Amaitu zan saioaldia. Irakasleak ikasgelatik urtenbarriak, eta ikasleak urtetan hasi. Eta ahots bat entzun zan zoli, hiru irakurle haretariko bati izenez aurpegira bota eutsalarik: "Zentzungabekeriak entzutera ez gara gu etorri. Nahi dezunean, eztabaida bat izango degu biok, eta biok galde-erantzuterako aukera berdina degularik".

Horra eztanda! Horra tximist-argia! Egun hartan, akademiako gaia polemikoa bilakatu zan, eztabaida sutu eta zaurigarria. Guk, Luisek eta nik, San Migel auzoan geunkazan gure gelak, eta bertarakoan joan gintzazan gertatukoaz eta entzundakoaz alkarrekin berbetan. Bardin, gero ere, hurrengo egunetan. Sartu jakun "virus"a hazurretara. Luis beti ausarditsuago, jo eban irakasleengana, auzia argitu nahiez. Eta halakoan etorri jatan gelara: "Bai! Badago hemen problema gorririk! Herri bat garela, badoguzala herri-ezaugarri bereziak: hizkuntza, historia, legedia (Foruak), lurra, etnia... Munduko herrien artean, badogula gure nortasuna. Gu geu nor garean ezagutu eta maite? Zelan ez? Baina ez gaitzezala "obsesiboak" izan: hau ez daitela ideia kenezina gertatu; gi-

txiago, liskarbide: inondik inora ere alkarren arteko anaitasuna, biziki-kidetzeta, haustera eta apurtzera ez gaitzala honek eroan. Azken batean, Jainkoa dala bakarrik *absolutua*. Hauxe ez dogula inoiz ahaztu behar. Gaztaroan badagoala honen arriskurik!''.

Non bizi izan gara gu? Zelan orainarte honetaz gu konturatu ez? Aurrerantzean gure artekoa ez zan lehengoa izango. Hiru talde bereiztu ziran gure artean! Bateko-erdiko-besteko. Hau zoritxarra! Baina horra aurrerantzean gure kontzientzian sortu tirabira gogorra. Ez ete orainarteko nirea, herriaren aldeko konpromisorik eza, hain zuzen, gaitzarekin kidetasun gertatu? Ez ete deusat nire herriari egin-kizun hau ukatu? Gure aita Frantzisko, italiar santu, eta santu italiar. Bardin: Ni neu izanik, mundu guztiaren alde!

Orduantxe gu, auzi hau argitu beharrez hasi gintzazan ahalegine-tan. Guk, gure herriaren hizkuntza ahaztu, baztertu, egin genduan: hau da, euskara, "gizartearen ondasun... herriaren ondare", geroago Luisek berak esango dauanez (*Historia de la Literatura Vasca*. 1979. 382. orrialdean, 419. atalean), guk gure giza eta kultur garapen-lanean erdi zapuztua geunkan. Eta hementxe ipini genduzan lehen ardurak: gure hizkuntza berreskuratzean. Eta hara lehenengoz, bada, ustekabeko mingarria: jakin genduan, hots, komentuko bibliotekan egin zan erabateko hondamendia euskal liburu-aldizkarietan. Negargarri! Hala ere, nik ez dakit nondik, baina gure artekoen eskuetara heldu ziran *Erderismos* Sebero Altuberena; eta baita *Morfología vasca* Resurrección M. Azkuerena; eta *Genio y lengua*, Ibar, Tolosako eskolapioarena. Geroago nire eskuetara Lizardiren *Bihotz-begietan*, niretzat oso mesedegarri bilakatua, euskararen errekurtsioak eta barne-egitura pixka bat arakatzeko. Eta *Garoa*, Txomin Agirrerena, gozamenez nik irakurria.

1940ko abuztuaren 23a: Gure Probintzian hauteskundeak. Probintzial (hirugarrenez) Julio Egiluz. Eta Herriberrirako filosofoen maisu barria izendatua izan: Benito Mendia. Koristaduko giroa oso aldatua gertatu zan. Guretzat nasaiagoa: hori bai, zuhurtasunez ibilirik. Asko

ikasi genduan orduan. Gainera, hirugarren ikasturtekoak, soldadu ohiak, hain zuzen, "pisu handiko eta liskarti zorrotz", Arantzazura joanak ziran, Teologia ikastera. Guk orduan eskatu geuntsan B. Mendia irakasle eta maisuari euskara ikasteko eta lantzeko aukerarik izango ete leitekeanik, molestiarik eta nahasbiderik sortu izan barik. Irakasle-batzarrean gure eskabidea aurkeztuko ebala, erantzun euskun.

Ikastaro barrian, hatan be, jarri euskuen euskara ordu beteko ikasgai, astean behin, aukeran, nahi ebenentzat. Eta hara: hogeitaz gora ikasle batu gintzazan. Baina euskal ikastaroa ondo eroateko, borondatea bai, baina inongo prestamen barik: ez testurik, ez eta irakasle presturik, "tituludunik". Behin-behineko martxan jarri gintzazan. Gure betiko patua! Mendia bera jarri jakun irakasle. Testutzat ez zan besterik aurkitu, eta "Arantzazuko Ama Birjinaren bederatziurrena", P. Zalañak idatzia, izan zan aukeratua. Baina gertatzen ohi denez, aurretik prestamenik ezak, beharrezko materialik ere ez eta tustean hasi beharrak, anekdota bitxiak sortarazo zituan. 1) eta ez makala: ez gintzazan guztiok maila bereko euskaldun, ni neu ia hutsen behintzat; eta han danok talde batean alkaturik gengoan. Bestelako nahasdura, irakaslearentzat eragozpen handi! 2) aurrekoaren pareko: "el encuentro de los dialectos" aspaldikoa, Luisentzat eta niretzat gomuta gaiztokoa, han barriztua. Gipuzkoarrak ziran prestatuenak; irakaslea bera zarauztarra, baina bizkaiera ez ekiana. Eta jakina: "Babel Dorrearena" gertatu zan gehienbat, bakotxak bere "sailtxoa" nagusi atara nahiez. Batez be bizkaitarroi gogoa galtzekoa jazo jakun. Gaur dakiguna orduan jakin izan bagendu!

Han ez egoan gramatkarik, ez hiztegirik, Lope de Mendizabalena izan ezik, eta hau bakarra. Ikasaldia izaten zan: Testuaren atal bat irakurri, eta erdarara itzuli. Zalañarena orain guretzat oso erreza izango da; baina orduan, bestelakoa. Ai gure orduko ahaleginak! Barre eragitekoa orain, baina anekdota legez, kontatuko deusuet. Irakaslea inor baino harrituago agertzen zan gure ezjakinaz, ea gu euskaldun izan ginenik guri galdetzeraino. Hara. Bermeotar batek esan

eutsan irakasleari, euskararekiko bere ardura handia erakustearren edo: "Jauna, Jaungoikoaren bendizinoa eskatzen dot egunean!" Eta irakasleak: "Bedeinkazioa" da euskaraz: eta "egunero" esaten da. Barregarri, ezta? Orduan, ni, egia esan, sekula gauza ez nintzatekearen konplexuz baldintzatua geratu nintzan. Orain, barre.

Baziran batzuk, nire harriduraz eta enbidiaz, batez ere, gipuzkoarrak, euskara parra-parra egiten ebenak. Honekin nahi neuke esan, zelakoa izan zan gure orduko ahalegina. Baina hara erdi etsita nengoala, non arrapaladan etorri izan jatan Luis gelara, eskuetan Sebero Altuberen *Erderismos* ekarrela: "Begira! Hau ulertzen dot!". Eta perpaus bat eta beste etsenplutzat, Seberok liburuan ekarriak, irakurri egin eustazan.

"Karai! Baita neuk be", esan neutsan. Jakina. Bizkaieraz egozan idatzirik. Aditza, bizkaieraz! Horra bai ikerketa gure ordukoa!!! "El encuentro de los dialectos". Gaur guztiontzat gauza arrunta! Eta orduantxe, gure artean, ondorioa: aditzaren paradigma derrigorrezkoa dogula. Eta Luis eta Karmelo Iturria jarri ziran lanean. Euskalki bien (gipuzkera-bizkaiera: bata bestearen ondoan, konparaketarako) paradigma labur bat burutu eben. Behintzat bidea urratu. Guretzat benetan mesede handikoa, garai hartan.

Arantzazun (1942ko abuztuaren 27a)

Herriberritik Arantzazura bai giza eta euskal giro desbardin. Arantzazu, santutegia, liturgiaren nagusitasuna, otoitz-leku, Euskal Herriaren erromes-alkargune beroa. Hau ez ezik, baita ingurune eta aro barria guretzat, arnasbide zabal eta betea. Euskara pil-pilean: sermoi-otoitz-kantu. Eta herriak, ezpainetan euskara erabilelarik, Gi-puzkoatik, Bizkaitik batez ere, Arabatik, Nafarroatik, Ifarraldetik ere, erromes Amarengana, arbasoengandik hartutako fede-zuzia bizitzan, erromantzez eta legendaz jantzia, bertso eta soinu. Herriberritik Arantzazurakoa gertatu jakun aro barriaren egunsenti.

Koristadu-barneko bizigiroa, Herriberrikoaren luzapena, esango genduke: kanpoko gizartearen politika-eraginez joa, han letxe; baina

hori bai, erabidez eta zuhurtasunez baretuagoa. Goiko gure ikasturtekide biak izan ziran lehenengotan Arantzazuko biziberriko bideetan gure gidari. Euskaltzaletasuna, esate baterako, isolatua, banandua, bakotxaren ardurapean egoan. Herriberriko gar bizia, hemen hauspean egoan estaldua. Agirretxe egoera honekin ez zan konforme: gure herriarenganako konpromisoak eta gure geroko apostolutzak, gugandik zerbait gehiago eskatzen baiteben. Eta, arlo honi begira, beraz, suspertu nahi ginduzan gure garapen-bideetan. Eta halantxe horretarako, lagun bi honeek prestatu eta proposatu egin euskuen taldetxo bat eratzea, umila, isila, baina alkarren asmoetarako lagungarri eta pizgarria. Eta *Izarño* izeneko aldizkaritxo antzeko bat martxan jartzea erabaki zan. Bertan bakotxak idazlantxo bat aurkeztu egingo eban (bai itzulpen, bai laburpen, edo norberak asmatutako zerbait gaitzat erabiliatz). Baina euskaraz, bakotxak ahal eban moduan eta mailan: euskara lantzea baitzan asmoa. Aldizkaritxoak *Izarño* minutiboarekin izango eban izena: euskal ortzian argirik egiteko ez baikinena gu gai.

Pedro M. Beltran de Herediak idazlantxoak batu, apaindu eta josi, eta aldizkariñoak, gure artekoen gelaz gela, izkutuzko bidea egingo dau. Bidean, ikasteko asmoz, artikulu edo idaztitxoari, edo nork ohartxoak, zuzenketak, itaunak, edo eretxiak ipini leioz; azkenik, Pedro Mariren gelara bihurtzen dalarik. Hurrengo numeroan, ohartxo horreek eta baturik, agertuko dira artikulu barrien aurretik, gure ikasbiderako.

Ondore ezin hobea izan eban asmazinoak. Hainbestearino, hatan be, ezen beste euskaltzale batzuk ere nahi izan baiteben taldekide izan. Euren artean, Salvatore Mitxelena. Gure poza handia izan zan. Nor egokiago gure aurrelari, gure gidari, gure maisu izateko, halako idazle prestu, halako olerkari trebe, euskararen adierazpen-baliabideak erabiltzen maisua zan Mitxelena lakorik? “Hizkuntza teknikaz harrigarriro jabeturik, joskera jatorrez aberats, pentsamenduari mintzamolde egokia ematen maisu”. Halakoa behar genduan.

Laster proposatu eban honek aldizkari “klandestino” hori “Bai” izena ipini behar geuntsala. Hartarako, arrazoiak emonaz, artikulu polit bat idatzi egin euskun. Lizardik bere asmotan erabilen aldizkariarentzat nahi izan ei eban titulu hori. Eta Mitxelenak egokitza emoten eban guretzat, izan leitekealako gure nahiaren eta asmoen agergarri. Bai euskarari! (Gero, gure artean zenbatetan erabilitako slogana!).

Lizardi, izan ere, hartu daikegu gure eredutzat, gure euskara berreskuratzeko ahaleginetan. Hara. Batxilergoa amaitutakoan, ahaztua ei eukan, ia zehatz, euskara. Legedi-ikasketak hastekoan, euskara ikasteaz arduratu ei zan. Berandu, esango genduke. Baina hara, bestelako gero, giro, eta gara euskal literaturari beronek eskeindu eutsana! Lehenengotan, hala ere, ikasle-urratsetan oraindino, “hasibari” bati gertatzen jakon legez, dorpe, zabu-zabuka, ibili ei zan, akatsak egiten zituala, ulerterreza danez. Baina berak aldatzari adorez ekin, eta bai idaztontor gorenetera heldu! Horra guk Lizardi eredu! Lizardiren antzera, “Bai” zintzoa emon behar deusagula Euskal Herriari, “Bai” euskarari, “Bai” Arantzazuko historiari! Eta horrela antolatua izan zan taldea: Baikideon taldea. Lan isilean arduraturik, “katakunbatan” legez, erlategietan legez Haziak lurpetik eguzkitara etorririk, frutuak emoten ditu. Taldea ugaritu egin zan, bai jendez eta bai lan-arlotan.

Egia esan, taldean alkarren lehian lan egitea bultzada handia gertatu jakun gure arlo guztietan. Taldekide izateak, izan ere, alkar suspertuz eta bizkortuz, alkarrekin hizketalditan, batzar, ibilaldi, euskal kantsaioalditan eta, euskara ikasteaz gain, baita hainbat plangintza eratzeari, gure historiari, herritartasunari, kulturari, folkloerari, erromantzeari guk ardura eta arreta berezia prestatzea ekarri eban ondorioz. Lekuko, Arantzazuri buruz, erromantzea eta historia erabilirik, prestatua izan zan, eta fraile-komunitatearen aurrean aurkeztutako (jaialdi ederra hor dago), Mitxelenak gehien bat gidatutako jardunaldia: hortik geroago oso landua “Arantzazu, euskal poema” berak argitaratua. Dana dala, aurrerantzean, alkarren arteko lana egin zan, egin ere, artxiboan, kroni-

ka-luburuxkatan, bibliotekan, koaderno zahar, aspaldiko aldizkari eta liburuak irakurriz, taldekide guztiok jardunkide ginela. Hortik gero, apostolutzan, frutuak: ikastetxe-ikastoletan irakasle, pulpitoetan sermoilari, aldizkarietan idazle, liburu-idaztean olerkari, saiolari, gramatikari, teologari, eta euskal erakundeetan euskaltzain urgazle eta baita buru ere, behin-behingoz beti gizon langile eta arduradun.

Salbatore Mitxelenak Luisi esker onez esandakoa bera Baikideon taldeari zuzenduko neunskio nik bihotzez: "Ezer on aintzagarririk egiteke (borrokaldi antzuetan beharbada nahastuak ibilirik) hainbat urte alperrik galduko nebazan honek, esker on agiri hau gaur emon dagitsuedan, itzi egidazue". Irakatsi baiteustazue, gelako lan isilari barmuinaren gozoa xurgatzeraino!

Nik, taldeari bai, baina bereziki, zuri, Luis, ene lagun min izan zaitudan horri!

Mezua ondoren

Esanguratsua da, esate baterako, Luisek berak, inportantziarik ez baleuko legez, behin kontaktu egin eustan honako gertaera hau: Bilbon, Irailabarriko gure komentuan egoan. Eta burura etorri ei jakon, Krutwig jaunari telefonoz dei egin behar eutsala, euskararekiko arduratan ebilela-eta. Pertsona, edozein pertsona, zan zanekoa, aintzat hartzen eban Luisek, batez ere lanari osoro emona zala jakinik. Bestela, Krutwig jaunna inondik inora ez eban ezagutzen pertsonalki, ez eben inoiz alkarrekin hartu-emonik izan. Eta hona Luis-en jokabidea. Haren etxera telefonoz deitu, beste barik, berarekin berba egin nahi ebala eta. Eta zorte handiz, Krutwig-ek adeitasunez erantzun: "Bai! Nola ez? Nahi duzunean. Etxean izango nauzu". Eta hara Luis non doan, Krutwig jaunarekin hizketaldi bat izatera.

Eta hortik gero gerokoak. Luisen ausardia hau dala eta, Krutwigen eskutik Euskaltzaindian sartu zan. Eta Krutwigek berak Luisen sarreramintzaldiari erantzun-arazoa bere arduratan hartu eban. Krutwigen erantzun-berbaldi honek inoizko entzute zabala ekarri eban. Izan ere,

Bizkaiko Diputazinoan izan zaneko saioaldi hau amaitu zanekoan, Krutwigek, zer etor leikion igarririk, atzerrirako bidea hartu eban. Eta, Luisi begira, gero Euskaltzainburu izendatua izan, eta hamazortzi urtetan karguari eutsi, eta Euskaltzaindia berbiztu. Niretzat, beti legez, hemen ere harrigarria Luisen jokaera isila. Zeintzuk izan ete ziran Luisen barne-motiboak, burubideak, eraginak, Krutwigekin hitz egitean? Luis erlijioso frantziskotar Arantzazun, eta norekin eta Krutwig jaunarekin hartu-emonak hasi. Eta euskara arloan biak arduratu eta alkarrekin era normalean lana egin. Garbi ikusten da. Pertsona lehen, mezua ondoren! Ez dozue uste, badagoala hemen zertaz hausnarturik eta harriturik?

Esker onezko oroipen

Nik ez dot beste asmorik izan, lantxo hau idaztean, Luis lagunaren giza izaera apur bat argitzera emotea baino. Bere pertsonatasunaren gainerako baliotasun-alderdiak, lanen emoia, bere barne adorea eta sarkotasuna, beste batzuek aztertuak eta goraiatuak izango dira. Nik neuk, Luisen lagun hurbil izan naizen honek, ez neban uste, horrenbesteko goi, handi, aintzagarri zanik, harik eta heriotzaz galdu dogunetik, egunkariak eta aldizkariak euskararen aldeko Luisen ibilbide argi, bete, eredugarria erakustera emon izan daben arteino. Beharbada, komunikabideen partetik, halako bapateko garapen edo, hobeto esanda, hazkunde-bultzakada az-karraren protagonista nire begi harrituen aurrean agertua izan jatanez gero, nire barrua zirikatua izanik, bururatu jatan, beste inork ezin eikeana, lagunaren umezaro-gaztaroko bizi-momentu adierazgarri batzuk idaztea, esker onezko omenaldi txiki bat lagunari eskeindu nahiez. Hauxe da, hauxe nahi dau izan, eta ez besterik: hots, eskerka gelditzen danaren gomuta maitagarria.

Agur, Luis! Mila esker! Laster arte!

Kristo ohoratua izan bedi. Amen.

Elkarrizketa



Arantxa Iturbe:

*Joseba Intxausti, mende laurdena
euskar nortasunaren bila*

*Joseba Intxausti,
mende laurdena euskal nortasunaren bila*

Joseba Intxausti, euskal idazleen belaunaldi berri bateko kide bezala aurkezten digu orain 25 urte Jakinek argitaratu zuen *Euskal idazleak, gaur* liburu mardulak. Besteak beste, Ramon Saizarbitoria edo Anjel Lertxundiren ondoan dator haren izena. Baina literatura gogoko izan arren, oso bestelako ibilbidea egin du segurrarak. Urte askoan Jakin aldizkaria edo UZEI kultur elkarteari lotua egon ondoren, Kulturaren aldeko euskal Fundazioko idazkaria da 1994-an sortu zutenetik. Donostiako bere etxean, bere lantoki eta bizilekuan egin digu harrera, hamabi urterekin Arantzazura joan zenetik gaur arteko bere ibilbideaz hitz egiteko.

- Aita Villasante ardatz duen alerako egoki jo du *Hegatseko idazkuntza-kontseiluak zure ibilbideari errepasoa egitea.*

Lotura hori alde batetik, batez ere kanpotik begiratuta oso bidezkoa da, baina bestelakorik pentsatu litekeen arren, ni bezalako pertsonak edo Jakinen ibili garenok, bereziki lotuta Villasanteri ez gara egon. Beste gauza bat da Villasantek beti errespetu handia izan zigula. Gu ari ginen gure gazte-lana egiten, batzutan berari ausartegi irudituko zitzaiona, edo beharbada ez zuen adostasun osorik izango gure lanarekin, baina beti errespetatu gintuen eta utzi zigun lan egiten. Sekula ez zuen, bere iritzien kontrakorik baldin bazen ere, (ez dakit izango zen horrelakorik), horrelakorik adierazi. Beti errespetatu zuen euskal lana. Alde horretatik, Villasante ezagutzen genuenontzat, hori, kasik erregalu bat zen...

• **Zuek beste belaunaldi bat bezala iritsi zineten Arantzazura. Baina zuk eta Villasantek hamasei urteko aldea besterik ez zenuten...**

Hamasei urteko aldea bakarrik? Baina gehiagokoa zen aldea, bai askoz gehiagokoa. Ez dago dudarik. Joeraz eta horrela, benetan, askoz zaharragoa gertatzen zen bera, edo gazteagoak gertatzen ginen gu. Alde handiagoa izango bagenu bezala. Kontu egin behar da Jakineko taldean, berehala sartu eta horretan iraun genuenetik zaharrena ni naizela. Bai Joxe Azurmendi, bai Joan Mari Torrecaldai, bai Paulo Agirrebaltzategi, bai Joxe Antonio Aduriz, gazteagoak dira. Eta Villasante estimatzen genuen pertsona bat izan zen. Bai teologian, bai euskal gauzetan lan egin genuen berarekin. Bereziki gogoan dut nola Azurmendik lan egin zuen Villasanteri laguntzen Axularren hiztegia egiteko, eta gero harremana beti erraza izan genuen. Benetako lankidetzeta batera, lankidetzeta iraunkor batera iritsi gabe, halere. Bi mundu paralelo bezala ziren. Askoz ere gertuago ibiliko ginen geroago Gandiaga batengandik...

Seguran jaio zen Joseba Intxausti. Arantzazun, Foruan eta Bartzelonan egin zituen ikasketak. Ikasle garaian sortu zitzaion hizkuntzarekiko grina. Baina historia aukeratu zuen Unibertsitatean.

• **1936an jaiotakoa zara. Horrek esan nahi du erretiroa hartzeko eskubidea baduzula jada.**

Ez dut hartu. Ez dut hartuko seguru aski, pixka batean. Fundazioan fase konstitutibo-eratzaille batean gaude. Patxada onean ari gara lanean, hor barruan beste ikerlan batzuk eginez...

• **Hori gaur egun. Honaino iristeko bidea, ordea, luzea izan da. Non dago hasiera?**

Seguran reketek sartu eta handik astebetara jaio nintzen. Halere,

paper ofizialetan Joseba Mirena naiz, parentesi artean, Jose María. Beste gauza bat da gero ez zela hori bideratu frankismo garaian, paperetan. Handik oso gutxira kaleko izenen ortografia eta izenak eta aldatu zituzten.

1948an, 12 urterekin joan nintzen Arantzazura. San Viatortarrekin, urtebete eskas eginda, gero nazionaletara joan behar izan nuen. Mota guztietako irakasleak izan genituen. Euskaltzalea, denok oso gogoan izan genuena, Gotzon Egaña. Oraindik bizi da. Euskal gauzak irakasten zizkigun. Ez zuen asko iraun baina halako zera bat utzi zigun euskaltzaletasunari dagokionean.

Nire etxean, gainontzean, gerra-aurreko ahal zituen informazio gehienak pasa zizkidan amak. Urtero neukan aukera urtean behin, bitan, 1931ko Aberri-Eguneko liburu apain bat ikusteko. Asko gus-tatzen zitzaidan.

Lehendabiziko ikasketak, beraz, 48tik 62ra. Hasieran euskara oso gutxi inguruan, ikastetxean erdaraz egiten zen. Euskal eskolak hirugarren urtean hasten ziren. Arantzazuko hiru urteak ez ziren izan batere onak alde horretatik. Beno, ateak itxi ere ez zituzten egiten. Hurrengo hiru urteak, berriz, Foruan. Han Imanol Berriatuarekin topo egin genuen. *Anaitasuna*-ren sortzaileetako bat, zuzentzailea, Bilbon lan egin zuen gerora. Irakasle ona zen. Hizkuntzaren grina hark bideratu zigun. Hortik filosofia egitera, Olitera, Herriberrira, 55tik 58ra. Han bai ia hizkuntzaren munduan murgildu ginen. Momentu inportantea izan zen guretzat. Ez zen bakarrik euskara ikastea, baizik-eta filosofian erabiltzea... adibidez.

• **Giro berezia bizi izan zenuten Arantzazun elkartu zinetenok.**

Bai. *Euzko Gogoa*, *Egan* hartzen genituen. Etxe barruan *Gure izarra* aldizkaria egiten zen. 25 urtetan, 50etik 75era, aldizkari horretatik hainbat jende pasa zen. Bazegoen egitura bat, hezkuntza-sistema bat hizkuntza lantzeko, irakaslea ere bagenuen eta hango ekitaldi kul-

turaletan euskarak bazuen bere tokia. Garrantzizkoa izan zen niretzat urtean behin egiten zen ekitaldi akademiko baterako eskatu zidaten lana: azterketa bat, Salbatore Mitxelenaren Arantzazu poemarena. Irakurri eta egitea garrantzizkoa izan zen neure eginkizun euskaltzalearentzat, gizarte txiki hartan leku bat egiten zitzaiolako. Garai hartan hasi nintzen lagunei euskal aditza irakasten.

Gure izarraren zuzendari ere izan nintzen. 400 orrialdeko gauzak argitaratzen genituen. Urtero zenbaki bat. Denetik argitaratzen genuen han. Batzuk, gaur egundik begiratuta barregarri gertatzen zaizkigu baina inportantea izan zen biderako, abiapuntu modura.

- **Eta handik gutxira, *Jakin-en* hasi zinen.**

Aldizkaria 1956an sortua zen. Ni bi bat urte geroago sartu nintzen, Kepa Enbeita eta beste zenbaitekin. Nire lehenengo lankidetzaz, aipatutako Mitxelenaren lan hura izan zen.

Bizpahiru urtez zuzendari lanetan ibili nintzen. Kanpora joan nintzen arte, eta orduan ere aldizkariaren egoera sendotzen ibili nintzen. Aldizkaria hartu eta urte batzuetara, 61ean edo horrela, inpremeriatu egin bainekuen. Eta hori gertatu zenean ez zegoela hori egiterik esan ziguten. Prozesu horretan ibili nintzen, Madrileraz joanez. Laguntzaren bat izan genuen, Karlos Santamariarena adibidez, baina ez zuen balio izan.

- **1964an Bartzelonara, unibertsitatara.**

Joan nintzen filologia klasikoa ikastera. Baina gero garai hartan bost urteko ikasketen barruan, lehendabiziko bi urteak amankomunak ziren eta horiek egin nituenean erabaki nuen historia aukeratzea. Inguruan ikusi nuen irakasle goiari begira eta horrela. Filologia ez zitzaidan sekula gehiegi ere interesatu. Egin nuen historiako lizentziatura Aro moderno eta garaikidean. Lehendabiziko urtea zuen espezialitate horrek Espainian. Beraz, lehendabiziko promoziokoa naiz.

Ikasle lagunetatik batzuk han geratu ziren. Izan nuen han geratzeko aukera nik ere, baina erabaki nuen momentu hartan etorri egin behar nuela nire eginkizunetara. Hor bukatu zen Bartzelonako egonaldia.

Etorritakoan *Jakin*-en kargu egiteko esan zidaten, aldizkaririk ez zegoen arren. Fraga Iribarnek debekatu egin baitzuen. Halere, bilduma bat sortu genuen lankidetzan egiteko. 1970an hartu nuen, hiru bat urte egin nituen. Eta 1972an, aldi berean, *Anaitasuna* ere hartu nuen. Tolosatik joaten nintzen Bilbora.

- **Zuzendaritzatik zuzendaritzara, Jakin-etik UZEI-ra.**

Garai hartan hizkuntzaren arazoa bete-betean bizi genuen, korpusaren arazoarekin ibili ginen. Ari naiz batuaren problemaz, hizkuntza arautu baten beharraz, lexikoaren arazoez. Orduan jarri genuen martxan UZEI. 1977an hasi nintzen ni lanean eta 78an jaio zen ofizialki. Lehendabiziko bost urteak egin nituen zuzendari bezala. 87an-edo utzi nuen. Orduan ekin nion nire ibilbidean beste aro bati.

- **Eta beste lan-mota batzuei...**

“Euskal hitz” egin genuen. Urte pare bateko lana izan zen, gero liburuxka bat ekarri zuena. Langile autonomo bezala geratu nintzen tartean, Eusenor-etik eskatu zidaten ia egingo nuen proiektuaren aurkezpen-lan bat, eta orduan zeregin horretan aritu nintzen. Ez neu Eusenor proiektukoa nintzelako (formulazioan eta burutapenean Paulo Agirrebaltzategik jardun zuen). Uste dut, gainera, orain edo geroago aprobe txatu beharko litzatekeen lan bat egin zela. Hizkuntzarentzat, nire ustez, oso garrantzizkoa.

Bestalde, Ikastolek deituta 90etik 92ra, beren historiako proiektu bat lantzen aritu nintzen. Eskatu ziguten *Jakini*, eta *Jakinen* barruan neuri, ikastolen historia bat egiteko. Uste izan nuen ez zela oraindik momentua, gertuegi zegoelako, oso sakabanatua, urteetako lana izan ziteke-

la... Orduan nahiago izan nuen iturriak zaindu, eta proiektu bat egin iturriak, dokumentazioak biltzeko. Liburu bat atera nuen. Eva Gaztañazpi historialariak segitu zuen eginkizun horrekin. Nafarroan ere aritu nintzen euskarari buruzko beste lankidetzaren batean. Eta 1994an iritsi zen Fundazioarena. Bi egiteko izan ditut bertan: alde batetik, fundaziora etortzen diren proiektuak bideratzea, balorazio on bat eman eta ezin dudanean, iritzia eskatzea, eta bestetik ikerlana. Pixka bat bilgune moduko batean gaude. Sekula idatzi dudana gehiena orain idatzi dut.

Ofizioz asko idatzi behar izan du Joseba Intxaustik. Eta aitortu digu sortzeko tentazioa ere izan duela.

• **Idatzi, ofizioak hala eskatuta, halere. Non geratu da “belaunaldi berri bateko kide” zen idazle hura?**

Nire mundua ez da literatura, konturatuko zinen bezala. Niri literatura interesatu zait. Irakasle izan naiz eta oso gogoz izan naiz, gainera. Bi urte bakarrik egin nituen horretan. Erdal literatura eta euskal literatura, biak eman nituen. Ikasketak bukatuta bi urte egin baintuen Foruan irakasle. Oso ikaslego ona izan nuen. Neuk gozatu egin nuen literaturaz.

• **Sortzeko tentaziorik ez?**

Sortzeko tentaziorik? Bai izan dut. Lehendabiziko urtean ia neure metodo-txoak eta landu nituen. Euskarari badago testu bat nirea, euskal literatura nola eman, erdal literaturan egiten ziren gauzak nola aplikatu erakutsiz. Anekdotak modura esango dizut sari bat ere irabazi nuela poesian. Unibertsitatean nintzela. Espainiako unibertsitate-ikasleen artean hizkuntza desberdinetan sariak ematen ziren. Euskaraz idatzi nuen nirea. Santiago de Compostelara joan behar nuen sariaren bila baina bidaiako txartela gehiago kostatzen zitzaidan saria bera baino. Anekdotak besterik ez da. Gallegoren batek irakurri zuen nire lana. Alfontso Irigoien ere han izan zen. Salamancan ikasten ari zen orduan.

Tentazioa bai, izan dut, eta tentazioa badut oraindik ere, baina ia elkortu egin zait arima. Badaukat gaitasun bat gozatzeko idazten, nahi izanez gero. Baina, alde batetik ez nago komentzitura hori denik nire alorra, eta bestetik, nire premiak beste nonbait dauzkat. Gogoak eta neronen tentazioak beste leku batzuetatik etorri zaizkit.

- **Halere, asko idatzi duzu.**

Bai. Ez dago esaterik idazlea naizenik, baina bai idaztailea, eskribatzailea. Ofizios idatzi egin behar dut. Azkeneko hamar urteotan bereziki ordu asko, egunak eta egunak eta egunak egiten ditut idazten. Gauzak nola izaten diren. 1952an argitaratu nuen lehendabiziko lana. Eta lehenengo argitalpena izan zen poesia txiki bat. Gipuzkoako *Anaitasunan*. Ez daukat gordea. Mutil kozkorra nintzen artean.

“Guk eskatzen genuena lortzea utopia ezinezko bat zela pentsatzen nuen garai haietan”.

- **Garbi dago zurea zuzentzea izan dela.**

Generalean zuzendari karguak tokatu zaizkit. Bai. Dimisioak ere eman ditut. Bai, dimititu nuen Jakinetik ere. Anaitasunan egon nintzen baina banekien hura ez zela nire lana, behin behineko zerbait betetzen ari nintzela. Jakinen bertan ere urte pare bat edo hiru egin ondoren nahiago izan nuen Paulori pasatzea. UZEIn ere dimititu egin nuen momentu batean. Ordezkapena ondo egin zitekeela pentsatzen nuen momentuan.

- **Beti izen beretsuak aipatzen dituzu inguruan. Harremanetan jarraitzen al duzue hainbeste urte eta gero?**

Azken hamar urteotan bakoitzak lanbide, ogibide desberdinak izan ditugu. Zertxobait alden du gara bizierak ere desberdinak izan

ditugulako. Baina hurbil jarraitzen dugu. Orain ez nago *Jakin* aldizkaria eramaten duen enpresan, baina harremanak baditugu.

- **Ez zara elkarrizketetan-eta asko azaldutako gizona. 1967ko Zeruko Argia batean topatu dugu bat, eta hartan, besteak beste, Euskaltzaindia “periskopio” ona iruditzen zaizula aitortzen duzu.**

Gauzak aldatu egin dira. Orduan kultura munduan zertxobait egiten zuen jendea laster inguratzen zen Euskaltzaindiara. Gaur egun euskal unibertsoa askoz ere zabalagoa da, zorionez. Hori da irabazi dugun gauza bat. Gaur egun ez da aski Euskaltzaindia. Euskal literatura bera bakarrik ezagutzeko ere ez da nahikoa, eta gutxiago gizartean dagoen euskararen presentziaren modu funtzional berriak ezagutzeko.

- **Zuen belaunaldiarekin konparazioa egin ezkerro eginkizunak profesionalizatu egin direla ikusten da.**

Profesionaltasuna behar du hizkuntzak. Hori gabe ez dago inoiz normalizatu izatera iristerik. Eta ez hori bakarrik. Benetako lan iraukorki pilo bat hortik etorriko da. Esaidazu zuk unibertsitateko edo irakaskuntzako profesionalik gabe zein ikerkuntza egin litekeen. Beste gauza bat da hori nola eramaten duen bakoitzak. Ez da ahaztu behar, herri guztiz ahula garela, txikia. Gu ez gara kultura handi bat, kuantitatiboki handia esan nahi dut. Komunitate txiki hontako jendeak plus bat jarri behar du bere eginkizunean.

- **Kultura munduan lanean hasi zinenean pentsatzen al zenuen orain gauden moduan egongo ginenik?**

Nik uste 50etik 60rako garai haietan, nik ez nuela sinesten eskatzen genuena lortuko genuenik ere. Utopia ezinezko bat izango zela pentsatzen nuen. Datu adierazgarrietako batzuk (badakit hor iru-

dikeria txarren bat egon litekeela) euskal liburuaren hazkuntzaren zifrak dira. Hirurogeita gutxian 23 liburutxo. Oraingo kopurua, erdira ekarrita ere, gauza serioa dela ikusten da. Kultura-masaren produkzioak izan duen hazkuntza izugarria da.

Zerbait kualitatiboa gertatu da. Hor badago azpitik zerbait. Oraingo belaunaldi berriek eta ondorengoek ez dute bizi behar izango, nolatan ez den hondamendiren bat etortzen, guk bizi izan genuen egoera hura.

• **Zuek, gutxienez, egoerak hobera egiten zuela ikusteko aukera izan duzue.**

Gure belaunaldiak, nahiz gauza garrantzizko batzuetan porrot egin dugun beharbada (hori ikustekoa izango litzateke), gure oinarritzko, gure barruan egosten ari ginen proiektuaren barruan lorpen garrantzitsu batzuk izan genituen. Belaunaldi hori, harro ez dizut esango, baina nahikoa pozik egon liteke egindako bidez. Noski, horretan, ez da jendearen ahalegina bakarrik izan. Proiektu historiko orokorrako batzuk egon dira. Francoren sistemak ezin zuela iraun garbi zegoen, desageru egin behar zuela, eta horrek lagundu zuen pauso berri dezente ematen. Alde horretatik, pribilegiatua izan da gure belaunaldia. Gure aurreko belaunaldiak gerra bat jasan zuen, eta horrek sekulako egoera latzean utzi zituen. Gurean, guztiz alderantzizkoa izan gabe, zeren azkenean, gerraren ondorioa bizi izan genuen ia berrogei urtez, tunela pasa eta barruan zeuden indarrak maila batean askatasun maila batera pasatzeko aukera izan genuen.

Halere beti geratzen da galdera: aski izan al da? Euskal Herriko jendeak euskaraz lan egiten ikasi du, gaur egun euskal hiztunak eskaintza zabala dauka. Baina etorkizuna inondik ere ez dago ziurtatua herri txikia garelako, eta inguruko herriek batere errespeturik ez dutelako. Humboldt-ek iragarritakoa ez da gertatu, beste berrehun urtetan behintzat ez delako joango. Seguro nago egin dena egin ez balitz, askoz okerrago egongo ginatkeela. Egin behar genuen guztia ere ez

dugula egin ere seguru egon, eta badaudela gauzak ia martxan jarri beharko liratekeenak. Gaur, orain 15 urte baino zailago izan arren, beharbada.

- **Adibidez...**

Hizkuntzari helduz, irakaskuntzak zenbaiteraino ziurtatzen du hizkuntza? Eredu malgu bat izan dugu. Hizkuntza-eredua da gure lorpenik handiena. Baina Iparraldea guztiz galtzeko arriskuan dago. Gogorutzen dit Arabaren XVIII. mendeko egoera. Herri txikia gara eta mendez-mende atal bat galtzen badugu..

Ez dut orain gai horretara joan nahi, baina hor dago Euskal entziklopediaren arazoa. Fiasko bat izan da. Gerra partikularrak izan dira tartean. Baina Euskal Herriak behar du bere buruaz bertan egindako informazioa eta euskaldunok munduaz dugun ikuspegiari buruzkoa...

Bere lan guztien ardatza Euskal Herriaren nortasuna aurkitzea izan da. Da, oraindik.

- **Une honetan, zertara bideratzen dituzu zure indarrak?**

Azkeneko urteotan, lan-arrazoiengatik bereziki, neure lanari lotu natzaio. Beste arrazoi batzuen artean, epe ertaineko eta luzeko proiektuekin hasi naiz. Kulturen gabiltzanok, beti, premiazko gaiei erantzuna ematera bideratu ditugu indar guztiak. Eta orain beste bide bat aukeratu dut. Gizarteko informazio bizia eta eguneratua falta zait. Baina eguneroko egitekotik haragoko egitekoetara jotzea erabaki dut. Alde horretatik zerbait galdu dut baina bestetik irabazi ere bai. Ezinezkoa da lan intelektuala hemen daukagun eguneroko presio horrekin egitea. Nik ezin dut. Gauzei distantzia txiki bat hartzen saiatu naiz, neure lanari jarraipena emateko. Baliozkoa izango den ala ez, geroak esango du.

- **Gehixeago zehazteko modurik bai?**

Euskal Herriaren nortasuna. Horretan ari naiz. 1985ean Euskal Herria liburua egin genuen Euskadiko Kutxarekin. Ia bi urteko lana izan zen. Taldean. Kontzepzioa nirea izan zen eta nolabait galdera bakarra zuen ardatz: zer da Euskal Herria? Gure jendearen eskutarako. Trin-koa. Zenbateraino ulertu den ahalegin horren balioa? Ez dakit. Saiatu nintzen Euskal Herriak bere buruaz eta munduaz hitzegiten. Bertatik.

Kezka hori bera eraman dut Euskal Herriko historia erlijiosoari buruz ere. Nortasuna deskribatzeko beste elementu bat da. Alde batetik, garrantzitsua da *niretzat* dimentsio erlijiosoa, jarrera erlijiosoa gorabehe-
ra, badagoelako Euskal Herrian fenomeno sozial bat horren ingurukoa. Euskal Herriko bizitza erlijiosoari buruz egin berri dugun biltzar batean ere, Euskal Herriari bere nortasuna aurkitzeko ahalegina egin dugu. Ardatza beti ere bera izan da. Nortasuna. Horren kezka beti izan dut, historiatik begiratuta, zuzenean horretara, horrelaxe etorri zirenean. *Euskararen liburu zuria* egin genuenean izan zen, 1975-76an. Esan ziguten egin behar zela halako sarrera teoriko luze bat. Eta *Jakin*-eko taldeari proposatu ziguten azterketa egitea: zer da hizkuntza bat? Nola izan dira tratatuak hizkuntzak politikoki?

Sartu nintzen politologo izan gabe, hizkuntzen tratamendu politikoa nola izan den deskribatzen. Zati horren ardura hartu nuen. Hor aurkitu nituen bi datu niretzat garrantzizkoak: Frantziako iraultzan hizkuntzarekin egin zenaz eta *Documentos para la historia social de Hispanoamérica*. Han konturatu nintzen lege pila bat zegoela amerikako hizkuntzen inguruan. Hizkuntzen historia sozialak beti erakarri izan nau. Batzutan hurbilketa sozio-historikoak egiten zaizkio literaturari. Materialak non-nahi bilatu behar dira. Edozein tokitan aurkitzen dituzu. Horrela sartu nintzen hizkuntzaren azterketa horretan. Eta horretan jarraitzen dut. Hogeitabost urte daramatzat materiala biltzen. Eta momentu hontan-txe, beste lan batzuk amaitu, eta hilabete gutxiren barruan sartu nahi dut berriz ere buru-belarri gai horretan.

- **Amaierarik gabeko lana.**

Lan hauek ez dira inoiz amaitzen. Esaten dute edozein espezializatetan hamar urte behar direla gutxienez pixka bat jantzita egoteko. Alde horretatik, niri historia erlijiosa (irakasle egon nintzen Arantzazuko teologoeekin) interesatzen zait. Baina beharbada, zabalegia izan naiz nire lanetan. Mugatze aldera, bereziki interesatzen zait XVI. mendea. Egin ditut zenbait lan mende horri lotuak: Leizarraga eta leizarragatarrak, edota Luku gotzainari buruzkoa, esate baterako. Baita euskarazko biblien inguruko bat ere. Edota azkenaldi honetan, Euskal historialariak eta frantziskotarrak, gure herriko frantziskotarrak, edota Arantzazu: Euskal santutegi bat XX. mendean, santutegiaren bostgarren mendeurrena zela kontuan hartuta. Santutegi bat nola azter zitekeen soziologikoki, santutegia historiara hurbiltzeko. Badu anbizio pixka bat lan honek ere. Eta ondoko urteotan historia erlijiosa bukatzea dut helburu.

- **Zein da zure lanetik gehien asebetetzen zaituen eginkizuna?**

Ikertzaile denarentzat zerbait aurkitzea paradisia da, gozamina. Hori lantzea gogorra izaten da. Eta egia esan, hirugarren fasea, teorizazio orokorretara pasatzea, luxu handi bat. Oso zaila da hori. Desanimatu ere egiten zara bidean. Zeure munduan zabiltzanean, arazo epistemologiko eta hermeneutikoetara iristen zara. Zaila da. Denbora asko eta kasi bakarra eskaini behar diozu...

- **Eta jarraitzailerik? Zuk egindako lanari jarraipena egingo dio-nik sumatzen al duzu?**

Normalean jarraitzaileak bideratzen dira ikertegietatik, Unibertsitatetik... Nire kurrikulum pertsonala (gure belaunaldiko askorena) euskal munduak baldintzatu du. Ez nuen utzi nahi euskararen mundua. Uni-

bertsitatean sartuko nintzen hala erabaki izan banu; hamar, hogei, hogeita hamar urtetan ibiliko nintzen batetik bestera, akaso itzuliko nintzen, baina momentu hartako beharrei ez nien erantzungo. Behar genuen *Jakin*, behar genuen hitzaldiak eman. Eta aukera hori egin nuen. *Jakinik*, espezialitateko maisu bat ez zarela inoiz izango. Beti ikasten ari zaren norbait izango zarela.

Baina bere konpentsazioa izan du beste modu batera. Taldelana egiten ikasi dugu. Orduan zeuden arazo batzuei taldean erantzuten saiatu izan naiz. Eta etorkizunerako horrek ere badu bere garrantzia.

• Amaitzeko

Epe batzuetako egoerak gogoratzea gustatuko litzaidake. Euskal munduko erreferentziak jasotzen ditut nire irakasleengandik, konplize sozial batzuk badaude, jarraitzaile batzuk, entzule batzuk, nahi duzuna. 50etik 60ko urte haiek izan ziren nire bizitzarako oinarri. Zorte handia izan nuen, Imanol Berriatua bezalako irakasle bat izatearena edo ta ikastetxeko giro hura izatearena. Oso garai ona egokitu zitzaidan. Ordurako baziren euskaltzale-taldeak. Arantzazun ia sortuta zeuden, eta nik, iritsitakotan, tokia berehala aurkitu nuen. Ia eskaini egiten zidaten zer egin. Aukera hori izatea garrantzitsua da. Batez ere, gartzetan. Horrek gazte bati indar asko ematen dio. Tokia bazenuen, etxe itxi batean geunden, baina kanpoko jendearekin ere harremanak bagenituen. Jendea etortzen zen noiz-nahi Arantzazura. Urte horiek, gainera, 47tik 56ra bitartekoak oso urte bereziak izan ziren. Ez da ahaztu behar mordernitatearen zeinu bat ere bazela Arantzazu, modu berriak sortzen ari ziren toki bat zen. Bizitasun bat zeukan. 70ean hasten da martxan Arantzazuko proiektua. Aita Leteren garrantzia ez nuke ahaztu nahi. Eta gero, biblioteca bat geneukan, zabalik, geure eskura. Posible genuen Arturo Kanpionen gramatika eskue-tan izatea, bere hitzaurrea eta guzti. Hori guztia oso garrantzizkoa zen.

60aren inguruan hasten da euskara batuaren auzia ere. *Jakin*-en kezkatuta geunden nola idatzi behar genuen erabakitzearekin. Guk

akordiobidez egiten genituen gauzak. Ikastetxeetatik gu bezalako gazteak etorri eta hitz egin eta eztabaidatu egiten genuen. Arauak aztertu eta erabaki. Horri esker tokatu zitzaidan, berehala Baionako bilerara joatea, 64koa. Han egon ginen. Eta haren atzetik etorri ziren 66an Ermuan idazleena, eta bi urte geroago Arantzazuko bilera. Guk hori guztia bizi izan genuen. Eta hori guztia eduki genuen. Pribilegiatu batzuk izan ginen.

BIBLIOGRAFIA

- Intxausti, J. (2002) *Gure herriko frantziskotarrak (1791-2000)*. Arantzazu.
- Intxausti, J. (2001) *Arantzazu - Euskal Santutegi bat XX. Mendean / Un santuario vasco en el s. XX*. Arantzazu.
- Intxausti, J. (2000) *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskararako Institutuak arg.
- Intxausti, J.(2000) *Euskal Herria - The country of the Basque Language*. Eusko Jaurlaritza.
- Intxausti, J. (2000) *Euskararen aldeko motibazioak*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskararako Institutuak arg.
- Intxausti, J. (1994) *Euskara Araban*. Eusko Jaurlaritza.
- Intxausti, J. (1994) *El Euskara en Alava*. Eusko Jaurlaritza.
- Intxausti, J. (1993) *Euskera, la lengua de los vascos*. Elkar.
- Intxausti, J. (1993) *Euskara, La Langue des Basques*. Elkar.
- Intxausti, J. (1900) *Euskara, Euskaldunon hizkuntza*. Eusko Jaurlaritza.
- Intxausti, J. (1989) *Iraultzaren hildotik*. Mendu.

Liburu iruzkinak



Aurelia Arkotxa

Pello Lizarralde

Aurelia Arkotxa: *Septentrio*
Alberdania, 2002

XXI. mendean nabigatzeko

Iparraldean, gero eta euskaldun gehiagok onomastika-zatiketa hori onartzen ez duen arren, iparraldean beraz, liburu baten ateratzea besta bat da, edo frankotan argitalpenak aipamen izpirik gabe plazaratzen baitira, izan behar luke, bere urritasunean, literaturaren historia harroaren haria ez dela osoki moztua sinestarazten baitu. Eta gainera Sarako eskola famatuarekin lotzen gaituen obra bat eskuartean dugunean, besta are handiagoa dela nola ez aitor. Horixe da Aurelia Arkotxak Alberdania argitaletxean eskaini digun *Septentrio* izeneko bigarren lanarekin agitzen. Lapurdi eta lapurtarra entzuten da prosazko olerki luze honetan zehar; Lapurdi, arras bekan (gora) aipatzen duen bere itsasoari beha, so, itsasoarekin liluratua, zoratua. Itsasoa munduaren lau haize-hegaletara abiatzeko portu eta lehor. Itzultzeko halaber, bidaiako gertakariz aldatua bezain aberastua.

Aurelia Arkotxa 1953ko urriaren 3an sortu da Baigorriin, itsasotik hain urrun. Hamar urte zituela Hendaiara etortzean ur berdezko eremua lehen aldiz ikusi zuen kolpe poetikoaz ari zaigu testuz testu, izan *Maiatz* aldizkarian, izan *Atari Ahantziak* deitu bere lehen poema-bilduman, izan *Septentrio* honetan. Idazten duelarik, segitzen dugu guk irakurle, hainbeste maisutasunen aitzinean mutu, itsasoari dagozkien hitzen erroak bilatzen, hitzak berak ahanzturaren hauts petik jalgitzen banaka, hiztegi berriak osatzeko. Etxeberri eta Pouvreau-ren ildoetarik ibilki Hendaiatik Ternuaraino. Bakoitzak bereber galdetzeraino zeren

izenean galdu diren ele gazi horiek, zergatik hondarrean asmatu eta amestu den Euskal Herria artzain eta mendi mende. Erantzun zenbait bagenituzke eiki, hemen esplikazio soziologikotan hedatzeko lekua balitz. Baina *Septentrio* narrazio poetikoaren orrialdeetarik nabigatzea aski zaigu gaurkoz.

Kenneth White eskoziar poeta ibiltariaren hitzak irentsiz abiatzen gara. Poeta ezagun horren hatza, eta Basho japoniar haiku egilearena nola ez, kausitzen genuen jadanik, Jon Casenave Lehuntzarra duela urte parrasta bat Elkarren publikatu zuen bere *Ordu Alferren Segidan* deituriko lanean. Natura, oinez partitzea eta poesia sortzea uztartzen zituen poema-bilduma hark, baina aldion lurra baino, itsasoa da fikzio hauen oinarkaitz, hala erran baldin badezaket. Eta gomita ikaragarria da, Aurelia Arkotxaren eta Kenneth Whiten bide maritimoak, liburutegietan eta lekuan lekuko artxiboetan gurutzatzen direlako. Ipar munduetako hormak, haizeak, uhin latzak eta baleazalcan oihuak lagun.

Septentrio hiru zatitan harilkatzen da. Galerna literarioa bailitzan. Hasicran hitzez enbata ilunbez nola, hala hantua, bere zurrunbiloetan gero ontzia harrapatzen eta azkenik itsasoa jabaltzen dela, baretzen, ez-ohizko lasaitasun antsiatsuz betetzen. Guztiz idazlan gehienak euskara batu normatiboaz irensten ditugun aro hanpuros hauetan, Lapurdiko euskalkiak tenpesta aire hotza sartzen digu zainetan, garai baten gustu bortitza aho zokoetan josten, eta bizitza uhinez uhin jostatzen zeneko izuaren izua gatza sabaictan itsasten. Liburu honen irakurtzea ez da bakezko bidaia; alderantziz. Inarrosiak gabiltza, elerik ele nahasiak, ontzi ahulen zubi gainetako burdinak ahurrez tinkatuz itsas-minez botatze-ar. Alta Marko Poloren narrazioarekin, Mandebilla gidari dugula, orienteko mirakulu eta edertasun batzuetan ankerrak azaltzen zaizkigula, bidaia plantan hasten dela iruditzen zaigu. Hitza bela erraldoiaren antzera zabaltzen da, aurkitzeko daukagun munduaren errateko. Ez luzerako ordea.

Bigarren zatian itsasoz eta denboraz daramagun peleginazioak Quebec eta Ternua aldera eroaten gaitu. Eta hor, ama-lurrarekiko, hala diote abertzaleek, gure ikusmoldearen zalantzan jartzera behartzen gaituen Emile indio ikaragarriaren ezagutza egiten dugu. Ezinbesteko esperientzia literarioa. Hirugarren partean aldiz, olerkiz olerki eta testuz testu Aurelia Arkotxak ipar hotz hartako lurretan berak eraman urratsak jarraitzen ditugu, tenpestaren bihotzetik urruntzen bagina bezala. Egu-tegi intimoaren irakurketatik ez gara salbu ateratzen hargatik. Alabaina, orientetik septentrionako bidaiari, karta zehatz eta cderrak edukiagatik, hautsirik gaude, idazlearen plantan, ezpainetarik hitza banaka desagertzen zaigula, isiltasunaren tentazioak tirriatuak. Bildumako azken poemak itsasoa izenondoa errepikatuz, larrantz jaukitzen dira orrialde zurian.

Irudi luke idazleak bere trebezia galtzen edo behintzat galtzera uzten duela, behiala deitzen genuen isiltasuna heda dadin bazterretan, ur eremuetan, gure kasko-zokoetan, pentsatzeko premiazkoa dugun isiltasunaren harramantza galernatsua hain zuzen entzun dezagun. Bakardadearen haizea behar bada. Edo denboraren zein herrialdeen arteko elkartasunaren ekaitzak bete-betean harrapa gaitzan eta hondar olerkitik hara, gure gogoetak alda daitezen. *Septentriok* ohizkoan pentsatzeko, eta badakigu alor horretan bederen ohi-tura hilgarria dela, erabiltzen ditugun sareak desagiten dizkigu.

Aurelia Arkotxaren azken lana berezia da. Itsasoaren inguruko eleak eta mitologiak berriz biltzen laguntzen digu, pentsamenduari Euskal Herriak jasaten eta jasan arazten dituen urtedi beltz hauetan, ezin bestekoa duen ibaien antzera isurtzeko aukera emanaz. Narrazio eta olerki hauen hitz laxoen bidez.

Poesia jendeen, aditzen eta mendeen bitartekari ezin hobea ez ote da?

Pello Lizarralde: *Larrepetit*
Erein, 2001

Isilunearen zama

"Natura tenplu bat da, batzuetan bere habe bizidunek hitz nahasiak jaulkitzen dituzte".

"...Koloreak, usainak eta soinua solasean ari dira".

Charles Beaudelaire, *Correspondence*

Solaskide bat gehiago

Egia baldin bada irakurleak osatzen duela testu bat, berak burutzen eta inoiz biribildu ere egiten duela sorkuntzaren zirkulua, ausartuko naiz Pello Lizarralderen *Larrepetit* irakurtzean nire irakurle parteari otu zaiona lerro hauctara ekartzen. Has nadin esanez Beaudelaire-en goiko ahapaldien oihartzuna somatu dudala 130 orrien artean. Nola-nahi, idazketa eutsian deskribatu kolore, usain eta soinuei solaskide bat gehiago erantsiko nieke: isilunea, alegia. Tenpluak isuri hitzak nahasiak izan arren, solas joria antzeman zuen poeta frantsesak. *Larrepetit* liburuan, berriz, giza-komunikazioaren ezintasuna hain modu biluzian agertu izanak oso bestelako sentimendua transmititzen du: bizi izate astuna, objektu fisiko bat adina, ikustezina izanagatik ere partaide bilakatzen dena narrazioan zehar.

Larrepetit, hizkuntz larreko baten aburuz

Liburuak seinalatu bazterrak usainduz bidaiatu naiz behiala, baina jada desagertua den gizarte mugantean barrena. Ezaguna zaigunaren baina honezkero desagertu denaren xarma du narrazioak, iragan galduak irakurlea malenkoniaz joa uzteko berebiziko indarra duela probatuz. Sukalde ekonomikoa piztuta; fardelak iratzen artean ezkuta-

tuta; bizarra egiteko lehen makina herrira iritsi zeneko eguna; izerdiak, dirua, jokoan irabaztearen poza edota galtzearen amorrua usaindu zituzten trinketeko hormak, jada huntzak estalita... Gauza asko joanak, bizimoldeak ez han ez hemen, pentsakera kinka larrian, eta berritasunen zurrumbiloa oldarrean iristen zaio hil zorian dagoen gizarteari Joxe eta Abelen odisearen aitzakian kontatuak. Odisearen erreferentzia bere neurrian hartu behar da; baliteke zenbaitentzat bortxatuegia izatea konparazioa. Onartzen dut Peneloperik gabeko itzuleraz ari naizela, nire irakurketa inpresionistaren ondorio hutsa izan daitekeela bi gizonezkoen abiatzeari horrela deitzea.

Larrapoteak eskapatu iten dau

Larrapoteak, larrapittikak edo larrapu-ttittek, berez omen dute eskapatze sena. Preso dagoenak duen bezalaxe. Horregatik istorioari primeran egokitzen zaio sondikatar baten ahotik jasoa omen den esapi-dea. Nolanahi, aitor dezadan izenburuaren egokitasuna juzkatzeko hiztegia behar izan nuela, ez bainuen esanahia lehen kolpean jaso. Ezjakina naizen seinale, noski. Idazleari ez diot egotzen, “neure errua”. Izan ere, frantses oihartzuneko izena urruti dago gure matxinsalto gipuzkoarratik. Dela euskalkien kausaz, dela jainkotxo izan ustean gizakiok gauzei izena jarri zale garelako, noizean behin liburu baten mamia zertaz doan igerri orduan, elbarri sentitzea gertatzen zaigu.

Hizkuntza txikien abantaila? Bai eta ez. Hiztegietan barrena bidaia-tzea ezinbesteko ariketa izateaz gain, dibertigarria ere izan daiteke. Are gehiago, dibertigarria ez ezik, tokian tokiko hiztegiak iradokizun-altxorrak gerta daitezke, naturaz ari garelarik batik bat. Euskalkien auziaz eta Jainko izatearen jolasez aparte, hirugarren eragozpen bat nozitu nuen P. Lizarralderen liburua iritsi zitzaidanean: kaletarra izateagatik, seguru. Zer egingo diogu, bada, naturaren katedralean sortu, ugalduta eta hil egiten diren era guztietako biztanleak ezagutzeko sortzez mugatua bada norbera? Amore eman eta aurrera segi, hiztegiak lagun.

Gorputzen lengoia kamerak harrapatua

Liburuaren mamia honoko hau da: Udaletxeko ziegatik iheska doazen bi gizonezkoren ibilerak. Ibilian-ibilian biak, amerikarren “*on the road*” izeneko mentura batean. Ezin esan, berriz, Joxe eta Abel, liburuko bi protagonistak, errepideetan zehar doazenik. Iheslari izanda bazterbideetatik doaz: bidexidorren lokatzetan zehar, edo mendietan sigi-saga, edo erreka eta atakak saltatuz bailaren bide ezkutuetan barna, orbela klaska zapalduz, zentzumenak zorrotzuz.... Izan ere, errepideak, jende arruntarena ez ezik zibilena -Iparragirreraren adieran- den neurrian, iheslariari arriskua ekar dezaioke. P. Lizarraldeki bi iheslarien odisea pausoz-pauso narratzen du, etxera itzultzearekin inork amesten ez duen arren. Zeren, odisea honen bukaeran inork ez du etxetik aurkituko. Biak elkarren zelatan beti, ziegan menturakide suertatu diren arren. Han doa Joxe, bizitzaren azpildu-retan zaildutako ijitua, ahoan belar izpia duela, makila zorrotzeko edo zizak bilatzeko edo behar denerako astia izango duena, irakurtzen ez dakien arren, ihesaren buru izateko buru argiko gizona dena. Legezaharreko Abel barnekoia ondoan, etengabe aginduz: “bulka egiok”, “utz itzak”, “zer egiten duk hor?”.

Lizarralderen narratzeko manierak zinea ekarri dit gogora. Zine-kamera gobernatzen du angelu desberdinetan kokatuz, giza-arimen kantoiak harrapatzen; orain pertsonaiak hizketan –elkarrizketan nekez, komunikaziorik apenas baitago–, orain soilik imintzioak erakusten dizkigula, hizketari berari baino garrantzi gehiago gorputzaren lengoiari emango balio bezala. Gorputzaren lengoiaz gain, isiltasuna elementu adierazkor gisa oso present dago obra osoan. Ez liburu honetan bakarrik. Esanguratsua baita beste liburu bati ipini zion izenburua: *Un ange se passe*. Hain zuzen, hura ere isilunearekin lotu zuen. Ematen du, hitz egin/ez hitz egin kontuan, psikoanalisiarekin, Lizarralde bat datorrela, berak ere uste duela isiltasuna mintzo dela, baita monosilabo- trukatzeko bat besterik ez denean ere. Komunikazioaren zero gradua.

Akzioak narrazioaren plano oso bat hartzen duenean, pertsonaiak beraren menpean gelditzen dira komunikaziorako ezinduak, menturakide soil direlarik. Besterik ez. Lekuz kanpo legoke bi arima, bi gizaki -gizonezko bi, ez da datu hutsala hau- atakan biak, elkarri barrena arintzen deskribatzea, istorioaren sinesgarritasunaren kaltean izango litzateke eta. Joxe ijitua eta Abel morroia, elkarren ezezagunak, Udaletxeko ziegan suertatu dira. Goardiek autora zeramatzatenean egin dute hanka. Lizarraldeko baikoitza nolakoa den kontatzen ibili gabe, 130 orrialdeetan zehar esaten dituzten hitz bakanen eta egiten dituzten mugimendu arrunten bidez deskribatzen dizkigu. Esaldi lehorrak Abelenak, harriak bezain lehorrak. Hitz egiten duenean, nortasun lausoko bati dagokion lez etzekiat-ka jarduten da, iaioa-goa bestea; nora, nondik eta zergatik joan badakien mendetako iheslaria, gaur hemen bihar auskalo non bizitzen trebatua dagoen Joxe ijitua.

Hona adibide gisa ihesaren ondoko enkontruaren pasartea:

- *Zer ari haiz hor?*
- *Utz itzak txorakeriak eta lagunduidak.*
- *Pasa ezak zangoa.*

Orrialde frankoren ondoren, irakurleari goroldioa, astigarra, basoaren arkitektura eta natura bere ñabardura guztiekin deskribatua izan zaion ondoren, iheslarien abentura aurrera doala, hara non euren nortasunaren soslariak deskribatzen zaizkigun lerro hauetan:

- *Ez didak oraindik esan nora joan nahi duan -Joxek.*
- *Ez zekiat. Nik...nik libre ibili nahi diat -Abelek.*

Abel, Lege-Zaharreko nekazaria, edozein definizio bano hobekiago islatzen dute lerro hauek:

- *Hi, Petit. Zer zela eta hintzen han, kartzelan.*

- Ez zekiat.
- Ez dakik.
- Nork daki, orduan?
- Etxaldeko nagusiari galdegin beharko diok.
- Zer egin hioan, ba?
- Ez nauk oroitzen. Kazkartu egin ninduan eta ez nauk oroitzen. Bazekiat luze mintzatu nintzela, baina ez nauk deustaz oroitzen.
- Hortaz, bestondoa pasatzera eraman hindutean itzalera...

Mugaren mugan biziz. Munduan bi egote-modu kontrajarriak

Ziegatik ihes egindako Joxe eta Abel muga-mugan bizi dira. "Larrepetit"-ek litezkeen mugaren adiera guztietan bizi arazten zaitu: nabarmene-na geografikoa delarik. Hain justu, mapetan txarrantxaz markatua datorrena eta zigorra eta debekuarekin zerikusia daukana. Agian, Lizarralde txarrantxaz baliatu da bi nortasun lehorren alde xamurra erakusteko ere, eremuetako txarrantxa pasatzeko elkarri laguntzen diotenean bezala.

Beste muga bat gizarte-eredu baten akabera dateke. Kontrabandoaren diru labainak nekazaritzaren penak arintzen ditueneko gizartea islatzen baita. Eta, ohi den bezala, batzuek aldaketa onartu ez ezik, profintatu ere egiten dute. Besteek, berriz, aldaketari berari egozten diote txarra den guztia. Joarea urrunean dutelarik, Joxe eta Abelen arteko pasarte honek adierazten duen bezala:

- Dena pinuz betetzen ari dituk
- Bai, eta?
- Ba, horrela segituz gero dena hustuko duk. Zergatik uste duk nabilela ni horrela, eh?
- Horrela? Nola?
- Ba...ez zekiat... Horrela, deus gabe... Hik ez duk ikusten, ala?
- Etzakela ergelkeriarik esan! Dagoenetik hartzak eta listo. Pinua dela, ba, pinua. Hori ez bada beste zer edo zer izanen duk. Gauza bat hartu eta bestea utzi. Eta horrela beti.

Azpimunduak, emakumeak

Joko handia ematen dio narrazioari Lainez-ek, saltzaile ibiltariaren pertsonaia, nortasun malgukoa, aurpegi askotarikoa, eta Blas de Oteroren irakurlea. Bere arrastoari jarraituz, beti berdinak, itogarriak, Pierre Loti edo Victor Hugo-rentzat kuttun izan zitezkeen herrixketan sartzen garenez. Xaboa, lurrin gozoa, usain txarren kontrako pastilak eta garbiketako gauzak saltzen dabil dendaz denda, esan nahi duena unibertso txiki eta xarmangarrietaraino eramaten gaituela eta, pastis gozoegia inolaz saihestu ezinik, sukaldeetan muturra sartzen uzten. Hil-zorian dagoen gizartean jendea etsita bizi da, bizi-pozik inon sumatzen ez dela, hil artean bizi lelo higatua entzun beharko diogula emakumeetako bati.

Kontakizunaren harira jakingo dugu aitzurra baztertu eta bizarra egiteko lehen makina iritsi dela; lixiba eta xaboi puxkaren usaina ere aipatzen da tarteka; neskatxa batek *“batzuetan radioa entzuten dugu”* aitortzen du. Trinketea eta kasinoa huntzak estalita daude. Beraz, behin izan zena eta orain hil-urren dagoen gizartea da *Larrepetit*-en azaltzen dena. Istorioa denboran kokatuz nahikoa atzera joan behar izan dut. Urte pilo bat atzerantz. Nire oroitzapenen arabera, mugako sukaldeak izan ziren lehenak Frantziako xaboiak eta garbiketa-produktuak eskuratzen, bigarrenak mugatik kilometro batzuetara bizi ginenok izan ginelarik. Izan ere, handik sartu ziren berritasunak, eta handik batzuk pasa ez ezik, -Arraiapasa izenez ezagutzen den elkarte kasu-, salgai jarri ziren hiriburuko denda, taberna zein beste zulotan.

Adineko emakumeei ohore

Gizartean, oro har, adineko emakumea laudatzen du, ile urdinekoa. Apika laudatuegia azaltzen da. P. Lizarraldeko debozio, sinpatia, mirespenez erakusten dizkigu emakume zaharren galeria, bat baino gehiago *“samaritar”* paperean deskribatuak. Lagunkoiak, hitz doi-koak, langileak, isilak... Gorritu egiten den Juanak *“antzinako neke*

bat" dauka. "Kobrezko mapa" du Joxepak aurpegian, Lainez sal-
tzailearen bisitaren aurrean mototsa apaintzeko keinu pinpirina ara-
zeria gordetzen duenak. Eta bertuteen deskribapena kanpotik eze-
zik, barrutik begiratuta ere egiten du. Jakinduria amaigabearen jabe
baita adineko emakumea: "*behako galdu hori, putzu zuri eta gris hori,*
hondargabea dela eta ezerk ezin diola eragotzi gauza guztien beste alde
iristea". Askotxo, ezta? Badago bat, ordea, zuhurtziaren eremuan
baino gehiago gorrotoarenean dabilena. Juana eta bere alabaren ar-
tean harreman gatazkatsu baten berri ematen zaigu, nahiko direla-
rik pintzelada batzuek bi emakume horien artean kilowatioka neur
daitekeen erresumina dagoela konturatzeko.

Tatuaia erromantikoak naturan

Pintzelada horiek medio, sentipen bat iristen zaio irakurleari etxe-
ko korridorea erlategi bihurtzen den instantean. Izan ere, P. Lizarral-
deren obrak, Frantziako mugan izan, edo Portugal-eko kresalak
blaitu bazter batean, beti iradokizunen putzura eramaten zaitu, eta
Caspar David Friedrich-en irudietan bezala (*Hegats* 10.aren ilustra-
zioak), naturarekin aurrez-aurre uzten.

Un ange se passe liburuan, mundu desagertuaren zama sentitzen
den bezala, *Larrepetit*-en begibistan ez dagoena antzematen da, Joxe
eta Abelen ihesaren azpitik badoan korrontearen enbata. Gomen-
dinoa egiten diot irakurleari, bidaian abia dadin *Un ange se passe*-ren
orrietan barna, lerroei darien zera hori zuzenean suima dezan, har-
tara ikusiko du natura dela ezkututzen ez dena eta tolesdurarik ez
duena.

Hona hemen zenbait adibide: Ribeira Quenteko lorategi eskegiak
itsasoan barneratutakoei mezuak bidaltzeko kimatuak iruditu zi-
tzaizkion. Bizkar erraldoien itzaletan, erresuma murgilduaren dar-
dara ikusi zuen Baleiro-ko kostako uharte ilunetan. Eta izaera por-

tugesean hain present dagoen ahanztura, *esquecer, esquecer, esquecer* mingarri hori guganaino ekartzeko, artxipelagoaz baliatzen da: gutxi irauten duten irlen artxipelagoa, izena jartzeko denborarik egon ez delako omen da. Eta Azores-etik atera gabe, Furnas-eko gela batera eramango gaitu, denbora baltsamatuz dauden oroigarriak bertatik bertara ikus ditzagun, eta Pirinioen itzaletan zein Atlantikoaren argitan ordu batzuek bizi gaitezen.



Hegats-en argitaratu nahi baduzu:

- Nora bidali: testuak posta elektronikoz edo posta arruntez EIEra bidali beharko dira *Hegats*-erako direla esanez.
- Nola bidali: testuak euskarri elektronikoan helarazi beharko dira.
- Data: EIEk urtean bi ale argitaratzen ditu (uztailean eta abenduan). Kasu batean zein bestean, testuak hiru hilabete aurretik bidali beharko dira.
- Karaktere kopurua: idatzi beharreko karaktere kopurua, sailaren arabera, honakoa da:
 - Literaturbideak: Prosa (ipuina...): 18.000 kk gehienez
Poesia: 320 lerro gehienez
 - Kritikabideak: artikulua (saiakera...): 18.000 kk gehienez
 - Liburu-iruzkinak: 5.000-9.000 kk artean
- Idazkuntza-kontseiluak egileari hartutako erabakiaren berri emango dio.
- Idazkuntza-Kontseiluaren eta egilearen arteko harremana, ahal dela, e-postaren bidez burutuko da.

Harpidetu zaitez:

Urteko harpidetza: 12€ (urtean 2 zenbaki). Dendan ale bakoitza: 7 €



HARPIDE-TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria: P.K.: Tel:

Banku edo Kutxa:

Kontu-zkia (20 digito):

EIE

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
Zurriola hiribidea, 14-1.ezk
20.002 DONOSTIA
Tel: 943.27.69.99; Faxa: 943. 27.72.88
e-posta: eie@eie.euskalnet.net

Ale honetako kolaboratzaileak:

- **ITXARO BORDA** (Baiona, 1959): idazlea, eleberria eta poesia landu ditu batez ere. 2002ko Euskadi Saria.
- **ANDOLIN EGUZKITZA** (Santurtzi, 1953): Hizkuntzalaritzan doktore eta irakasle titularra EHU. Euskaltzain osoa. Itzultzaile eta idazlea: eleberririk eta poesia.
- **JOSE ANTONIO GANDARIAS** (Ajangiz, 1920): Filosofia eta Teologia ikasketak egin, irakasle eta sermoilari lanetan jardun du. Idazle eta itzultzailea.
- **MAITE GONZALEZ ESNAL** (Donostia, 1943): Filosofia eta Letretan lizentziatua, Bartzelonan. Itzultzaile lanetan aritua eta idazlea: haur eta gazte literatura.
- **TERE IRASTORTZA** (Zaldibia, 1961): Beasaingo ikastolako zuzendaria eta Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria. Idazlea: poesia.
- **ARANTXA ITURBE** (Alegia, 1964): Informazio Zientzietan lizentziatua, Nafarroako Unibertsitatean. Kazetaria eta idazlea: ipuinak eman ditu argitaratu batik bat.
- **JAUME PEREZ MONTANER** (L'Alfàs del Pi, 1938): Filosofia eta Letretan lizentziatua eta irakasle titularra Valentziako Unibertsitatean. Itzultzaile eta idazlea: poesia eta saiakera.
- **JOSE LUIS ZURUTUZA** (Zegama, 1935): Arantzazuko fraide frantziskotarra. Filologia Erromanikoan lizentziatua Madrilgo Unibertsitate Zentralean. Idazle eta itzultzailea, eta Arantzazuko Eguntegiaren zuzendaria.



Hegats

31



Literaturbideak ☞

JAUME PÉREZ MONTANER.

Niobideren oroitzapena

Kritikabideak ☞

TERE IRASTORTZA.

*Euskal literaturaren historiaren
orri gehigarriak*

Txosten monografikoa: ☞ **Aita Villasante.**

JOSE LUIS ZURUTUZA, "Arendui".

Aita Villasante eta Arantzazu

JOSE ANTONIO GANDARIAS.

Luis ene lagun mina

Elkarrizketa: ☞

ARANTXA ITURBE.

*Joseba Intxausti, mende laurdena
euskal nortasunaren bila*

Liburu-iruzkinak: ☞

ARKOTXA, AURELIA.

Septentrio. Itxaro Borda

LIZARRALDE, PELLO.

Larrepetit. Maite Gonzalez Esnal

